# Goienkaria

2007ko urriaren 5a > Egubakoitza > VII. urtea > 303. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net


"Denbora eskaini behar zaio umeari; kalitatea bai, eta kantitatea ere bai"

**Juan Luis Martin**
Psikologian doktorea > 09



**G2a** Latzen taldea taula gainean berriz > 43-44

**MANKOMUNITATEA**
Batzorde berezia sortuko dute helburuez hausnartzeko > 05

**ARRASATE**
Maritxu Kajoi, txikiteroen eguna, ospatuko dute gaur > 19

**ESKORIATZA**
Bukatu dituzte XIX. mendeko labea berreskuratzeko lanak > 35




**HERRITARREN DEIA** Ehunka herritar batu ziren eguaztenean Udal Pilotalekuan, euskal herritarrei Kilometroak jaian parte hartzeko gonbita bateratua egiteko. JAVIER VICENTE

**KILOMETROAK 07** > ARANZADI IKASTOLAK JAIRA ETORTZEKO GONBITA EGIN DU

# Dena prest Bergaran domekako jairako

**IREKIERA** 10:00etan irekiko dute zirkuitua: 6.510 metroko luzera du eta batez ere herrigunetik doa

**AUTOBUSAK** Debagoienerako zerbitzu zabala egongo da, 15 minutuko maiztasunarekin > 07

**PRESOAK** > MOBILIZAZIOAK

## Bilkurak deitu dituzte kooperatiban

Jose Luis Azkargortari espetxe zigorra luzatu diotela salatuko dute > 06

**POLITIKA** > EPAIKETA

## Oñatiko PPko zinegotzia epaituko dute

EAEko zinegotziek salatu dute "hiltzaile" deitu ziela > 33

AURKIBIDEA


**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55








**ENPRESAK** > ATZERRIAN LANEAN

# Ibarreko langile asko atzerrian dabiltza gure inguruko enpresendako lanean



**MERKATUA** Enpresa askok atzerrian filialak eta negozioak dituzte, ekoizpena merkeagoa egiteko edo bezeroengandik gertuago egoteko

**ARDURA HANDIKOAK** Gehienetan, atzerrira bidaltzen dituzten langileek ardura garrantzitsuak hartu behar izaten dituzte enpresetan

**GAZTETAN** Atzerrian lanean ibilitako gehienek aitortu dute esperientzia aberatsa dela, baina gurago dutela gazteak diren bitartean egitea

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Ezagun da enpresek gure ibarrean duten garrantzi handia. Hala, globalizazioak nazioartean ekarri dituen aldaketek guri ere zuzenean eragiten digute. Hain zuzen ere, ibarreko enpresa askok –kooperatibak zein sozietate anonimoak– hainbat filial eta negozio dituzte atzerrian. Batzuetan produktuak merkeago ekoizteko, eta beste batzuetan salmentarako merkatu potentzialak dituzten herrialdeetan negozioak bezeroekin zuzenean hobeto egiteko. Horren guztiaren ondorioz, gero eta gehiago dira hemengo enpresek bidalita atzerrira lanera jotzen duten debagoiendarrak.

Horrez gain, badira hilabete batzuetarako atzerrira makinak konpontzera edo martxan jartzera joaten diren langile kualifikatuak ere. Horietako batzuekin izan gara asteon.

**Aitor Aiastui**

ARGENTINAN 5 URTE EGIN ZITUEN

## "Hemen daukaguna baloratzeko balio izan dit esperientziak"

Aitor Aiastui arrasatearra Ulmako langilea da aspalditik. Ulma Agricolan lanean zegoela, aukera izan zuen Ulma Industrialerako Argentinara lanera joateko. "Argentinara joatea betidanik izan dudan amets bat da, eta Maite bikotekideari galdetu nion. Haren onespenarekin, aste baterako jo nuen hara, eta gelditzea erabaki nuen. Hiru urterako joan ginen, eta azkenean bost urte egin genituen han".

Maite bikotekideak berehala jo zuen hara eta Farmaziako ikasketak Buenos Airesko unibertsitatean bukatu zituen. "Maitek oso argi zuen lan egin gura zuela, eta epe laburrean farmaziaren alorrean lanean hasi zen. Oso ondo egokitu ginen hango bizimodura".

**Gure inguruko kooperatibek zein sozietate anonimoek hainbat negozio dituzte Asian, Hego Amerikan eta beste leku batzuetan**

**Orokorrean, hemendik joaten diren langileek erantzukizun handiko ardurak hartu behar izaten dituzte atzerrian**

Aiastuik Ulma Andamios y Encofrados SA filialeko finantza arduradun jo zuen hara, baina gerora gerente izendatu zuten. Hango euskaldun bakarra zen. "Argentinako krisi ekonomikoak eta *cazerolazo* delakoa bizi izan genituen. Sasoi oso gogorra izan zen, eta negozio aldetik asko sufritu genuen. Azkenean, bueltan etorri ginen, baina filialak lanean dirau. Krisirik ez balego, auskalo handik noiz bueltatuko ginatekeen...", aitortu du Aiastuik.

Bestalde, Aiastui oso pozik dago han izandako esperientziarekin, eta gazteei gomendatzen die halako probak egitea: "Gauza berriak ezagutzeko gogoa dutenei proba egiteko esango nieke. Asko aberasten du. Balio du esperientzia hartzeko eta hemen daukaguna behar den moduan baloratzeko. Nik orain badakit hemen moduan ez garela beste inon bizi; horrek asko balio du".



**EGONALDI LUZEAK** Goian Aitor Aiastui, emazte Mait

Dena dela, Argentinaz maiteminduta dagoela onartu du Aiastuik. "Maite eta biok han ezkondu ginen, eta Txomin ere han jaio zen. Bizipen asko eta onak ditugu. Oso ondo pasatu genuen han, eta lagun oso onak ditugu oraindik. Argentina nire bigarren aberria da, zalantza barik".




**MUNTAKETA** Argazkian Gaizka Kortazar, Suediako Götened's enpresan muntaketa lanak egiten ibili zenean. GOIENKARIA

## Makinen muntaketak edo konponketak egiteko etengabeko bidaiak atzerrira

Gaizka Kortazar eskoriatzarrak bederatzi urte darama Osintxuko Soraluze enpresan lanean. Soraluzek fresatzeko makinak egiten ditu, eta atzerrian erosle asko ditu. Arrazoi horregatik Kortazar askotan izan da Alemaniako, Italiako, Suediako eta Portugalgo enpresetan fresatzeko makinak muntatzen edo konponketak egiten.

Astelehenean bertan Errumaniara doa, dagoeneko bidean dagoen makina bat muntatzera. "Hilabete inguruko egonaldiak egiten ditut eta ia beti bakarrik joaten naiz. Batzuetan gogorra egiten zait, lekuaren arabera eta baita han hartzen nauenaren arabera".

Turismoa egiteko tarterik izaten ote duen galdetuta, honako hau erantzun digu: "Zoritxarrez presa izaten da makina prest izateko. Horregatik, gehienez zapatu arratsaldeak eta domekak izaten ditut libre, eta inoiz inguruak ikusteko aukera izan dut, baina ezer gutxi".









e eta Txomin Argentinako Perito Moreno glaziarrean. Behean Kristina Elkoro, Celay enpresan, Mexikon; eskuinaldean, Edorta Moreno, Seulera joan aurretik, Bartzelonan. GOIENKARIA

Horrez gain, Aiastuik kezka bat agertu du: "Ni oso ondo nago Oñatin Ulman lanean, ondo egokitu naiz Argentinatik bueltan, baina nire ustetan enpresa batzuek hobeto landu beharko lukete atzerritik datozenen itzulera. Gero eta jende gehiago doa kanpora lanera, eta batzuetan enpresan ez dute haien itzulerarako funtzioak aurreikusten".

## Kristina Elkoro

MEXIKON DAGO, CELAYN LANEAN

### "Lanean igartzen da mexikarrak eta gu desberdinak garela"

Kristina Elkoro Antzuolako Elay enpresako langilea da, eta maiatza ezkero Mexikon dago lanean. Elay taldeak 2000n zabaldu zuen Mexikoko Guanajuato estatuan Celay izeneko fabrika. Elkoro irail amaiera arte Celayko zuzendaria ordezkatzeko lanetan ibiliko da. "Hona etortzeko esan zidatenean apur bat ikaratu nintzen, Mexikon egonaldi luzea egin behar nuelako eta lanpostua ere niretako berria zelako. Hala ere, mutil-laguna, Unai Etxeberria, hemen egoteak asko lagundu zidan erabakia hartzerakoan. Horrek eta asko ikasiko dudala jakiteak", aitortu digu Elkorok.

Baina aurretik ere egona zen Mexikon: "Mexiko apur bat ezagutzen nuen aurretik; oporretan ibilita nengoen eta noizean behin laneko bidaia batzuk eginak nituen hona. Egia esan, betidanik gustatu zaidan herrialdea da, gauza eder asko ditu, nahiz eta aurretik jakin lan egiteko leku berezia dela".

Euskaldunen eta mexikarren artean desberdintasun handiak daude, eta lanean ere hori igartzen dela azaldu digu Elkorok: "Sarritan ez da erraza mexikarren pentsaera ondo ulertzea, eta eurei ere antzera gertatzen zaie gurekin. Askoz erritmo geldoagoa dute, dena lasai hartzen dute eta ez dira estresatzen. Atzerritarrak gara hemen estresatzen garen bakarrak".

Elkororekin batera, Celayn une honetan Unai Etxeberria eta Carlos Sarobe bergarararrak eta gatzagar bat daude lanean.

## Edorta Moreno

SEULERA DOA LANERA

### "Jende askok ez du gura izaten hain urrun lanera joaterik"

Edorta Moreno arrasatearrak Abadiñoko Auto-Tech enpresan lanean dihardu marrazketa industriala egiten. Eta, Auto-Techek General Motorsekin dituen proiektu batzuk egiteko, Seulera (Hego Korea) joango da datorren astean, bi hilabete eta erdirako. Eta Moreno eta General Motorseko arduradunak, biak, pozik badaude, urte eta erdi egingo du han.

"Lankideek gurago zuten hain urrun ez joan, eta neuk baietza eman nuen mundua ezagutzearren eta esperientzia handiagoa hartzearren. Oso bidaiazalea naiz eta lanetik ere hainbat bidaia egin izan ditut".

Morenoren zeregin nagusia izango da marrazketa industriala egitea, baina kudeaketa eta komertzial lanak ere egin beharko dituela uste du. "Esku artean izango dugun lehen proiektua da 2008ko Opel Corsa berria. Horren aurrealdea guk diseinatuko dugu. Hasieran, Asiako merkatuan salduko dute eta gero Europara ekarriko dute".

Seulgo General Motorsen Moreno euskaldun bakarra izango da: "Ez diot beldurrik bakarrik joateari. Batez ere lan egitera noa, eta horrek denbora luzea kenduko dit. Hala ere, lagunak egiteko erraztasun handia daukat, eta aurkituko dut norbait. Jakin badakit Seul aldean Unai Urretxo arrasatearra aspaldian bizi dela, eta harekin harremanetan jarriko naiz".

Omega Elevator, s.a.
• Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
• Gremioen koordinazioa
• Arkitektura-oztopoen kentze lanak
Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com

SSANGYONG RODIUS BERRIA
22.900 €-tik aurrera


MONOBOLUMENA 7 ESERLEKU ETA MALETATEGI IZUGARRIA
MERCEDES-BENZ MOTORRAREKIN 270 XDI 165 ZP
SSANGYONG
VERTIZ MOTOR
Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10
Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66
Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99

**POLITIKA** > PILAR MANJONEN HITZALDIA

# Baketik-ek bigarren ikasturtea inauguratuko du bihar, zapatua

Lehen ikasturtearen balorazioa eta bigarrenaren lan irizpideak azalduko dituzte ekitaldi horretan

Bide Mila proiektuaren barruan eskaintzen diren ikastaroen programazioa ere aurkeztuko dute

**MIRIAN BITERI** > OÑATI

Bihar, zapatua, Baketik-en bigarren ikasturtea inauguratuko dute. Ekitaldia 11:30ean hasiko da Arantzazuko Gandiaga Topagunean, Bake Zentroak egoitza duen tokian.

Inaugurazio ekitaldi horrek bi zati izango ditu: lehenengoan, Baketik-eko zuzendari Jonan Fernandezek lehen ikasturtearen balorazioa egingo du. Bide Mila egitasmoaz gain, azken hamabi hilabeteetan egin diren ekimenak gogoratuko ditu; alegia, antzerkiaren bidez eskolan indarkeria eta jarrera arrazistak ekiditeko programa, lehentasun etikoei buruzko jardunaldiak, ekaineko Afrikari buruzko astea eta uztaileko Bake Hezkuntzako Nazioarteko Kongresua. Horrez gain, datorren ikasturteko lan irizpideak aurkeztuko ditu.

Bigarren zatian, Veronica Portell kazetari eta idazleak Pilar Manjonen hizlariaren aurkezpena egingo du eta hitzaldiari hasiera emango dio.

Ikasturte berriari hasiera emateaz gain, Arantzazuko Bake Zentroak orain dela urtebete martxan jarritako Bide Mila proiektuaren barruan eskaintzen diren ikastaroen programazio berria aurkezteko ere balioko du ekitaldi horrek.

**LAU IKASTARO BERRI**

2007/08 ikasturteko ikastaroen programa *Hobeto bizitzeko, zeurekin eta besteekin* lelopean aurkeztuko dute eta urria eta martxoa bitartean, hiru asteguneko lau ikastaro eskainiko dituzte. "Gainera, ikasle gehienek egin duten jarraipen eskaerari erantzunez, 2008ko otsaila eta ekaina bitartean eskainiko den sakontze ikastaro bat prestatzen ari gara", azaldu du prentsa ohar baten bidez Baketik-ek.

Esandako ikastaroak Arantzazun izango dira. Horietaz aparte, hala eskatzen duen edozein herri, GKE, parrokia, erakunde edo enpresatan ere eskainiko direla jakinarazi du.

Bide Mila proiektuaren aurreikuspenak gainditu direla ere gogoratuko dute bihar. 2007a amaitu aurretik, etika eta berradiskidetzeari buruzko ikastaroan gutxienez 1.000 pertsonaren parte-hartzea aurreikusita zegoen; bada, bederatzi hilabetean 2.000 ikasle baino gehiago izan dira ikastaro horretan. Bake Zentroaren helburu berria 3.000 lagunera iristea da orain.

**ELKARTASUNA** > CARITAS ETA TAU FUNDAZIOA

# Elkartasunezko ekonomiaren gaineko jardunaldiak Oñatin

Tau Fundazioak eta Gipuzkoako Caritasek antolatu dituzte jardunaldiok, eta Arantzazun izango dira

**AINTZANE IRIZAR** > OÑATI

Arantzazuko Gandiaga Topagunean elkartasunezko ekonomiaren gaineko formazio jardunaldiak egingo dituzte oraingo asteburuan. Jardunaldion helburua da herrien arteko eta baztertuen aldeko zubiak eraikitzeko formazioa eskaintzea.

Bihar, zapatua, 09:30ean ekingo diote lanari; partaideei harrera egingo diete ordu horretan antolatzaileek. 10:00etan, partaideak aurkeztuko dituzte eta ikastaroen helburuak azaltzeko ekitaldia egingo dute. 10:15ean egingo dute lehenengo saioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Efren Areskurrinagak honako berbaldia egingo du: *Mundu Globalizatu bateko ekonomia ereduak*.

Eguerdian, 12:00etan, ardura sozial korporatiboaren gaineko berbaldia egingo du Mugarik Gabeko Ekonomilariak elkarteko Jesus Otxoak.

Bazkalostean jarraituko dute jardunaldiekin; 16:00etan, Opcions taldeko Juan Antonio Gartziak *Ardurazko kontsumoa* izango du hizpide. 18:00etan, FIAREko Juan Gariburen txanda izango da: *Finantza tresna solidarioak (banku etikoa, mailegu solidarioak)* izeneko berbaldia egingo du hark.

Urriaren 7an, domekan, bidezko merkataritzaren gainean berba egingo die parte-hartzaileei Gipuzkoako Caritas erakundeko Inma Ezeizak.

Saio horrekin bukatuko dira jardunaldiok; 12:00etan egingo dute ikastaroak amaitzeko ekitaldia.

**AZAROKO JARDUNALDIAK**

Azaroko lehen asteburuko beste jardunaldi batzuk antolatu dituzte Tau Fundazioak eta Caritasek: *Bazterketaren Iparra eta Hegoa* izeneko jardunaldiak, hain zuzen ere. Berba egingo dute, besteak beste, Hegoa elkarteko Alfonso Duboisek eta Espainiako Caritas erakundeko Kiko Lorenzok. Immigrazioa, prostituzioa, mundu globalizatuan dagoen bazterketaren ikuspegia eta abar izango dira jardunaldiko gaietako batzuk.

**HEZKUNTZA**

# EHBEk ontzat jo du ikastetxeen akordioa

Bergarako Aranzadi ikastola eta San Martin eskolako auziaz aritu da

**GOIENKARIA** > BERGARA

Euskal Herriak Bere Eskolak (EHBE) pozik azaldu da Aranzadi ikastola eta San Martineko ikastetxeen artean lortu izan den akordioagatik: "Asko pozten gara Bergaran hezkuntzaren inguruan sortu den gatazka korapilatsua gainditzeko Aranzadi ikastolak, San Martin Herri Eskolak, Bergarako Udalak eta Gasteizko Hezkuntza Sailak akordioa lortu izana".

Orain kalitatezko hezkuntza euskaldunaren eta "hezkuntza sistema nazionalaren" alde egiteko "garaia" dela azpimarratu du EHBEko koordinatzaile Ibai Redondok prentsa ohar baten bidez.

**ZUZENKETA**

Bestalde, joan zen irailaren 29an, EHBEk agerraldia egin zuen Bergaran, ikasturteari hasiera emateko eta ikasturte horretan zehar ekimenak garatuko duen plangintza aurkezteko. Eta horren berri eman zuten *Asteleheneko Goienkaria*-n.

Argitaratutako testuan, baina, zuzenketa bat egin gura izan du ekimeneko koordinatzaileak. Aranzadi ikastolako eta San Martin ikastetxeko proiektuak "ez direla ezberdinak" argitaratu zen *Asteleheneko Goienkaria*-n. Baina horren ordez behar zuen: "ez direla horren ezberdinak".

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

**DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA** > BATZORDE INFORMATZAILEAK SORTU DITUZTE

# Mankomunitateak batzorde berezia sortuko du helburuez hausnartzeko

Beste batzorde bat ere sortu dute, orain arte batzorderik osatzen ez zuten hainbat gai lantzeko: euskara, gizarte zerbitzuak eta kirola, besteak beste



**GOBERNU BATZORDEA** Mankomunitateko gobernu batzordea osatzen duten kideak, eguaztenean, Antzuolan. JONE INUNTZIAGA

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Eguaztenean egin zuen Debagoieneko Mankomunitateko gobernu batzordeak batzarra, Antzuolan. Hantxe erabaki zuten zein batzorde informatzaile osatu, eta batzorde horietako lehendakariak izendatu zituzten.

Bi batzorde berri osatzea erabaki zuten, besteak beste. Batetik, Mankomunitatearen helburuen, funtzionamenduaren eta bete behar duen paperaren gainean hausnarketa sakona egiteko batzorde bat. Sei hilabeteko epea dute hausnarketa hori egiteko. Batzorde horretan landuko dituzte estatutuetan egin beharreko aldaketak ere. Hurrengo batzarrerako laga zuten batzorde horren osaketa. Bestalde, Hainbat Zerbitzu izeneko batzorde berria osatzea erabaki zuten. Kontua da aurreko agintaldietan bazeudela hainbat gai batzorderik ez zutenak eta orain gai horiekin guztiekin batzorde bat eratu dute. Gaiak dira honakoak: euskara, kirola, Mundumira, gizarte zerbitzuak eta administrazioaren modernizazioa.

BATZORDEETAKO LEHENDAKARIAK

**> HILTEGIA**
Pedro Iturbe (EAE)
Antzuola

**> INGURUMENA**
Pedro Lasagabaster (EAE)
Eskoriatza

**> LURRALDE ANTOLAKETA**
Enara Minguez (EAE)
Bergara

**> GARAPENA/TURISMOA**
Oxel Erostarbe (Aralar)
Elgeta

**> KONTUAK ETA PERTSONALA**
Ino Galparsoro (EAE)
Arrasate

**> HAINBAT ZERBITZU**
Julia Monje. (Ezeker Batua-Zutik)
Arrasate

Herririk herri egingo dituzte batzarrak, txandaka, alfabetikoki, herriaren izenaren arabera, hilabeteko lehen eguaztenetan. Hurrengoa izango da urriaren 24an, Aretxabaletan.

**Edozein premiatarako:**
- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria
- Jaioaurreko diagonestikoa-ekogarfia (4D )
- Endoskopia ginekologikoa
- Laguntza bidezko ugalketa
- Obstetrizia
- Nerabezaroko ginekologia

**Zure zerbitzura:**
- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- Mikel Gorostidi

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO



Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88

kontsumoa



Etxea 20 graduan izatea gomendatzen da. GOIENKARIA

## Etxean energia aurrezteko kontuan hartu beharreko zenbait gomendio

GOIENKARIA > BERGARA

Etxean aurrezteko zenbait kontseilu ematen dituzte *Opendeco* dekorazio eta interiorismoari buruzko blogean. Energia aurrezteko kontseiluak dira ondoren azaltzen direnak. Argiztapenari dagokionez, argi naturala ahal den guztietan aprobetxatzea gomendatu du. Horren harira, etxeko hormetan eta gortinetan kolore argiak erabiltzea egokiena dela dio. Lanparak garbi mantentzeaz gain, kontsumo txikiko bonbillak izatea ere gomendagarria da.

Etxeko tenperaturaren inguruan, aireztatzeko, leihoak hamar bat minutuz zabalik izatea nahikoa dela jakinarazi du. Denbora luzeagoz izateak beroa galtzea baino ez dakarrela gaineratu du. Berogailuaren termostatoa 20 graduan egoteko gomendioa ere ematen du, hortik gorako gradu bakoitzeko kontsumoa %5 igoko da bestela.



## Butano botila 65 zentimo garestitu zen astelehenean

Butano botilak beste igoera bat izan du aste honetan. Astelehena ezkero, botila bakoitzeko 65 zentimo gehiago ordaindu beharko ditu erosi gura duenak. 12,29 euro balio du orain.

Pasa zen uztailaren 1ean 11,64 eurotan zegoen 12,5 kiloko botila. Igoera, beraz, %5,58koa izan da.

Prezio handiena 2006ko apirilean izan zuen butanoak. 12,35 eurotan zegoen orduan botila bakoitza. Sei zentimoko aldea baino ez dago gaur egun ordaintzen denarekin. Azken 50 urteotako bigarren igoera handiena izan da oraingoa.



## ADSLren prezioa eta abiadura murriztuko ditu Telefonicak

ADSL izateko sarreragatik 39,90 euro eskatzen ditu hilero Telefonicak. Hala ere, eskaintza merkeagoak prestatzen ari da orain enpresa.

Prezioen murrizketak abiaduraren moteltzea ere ekarriko du. Hilero 21,6 euro ordaindu gura duenak jakin behar du 0,5 MBko abiadura izango duela. 1 MBkoagatik, berriz, 29,9 euro ordaindu beharko ditu hilero. Eta 0,25 MBko abiadura ere eskainiko du esandako enpresak.

Gaur egun, ADSL kontratatzen duten lau harpidetza berritatik, Telefonicak hiru eskuratzen ditu.

**EUSKAL PRESOAK** > PROTESTA EKITALDIAK ASTELEHENEAN

# Luis Mari Azkargortari 2018. urtera arte luzatu diote zigorra

Kooperatibetako Plataformak astelehenean kale agerraldiak egingo ditu eta Bergaran manifestazioa egingo dute eguenean

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Aurtengo urriaren 8a, datorren astelehena, zuen Luis Mari Azkargorta preso aramaioarrak aske geratzeko eguna. Baina Espainiako Auzitegi Nazionalak jakinarazi berri dio aske geratzeko data berria dela 2018. urteko apirilaren 8a. Hori dela eta, Azkargorta aske lagatzea eskatzeko helburuarekin, hainbat protesta ekitaldi antolatu dituzte datorren asterako.

Astelehenean, urriak 8, Kooperatibetako Plataformak deituta, kale agerraldiak egingo dituzte kooperatibetako sarreretan, 13:45etik 14:15era. Bestalde, urriaren 11n, eguena, manifestazioa egingo dute Bergaran. San Martin plazan hasiko da manifestazioa, 19:00etan.

### ESPETXEAN 1988A EZKERO

Luis Mari Azkargorta aramaioarra da jaiotzez, baina Bergaran bizi zen. Atxilotu zuten 1988ko apirilean. 2003ko urtarrilean aske geratu zen eta azaroan berriro atxilotu zuten. Martutenen egon zen 2004ko abendura arte eta ordutik hona Zaragozako Zuera espetxean dago.

Kooperatiben Plataformak Azkargortaren kasua salatu nahi izan du eta aske lagatzea eskatu du: "Bazkide kooperatibistok preso politikoekin elkartasun lotura sendoa izan dugu historikoki. Gure lankide eta bazkide den *Kanto*-k gurekin lanean orain egon behar du", diote plataformako kideek. Kontuan hartu behar dugu Fagor Etxetresnetan lanean zebilela Azkargorta 1988. urtean atxilotu zuten arte; 2003an aske geratu zenean ere berriro hasi zen kooperatiba horretan lanean.

### PAROT DOKTRINA

Zigorra luzatzearen arrazoia da Espainiako Auzitegi Gorenak 2006an onartutako 197/2006 sententzia aplikatu diotela, *Parot Doktrina* izenarekin ezagunagoa. Azkargorta epaitu zuten 1973. urteko Kode Penalarekin. Kode horren arabera, presoak gehienez bete ahal du 30 urteko zigorra eta aukera dauka zigor murrizketak izateko. Murrizketa horiek aplikatzen zitzaizkien gehienezko 30 urte horiei. Iaztik indarrean dagoen 197/2006 sententziaren ondorioz, baina, murrizketak aplikatzen zaizkie zigor guztien batuketari. Adibidez, preso batek 60 urte batzen dituzten zigorrak jaso baldin baditu, murrizketak egingo zaizkio zigor bakoitzari eta ez gehienezko 30 urteei. Horrela, osorik bete behar dituzte 30 urteak.





Tailerreko ordutegia:
Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00

Zapatuetan enpresa eta langile autonomoei zuzendutako zerbitzua
Mantentze-lan zerbitzua (Aurrez deituta)

TALLERES CHAPIME
Debagoieneko Citroën kontzesionario ofizial bakarra
San Andres Auzoa 10 - Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE

CITROËN
NO TE IMAGINAS LO QUE CITROËN PUEDE HACER POR TI

**KILOMETROAK 07** > UDAL PILOTALEKUAN BILDU ZIREN EGUAZTENEAN

# Domekako Kilometroetara etortzeko dei egin dute ehunka bergararrek

Pilotalekuan bildutakoen izenean mezu bat irakurri zuten; oraindik ere ikastolen aldeko jaialdiak "beharrezkoak" direla aipatzen zen hartan

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Eguazten arratsaldean ehunka bergarar bildu ziren Udal Pilotalekuan, domekan ospatuko den Kilometroetako jaialdian parte hartzeko gonbita egiteko. Hitzordua Usondo parkean jarrita zegoen, baina euriagatik azken orduan tokiz aldatzea erabaki zuten ekimeneko antolatzaileek.

Bertaratuen artean herriko aurpegi asko ikusi ahal izan ziren: kirolariak; kultura elkarte eta taldeetakoak; elkarte gastronomikoetakoak; alderdi politiko eta sindikatuetakoak; enpresa mundukoak; gizarte eragileak; tabernariak eta baita Aranzadi ikastolako guraso, irakasle, langile eta ikasle ugari ere. Besteak beste han izna ziren: Imanol Bolinaga, Bergarako alkate ohi eta EAJko senataria izandakoa Madrilen; Agurne Barruso, Bergarako alkatea; Jose Luis Elkoro, alkate ohia; Jokin Etxaniz eta Jose Mari Zezeaga, pilotariak; Aitor Zabaleta, auto gidaria; eta Pello Garitano, Lokatza ziklismo eskolakoa.

**MEZUA IRAKURRI ZUTEN**

Pilotalekuan bildutakoen izenean mezu bat irakurri zuten sei lagunek, eta domekan Bergarara etortzeko gonbita egin. Arrazoi askorengatik, ikastolen eta euskararen aldeko jaiak oraindik ere "beharrezkoak" direla aipatu zen mezu hartan. Horrez gainera, bergararrentzat jaia herrian antolatzea "ohorea" dela azpimarratu zuten.

Domekako Kilometroak jaiaren hasiera-ekitaldia 09:30ean izango da. Aurtengo jaiaren koordinatzaile Unai Azkaratek egingo ditu aurkezle lanak eta eskolako kideekin batera hainbat ordezkari politiko ere izango dira.

Zinta moztu ondoren, ibilbidea egingo dute guztiek. Zirkuituak 6.510 metro izango ditu eta sei zerbitzugune daude ibilgunean zehar: ikastolakoa, Usondokoa, Matxiategikoa, Artabilakoa, Labegaraietakoa eta Espoloikoa. Eguneko bigarren ekitaldia eguerdian izango da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Bi zatitan egongo da banatuta: lehenengoan, omenaldi ekitaldia izango da, eta bigarrenean, datorren urtean Kilometroak jaia antolatu behar duen ikastolari pasatuko zaio lekukoa. Irurako ikastolak hartu du ardura hori. Bestalde, domekan 1.500 boluntariok egingo dute lan. Lanerako taldeak osatuta badaude ere, ingurumen edo garbitasun batzorderako boluntarioak behar dituzte. Interesa duenak hona jo behar du: *bergara@ikastola.net* edo 609 92 13 00 telefonora deitu.



**ASTE GOGORRA** Gogor a ritu dira boluntarioak. Irudian, Artabila gunean txosna muntatzen. Domekan 1.500 bat ibiliko dira. E.A.

EGOKITUTAKO APARKALEKUAK

## Hainbat kaletatik kendu behar dira bihar ibilgailuak 14:00etarako

Domekako Kilometroak 07 dela-eta, herriko hainbat kaletako aparkalekuetan aldaketak egingo dituzte. Ibilbidearen barneko kale batzuetako aparkalekuek zapatuan 14:00etarako hustuta egon beharko dute.

Ibarra, Ozaeta eta Zubiaurretik Martoko gainera arteko kaleetatik kendutako ibilgailuendako egokitutako aparkalekua Candy enpresakoa izango da.

Martoko gainetik, San Antonio kaletik eta Espoloitik kendutako autoendako aparkalekuak Urteaga kalean egongo dira, Movillas enpresa egondako orubean. Briko-Etxe enpresaren ondoko aparkalekua ere erabili ahal izango da.

Ibargarai, Fraiskozuri, San Martzial bide, A. Fleming eta Matxiategi kaleetatik eta Oxirondo plazatik kentzen diren ibilgailuek Migel Altuna, Ipintza institutu eta San Martin de Agirre ikastetxeen patioetan aparkatu ahal izango dute, baita Ipintza futbol zelaian ere.

## Ibarrerako autobus zerbitzu berezia dago

**Arrasate-Bergara:**
15 minutuan behin aterako dira autobusak. 08:20tik 21:15era.
Bergara-Arrasate: 15 minutuan behin ere. 08:20tik 21:20ra.

**Aretxabaleta-Bergara:**
15 minutuan behin. 08:10etik 21:10era.
Bergara-Aretxabaleta: 15 minutuan behin. 08:20tik 21:20ra.

**Eskoriatza-Bergara:**
15 minutuan behin. 08:00etatik 21:00etara.
Bergara-Eskoriatza: 15 minutuan behin. 08:20tik 21:20ra.

**Oñati-Bergara:**
Zuzeneko irteerak, 90 minutuan behin. Arrasaterekin konbinatuta 60 minutuan behin.
Zuzeneko zerbitzua: 07:45etik 21:40ra. Zerbitzu konbinatua: 08:00etatik 21:00etara.

**Bergara-Oñati:**
Zuzeneko irteerak, 90 minutuan behin. Arrasaterekin konbinatuta 60 minutuan behin.
Zuzeneko zerbitzua: 06:45etik 20:30era. Zerbitzu konbinatua: 08:35etik 20:35era.

**Elgeta-Bergara:**
Bi orduan behin izango dira irteerak. 09:30etik 19:15era.
Bergara-Elgeta: Bi orduan behin. 09:30etik 20:30era.

**Antzuola-Bergara:**
07:40, 08:40, 09:15, 09:40, 10:40, 11:40, 12:10, 12:40, 13:40, 14:40, 15:15, 15:40, 16:40, 17:40, 18:10, 18:40, 19:40, 20:40, 21:30.

**Bergara-Antzuola:**
07:00, 07:45, 08:30, 09:00, 10:00, 10:45, 11:30, 12:00, 13:00, 13:45, 14:30, 15:00, 16:00, 16:45, 17:30, 18:00, 19:00, 19:45, 20:45, 21:15.

Autobus zerbitzu guztien ordutegiak honako webguneetan kontsulta daitezke: *www.kilometroak.net* eta *www.pesa.net*.



ADOSATUAK SALGAI ELGETAN

353.000 €-tik aurrera

3 eta 4 gelako **110 m²-ko etxebizitzak**

**160 m²-ko partzelekin**

bi autorendako 30 m²-ko garajearekin

**Informazioa:** 943 76 72 64



## gure artekoak

**CHEVROLET LACETTI** > Gure artean oso ezaguna ez den automobil marka dakarkizuegu oraingo astean: Chevrolet. Bergarako Giauto kontzesionarioko Karlos Etxanizek Chevrolet Lacetti aurkeztu du.

**Karlos Etxaniz** > Giautoko Chevrolet-eko arduraduna

# "Sport Hatch da merkatuko automobil seguruenetakoa"

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Chevrolet ez da marka oso ezaguna gure artean. General Motors konpainiaren barruan dago, Opel, Saab eta Cadillac marka garrantzitsuekin batera. Konpainia indartsua dauka, horrenbestez, atzean.

Lacetti automobilarekin datorkigu oraingoan Chevrolet etxe amerikarra.

Beste puntu bat ere azpimarratu nahi izan du Karlos Etxanizek, Giautoko Chevrolet markaren arduradunak: "Orain dela gutxira arte Chevroletek ez zuen diesel motorrik merkaturatzen; izan ere, diesela ez da batere ohikoa Ameriketako Estatu Batuetan. Orain, baina, diesel motor oso onak egiten ditu, azken belaunaldiko motorrak".

Lacetti automobila ere badago diesel motorduna; Common Rail teknologia du, eta horrek, besteak beste, erregaiaren kontsumoa murrizten du.

**KALITATEA ETA PREZIOA**

Kalitatearen eta prezioaren arteko harremana ezin hobea da: "Kontuan hartu behar dugu turismo konpaktuen segmentuan dagoela Lacetti; diesel bat, 120 zaldi potentziakoa (ikus taula) 15.555 eurotan egotea ez dago batere gaizki", azaldu du Etxanizek.



Karlos Etxaniz, Chevrolet Lacetti automobilaren ondoan, Bergarako Giauton. A.I.

### Lacetti 2.0 TCDI SX 120 ZP

| | |
|---|---|
| Prezioa | 15.555 euro |
| Luzera | 4,29 metro |
| Zabalera | 1,72 metro |
| Maletategia | 1.045 litro(1) |
| Kontsumoa | 5,7 litro /100 km(2) |
| Abiadura | 186 km/h(3) |
| Otik 100era | 9,8 seg. |
| CO2 isurketak | 146 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

Hauxe gaineratu du: "Norbaitek susmo txarra har diezaioke prezio baxu horri; kontua da Chevrolet etxeak gure merkatuan barneratu nahi duela, bere automobilak ezagutzera ematea".

Bukatzeko, esan behar da bost urteko bermea eskaintzen duela eta kanpaina berezi bat abian jarri dutela: "Hilabete edo 3.000 kilometro baino gutxiago egin eta gero, automobilarekin gustura ez dagoen bezeroak automobila itzultzeko aukera dauka. Gure produktuan konfiantza osoa daukagun seinale da kanpaina hori", dio Etxanizek.

## etxeko leihotik


**Aitziber Aranburuzabala** > Goienako Kultura arduraduna

# Kanpokoak izanda ere, bertakoen janzkerekin

Oporrak atzean geratu badira ere, atzerritar asko sumatu dut azkenaldian inguruan. Ibarreko unibertsitateetara ikastera etorritakoak dira.

Goienan, Holanda eta Estoniako bi neska izan ditugu astean bisitan. Ez dira HUHEZIra kanpotik etorri diren bakarrak, Turkia eta Flandriatik ere etorri dira-eta. Guztiak neskak; batzuk Arrasaten bizi dira, eta, arrasatearrei dagokien moduan, prest dute gauerako soineko dotorea.

Oñatiko kaletan berriz, Indiakoak, AEBetakoak, Mexikokoak, Txilekoak, Argentinakoak, Indonesiakoak, Kanadakoak edo Errusiakoak aurki daitezke. Soziologia Institutuko ikasleak dira. Haiei soineko luze eta gorbatak baino gehiago, jantzi folklorikoak dagozkie zapaturako. Oñatiko Herri Eguna gustuko izango dutelakoan nago!

**"Atzerritar asko sumatu dut azkenaldian Debagoieneko kaleetan"**

Domekarako, berriz, zazpi kilometroko zirkuituari aurre egiteko arropa erosoak gomendatuko nizkieke.

Kanpokoa edo bertakoa izan, lanak izango ditugu, bada, arropak txukundu edo agenda antolatzeko; baina tira, oraingoan, behintzat, distantziaren aitzakia ezin erabili!

**> Mozorroak gustuko**
**izanez gero, astelehenerako indarrak gorde eta Oñatiko Bixamona egunarekin ere gogoratu! Oraingoan, behintzat, inork ezin izango du esan debagoiendarrak sosoak garenik!**

**> Hik lan eta nik jai!**
**Batzuek jaiaz gozatzeko, bete batzuek gogor egin behar lan. Eguzkiak ere lanerako asmorik izango ote du? Horrela bedi! Zorte on eta animoak lan-jantzia soinean duzuenoi!**

## begi-bistan



**Onddo ederrak (Arrasate)**
**2007/09/30**

**Argazkia:** Miren Armendia.
**Testua:** Aintzane Irizar.

Gatzagako mendietan Aritz Martinen (argazkian) aitaitak hartu zuen onddo zuri hori; 900 gramo ditu. Aretxabaletako Jose Ramon de Pozak, berriz, 1.100 gramoko onddoa topatu zuen.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



### Ruper Ordorika
MUSIKARIA

Ingalaterran lau emanaldiko bira egingo du Ruper Ordorikak, *Memoriaren mapan* diskoko kantuak aurkezteko. Bihar, zapatua, egongo da Beverleyn; etzi, Hebden Bridge-Yorkshiren; astelehenean Manchesterren eta martitzenean Leedsen.



### Aitor Zabaleta
AUTO GIDARIA

Urtebetez lehiatu barik egon ostean, gidari bergararrak Gorlako auto igoera irabazi zuen domekan. Lola BMW autoa gidatuz, 2.29.53ko denbora egin zuen. Jokatutako bi txandetan onena izan bergararra eta zazpi segundo pasa atera zizkion bigarren sailkatu zen Aitor Errori.



### Jose Ramon Elizondo
SUKALDARIA

Donostiako Aloña Berri tabernako nagusi Jose Ramon Elizondo oñatiarrak parte hartuko du *Lo Mejor de la Gastronomia* kongresuan, azaroan, Donostian. Aipatu, bestetik, El Club de Gourmets elkarteak Espainiako taberna onenaren saria eman diola.

Gurasoendako orientazio zerbitzua jarri du abian Bergarako Udalak. Euskal Herriko Unibertsitatearekin egin duen hitzarmen bati esker emango du zerbitzua Etxadi taldeak. Martitzenean aurkeztu zuten taldeko kide diren psikologoek zerbitzua, eta hemendik aurrera gertu daude Bergarako gurasoen zalantza eta kezka guztiei erantzuna emateko.

**Juan Luis Martin** > Psikologian doktorea

# "Umeari denbora eskaini behar zaio; kalitatea bai, baina kantitatea ere bai"

MIRARI ALTUBE > BERGARA

**Juan Luis Martin kide den Etxadi taldeak Bergarako gurasoen kezkak argituko ditu. Hark dio umeen hezkuntzaren gainean gero eta informazio gehiago eskatzen dutela gurasoek, eta aholkatzen du umeei denbora eskaintzeko: kalitatea bai baina kantitatea ere bai.**



Juan Luis Martin psikologoa martitzenean Bergaran izan zen gurasoei orientazio zerbitzua aurkezten. GOIENKARIA

**Gurasoak galduta dabiltza umeak hezteko orduan?**

Ez, galduta ez, baina bai informazio gehiagoren eskean. Umearen hezkuntzan aita eta ama, biak inplikatu diren heinean informazio gehiago eskatzen dute. Eta batez ere seme-alaben bi adin tartetan ikusten da hori: haurtzaroan, hau da, jaio eta 6 urte artean; eta nerabezaroan, 12 urtetik 18ra artean.

**Zeintzuk dira gurasoen arazorik larrienak?**

Gure zerbitzua familiari laguntzeko da, arazoak sortu aurretik bideratzeko. Hortaz, eguneroko bizitzan sortzen diren kezkei erantzuna ematen saiatzen gara. Haurtzaroan gurasoen kezkarik nagusienak izaten dira loaren gainekoak, haserrealdiak, anai-arreben jaiotzek duten eragina… Nerabezaroan daudenena, ostera, beste batzuk dira: ordutegiak, gauean ateratzea, alkohol eta drogen gainekoak…

**Nerabezaroa da gurasoendako adin tarterik zailena?**

Guk jasotako kontsulten arabera ez. Ume txikiak dituzten gurasoen galdera gehiago jasotzen ditugu, beharbada guraso berriek ez dakitelako nondik jo, zein bide jarraitu. Aurrerago eskarmentua badute eta beste era bateko kezkak izaten dira.

**Eta oinarria txiki-txikitandik finkatu beharko da…**

Bai, horixe da gure zerbitzuaren helburua. Horregatik, hain zuzen, kezkak eta arazoak lehenbailehen agertu eta bideratzea da onena. Hala, umearen garapen psikologiko egokia ziurtatuko dugu. Umearen lehen urteetan ezaugarri psikologiko egokiak ezarriz gero, ondorengo adin tarteetan arazo larririk ez sortzea da ohikoena.

**Ama zein aita gehienek etxetik kanpo lan egiten duten sasoian gaude. Horrek arazoak sor ditzake?**

Emakumea etxetik kanpo lanean hasi zenetik gurasoek umearen hezkuntzan duten papera txikiagoa da. Umearekin denbora laburragoa egoteak gutxiago komunikatzea dakar, eta horrekin lot genezake umeari arauak ezartzeko orduan ez garela batere zorrotzak. Pentsatzen dugu: umearekin nagoen denbora apurrean bakea izan dezagun. Eta ahaztu egiten zaigu umeak denbora behar duela; kalitatea eskaini behar diogu, baina kantitatea ere bai.

**Sarri entzuten da: "Denbora laburra nago umeekin, baina kalitatea ematen diet nik…".**

Bai, hala da, "ez ditut negarrez entzun gura eta horretarako gozokiak gura baditu, edo telebista ikusi edo… tori". Ez da horrela, arauak ezarri behar ditugu lehenbailehen, eta etorkizunerako inbertsioa da hori. Arauak argi eta garbi eta egoki ezarriz gero, umeak autoestimu handiagoarekin haziko dira eta askoz zuzenago; nahiz eta batzuei ez iruditu horrela.

ARAUAK

**"Argi eta garbi ezarriz gero, umeak autoestimu handiagoarekin haziko dira eta zuzenago"**

ESKOLA

**"Uste dugu umeak ikastetxera bidaltzen ditugunean hezteko zerbitzua erosten dugula"**

GURASOAK

**"Bizi kalitatea hobetu eta seme-alabekiko harremanak sendotu gura dituzte zerbitzura jotzen dutenek"**

**Eskola porrota etxeko arazoen ondorio izan daiteke?**

Ez dauka zertan. Arazo bat sortzen denean, atzean zer dagoen aztertzen dugu guk, eta beti ez datoz bat zergatia eta ondorioa.

**Garrantzitsua da guraso eta eskolaren arteko harremana?**

Garrantzitsua ez, oinarrizkoa da, ezinbestekoa. Gizartean dagoen ustea da umeak ikastetxera bidaltzen ditugunean hezteko zerbitzua erosten dugula, hau da, gurasook egiten ez duguna egin diezagutela. Eta ez; egia da ikastetxean hezkuntza formala jasoko dutela, baina etxean hezkuntza ez formala deritzona jasotzen dute, eta kirol elkartean edo aisialdi taldean jasotzen dutena hezkuntza informala da. Hiru horiek osatzen dute hezkuntzaren egitura, eta horregatik da ezinbestekoa gurasoak ikastetxearekin harremanetan egotea.

**Gehiago ezin dutelako jotzen dute zuen zerbitzura gurasoek?**

Ez. Guraso sano eta jatorrak izan ohi dira, umeen hezkuntzan guztiz inplikatuta daudenak, eta jakin-mina ase guran datoz; familiaren bizi kalitatea hobetu gura dute eta seme-alabekin dituzten harremanak sendotu.

**Eta zelan egiten duzue lan?**

Telefonoz, helbide elektronikoa erabilita edo posta bidez jar daitezke gurekin harremanetan. Kezkak jasotakoan, taldea elkartzen gara zein bide jarraitu erabakitzeko, eta bost egunen buruan erantzuteko konpromisoa dugu.

**Bergaran orain hasiko zarete, baina baduzue eskarmentua. Zein balorazio egiten duzue?**

Orain dela hiru urte hasi ginen Bizkaian, Lea Artibai mankomunitatean, eta geroago Gipuzkoan Urola Garaian eta Irunen ere bai. Oso pozik gaude jasotako erantzunarekin, interesa dute gurasoek eta erabili egiten dute eskura jarri dieten eta doan den zerbitzua.



zabalik

Joxemari Muxika

# Euskarazko hedabideak

Euskaldunok ezagutzen dugun hizkuntzaren batean informazioa zabaltzen duten hedabideak ehunka dira. Hedabide hauen artean daude telebista, irratia, Internet, egunkari, aldizkari eta iragarki euskarriak, azkenekoak ere informazioa emateko argitaratzen baitira. Guztira ehunka bitarteko kontatu ahal dira.

Hedabide horietako gehienek erabiltzen duten hizkuntza euskara ez den beste bat da. Izan ere, gure inguruan ezagunak diren hizkuntzetan euskararen merkatua baino askoz handiagoak dira espanierarena, ingelesarena edo frantsesarenak. Beraz, kontsumitzaile kopuruak merkatuaren legean duen pisua kontuan hartuz eta beste gabe horri jarraitzen bazaio, hedabideetan hizkuntza hedatuenak bakarrik geratuko dira.

Erabiltzaile euskaldunok euskaraz nahi ditugu hedabideak. Euskaldun izanik, horrela izaten jarraitzeko aukera egin dugulako eta gustura bizi garelako. Baina ez ditugu edonolako hedabideak nahi, kalitatezkoak baizik. Lantzen dituzten esparruetako edukietan eta diseinuan beste hizkuntzetan dauden hedabideen inbidiarik gabeak nahi ditugu. Erabiltzaile kopuruak ez dio kalitateari mugarik jartzen eta euskaraz izateak ere ez dio jarri behar.

> **"Euskarazko kalitatezko hedabideak nahi ditugu"**
>
> **"Zergetan jartzen den diru parte bat euskarazko hedabideetan jarri behar da"**

Beste gauza bat da ekoizlearen ikuspegitik sor daitekeen arazoa. Merkatua txikia izateak ekoizte kostua konpentsatzeko arazoak ekar ditzake. Iragarki-tarte salmentak edo produktu salmentak urriagoak izateko arriskua dakar eta honek diru sarreretan euskarazkoen aurkako aldea atera dezake beste hizkuntza bat erabiltzen dutenekin alderatuta.

Honegatik eta guk euskaraz kalitatezko hedabideak nahi ditugulako merkatu egoera orekatzeko, zergetatik jasotzen den diru parte bat euskarazko hedabidetan jarri behar da. Ez dago beste aukerarik.

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Aintzane Irizar, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Fausto Berazadi, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Marilu Unamuno.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## EDUKIONTZIEN KOKALEKUAREKIN KEZKATUTA

**Aretxabaletar batek mezua bidali digu. Haren esanetan, "duela urtebete-edo, Markole kalean, Ederlan lantegiaren ondoan zeuden birziklatzeko edukiontziak lekuz aldatu eta futbol zelai ondora eraman zituzten". Irakurleak gehitzen duenez, "automobilez joanez gero, bidegurutzean ikuspena eragozten dute edukiontziok". Horren guztiaren aurrean bi galdera egiten ditu: "Nork hartzen du edukiontziak lekuz aldatzeko erabakia?" Eta "posible da lehen zeuden lekura bueltatzea?".**

Aretxabaletako udaletxera jo dugu erantzunaren bila. Han azaldu dutenez, zerbitzu hori Debagoieneko Mankomunitateak ematen du eta edukiontziak aldatzeko erabakia ere Debagoieneko Mankomunitateak hartu zuen, betiere Markole auzoko bizilagunek hala eskatuta. Auzotarrek gertuago izan nahi zituzten edukiontziok eta Mankomunitateak auzotarren erosotasuna bilatuz aldatzea erabaki zuen.

Irakurleak egiten duen bigarren galderaren erantzuna ere Aretxabaletako udaletxean eman digute. Hau da, edukiontziak hasieran zeuden lekura itzul daitezkeen jakin nahi du irakurleak. Udaletxean aditzera eman dutenez, horretarako eskaria Mankomunitatean egin dezake herritar horrek. Gehitu dutenez, udaletxean ere egin dezake eskaria eta handik bideratuko dute Mankomunitatera.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## NON APARKATU AUTOA KILOMETRO EGUNEAN?

**Bergarar batek hauxe dio: "Domekan Kilometroak jaia izango da Bergaran eta horregatik kale askotan ezingo dugu autoa aparkatuta laga. Hori horrela, prestatu dute aparkaleku alternatiborik?**

Bada, bai, eta honako hauek dira:

Ibarra, Ozaeta eta Zubiaurretik Martoko gainera arteko kaleetatik kendutako ibilgailuentzat egokitutako aparkalekua Mayc enpresarena izango da.

Martoko gainetik, San Antonio kaletik eta Espoloitik kendutako ibilgailuentzat egokitutako alderdiak Urteaga kalean egongo dira, Movillas enpresa egondako orubean edo Briko-Etxe enpresaren ondoko aparkalekua.

Ibargarai, Fraiskozuri, San Martzial bide, A. Fleming, Matxiategi kaleetatik eta Oxirondo plazatik kentzen diren ibilgailuentzat egokitutako alderdiak izango dira Migel Altuna, Ipintza institutua eta San Martin de Agirre ikastetxeen patioak eta baita Ipintza futbol zelaia ere.

marrazkiz

Unai Busturia




blog

# Natura hila

**Goio Arana**
www.goiena.net/blogak/superbai

Jakineko gauza da paisaia urbanoa ere unean uneko moden arabera mugitzen dela. Moden eragina oso nabaria izaten da, adibidez, hiri tresnerian: farola, jarleku, baranda, baldosa... herri gehienetan (txikienetan, behintzat) berdintsuak, berdintsuegiak izaten dira. Azkenaldian, baina, joera berri bat sumatu dut gure herrietako inguruetan: industrialdeen eta lantegien inbasioaren inpaktua arintzeko naturaren irudikapenarena.

Teknikoki sekulako urratsak eman dira formatu handiko erreprodukzioetan eta egun, ia edozein euskarritan eta edozein neurritan inprimatu daiteke bezeroak nahi duen motibo grafikoa.

Margo-argazki erraldoi hauena hain da agerikoa! Zergatik ez dituzte ordezkapen triste horiek barik benetako zuhaitzak landatu? edo, hobeto esanda, nolatan ez da dagoeneko derrigorrezkoa, de-rri-go-rrez-ko-a, zuhaitzak (asko, gainera) landatzea eraikitzen edo berriztatzen den metro koadro bakoitzeko?

Agerian dago industrialdeen kontua bide okerretik doala: nonahi erabili eta bota erako guneak egiten ari dira, irauteko edo ganorazko arrasto fisiko zein emozionala uzteko inongo asmo barik eraikita.

Hortik zehar ikusi ditudan natura hilen artean bakarren bat balekoa iruditu zait baina, gehienak, penagarriak dira. Denei usain bere hartzen diet: iruzurrarena. Ez dut batere zintzoa ikusten moda berri hau.

plazara

**Etxeko langileen lan erregimena moldatuko duen proposamena egin berri du Espainiako Gobernuak. Gizarte Segurantzako kotizazioak, gaixotasun etenaldiak, opor sasoia, kontratuak... Horiek guztiak berrarautuko ditu 2008an indarrean jarriko den erregimenak. Baina nahikoa dira Gobernuak proposatzen dituen aldaketak? Amagoia Lasagabasterrek hutsune nabariak ikusten dizkio.**

Amagoia Lasagabaster *

# Eskubiderik gabeko langileak

Etxeko lana, ordaindutakoa edo ez, garrantzitsua bezain beharrezkoa da gure gizartean. Hala ere, ekoizpenaren ikuspuntutik ezertarako ere balio ez duen lana dirudi. Horixe da, hain justu, etxeko langileei gertatzen zaiena. Ez dituzte enpresariak aberasteko autoak edo torlojuak produzitzen, langile hauen beharra isilekoa eta askorendako ikusezina da; eta beharbada horregatik, dituzten eskubideak ere horrelakoak dira, hots, ikusezinak. Euskal Autonomia Erkidegoan 25.000 etxeko langile daude eta horietatik %96 emakumeak dira. Kolektiboa, beraz, garrantzitsua da. Pentsa, finantza-etxeetan 21.000 lagun daude lanean EAEn; etxeko langileekin alderatuz, 4.000 lagun gutxiago. Baina nabarmena da, batzuen eskubideek ez dute zerikusirik besteenekin.

Etxeko langileek pairatzen dituzte gehiegikeria horiek guztiak Gizarte Segurantzako erregimen bereziak onartzen ditu; lan ordu etengabeak, etorkizuneko prestazioetarako kotizaziorik ez edukitzea, soldata negargarriak (lanbide arteko gutxieneko soldata, 570,60 euro, alegia), oporrik gabeko lan-egutegiak, gaixotasun baja 29. egunetik aurrera kobratu beharra... Gainera, %60 inguru legezko kontraturik gabe daude, eta asko eta asko, bestelako eskubiderik ere ez dituzten atzerritarrak dira.

Orain, Espainiako Gobernuak lege aldaketa proposatzen du. Lan erregimena moldatuko du aipatutako arazoak konpontzeko aitzakiarekin. Gizarte-Segurantzako kotizazioak, gaixotasun-etenaldiak, opor sasoiak, kontratuak, kalte-ordainak... horiek guztiak berrarautuko ditu 2008an indarrean jarriko den erregimenak.




MIKEL ARROIABE

Albistea garrantzitsua da. Etxeko langileek euren lanbidea erregulatuko duen legedia izango dute. Baina, irakurritakoak irakurrita, ez da nahikoa izango; ezta gutxiagoa ere. Hutsune ugari ditu proposamen berriak. Esaterako, kotizazioen inguruan ez dago berrikuntzarik. Orain arte moduan, 20 ordu baino gutxiago lan egiten dutenek ez dute Gizarte Segurantza kotizatu beharko. Gauza bera gertatuko da, langileak lantoki bat baino gehiago badu, hau da, etxe desberdinetan lan eginez gero, nahiz eta etxeren batean 20 ordu baino gehiago lan egin. Arau horien arabera, etxeko langile gehienek modu irregularrean lan egiten jarraituko dute eta erreformak egoera hori babestu egingo du gainera.

**"Etxeko langileek euren lanbidea erregulatuko duen legedia izango dute, baina hutsune ugari ditu proposamenak"**

**"Pairatzen duten diskriminazio egoera mantendu egingo da, eta egoera hori onartezina eta lotsagarria da"**

Gaixotasunagatiko bajetan egindako moldaketa ere motz gelditu da. Egun gaixo jarri eta 29 egun itxaron behar dute baja hori kobratzeko. Erregimen berriaren arabera, 15. egunetik aurrera kobratuko dute. Hortaz, gaixorik jarri eta bi asteren barruan, soldatarik gabe egongo dira.

Langileek etxeetan egiten dituzten presentzia orduak ere ez ditu desagerraraziko. Hala, dagoeneko luzeak diren lan jardunaldiak gehiago luzatzea ahalbideratuko du. Izan ere, etxeko langile ugarik, atzerritarrak batik bat, lo eta lan etxe berean egiten dute, eta gainera, soldataren %45 inguru kentzen die horregatik.

Hori guztia ikusita, ELAtik zera ondorioztatu dugu: Etxeko langileek pairatzen duten diskriminazio egoera mantendu egingo dela, eta egoera hori onartezina eta lotsagarria dela.

Argi dugu langile diren aldetik sindikatuok zeresan handia dugula gai honetan. Zoritxarrez, CCOOek eta UGTk babestu egin dute guztiz eskasa den erreforma. Bi horien baimenarekin jarraituko dute etxeko langileek "esklabotza" egoeran.

*Amagoia Lasagabaster,
ELAko Genero Politika Saila

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Anorexiaren kanpainari ondo deritzozu?

| | |
|---|---|
| BAI | %66,6 |
| EZ | %33,3 |

**> EZ**
Lotsagarria iruditu zitzaidan. Ikusi nituenean irudiak telebistan barruan halako gauza arraro bat sentitu nuen. Ez dut uste gaixotasunaren erabilera egiten ari direla arropa marka jakin bat gehiago saltzeko.
**Ainara**

**> LOTSAGARRIA**
Pena, nazka, lotsa... sentimendu ugari eta guztiak batera etorri zitzaizkidan neska haren irudia ikusi nuenean. Ez dudana ulertzen da nola egon zen prest halako gauza baterako.
**Miren**

**> EZ DA LOTSAGARRIA**
Bada, nik ez dut uste lotsagarria denik. Arazo horrek –beste askok bezala– existitu egiten du gure gizartean eta ezkutatzeagatik ez da desagertuko. Halako iragarkiek zezenari adarretatik eutsi eta gaitzaren kontrako neurriak hartzeko balio badute, *chapeau*.
**Iratxe**

**DATORREN ASTEKOA: Zer deritzozu Ibarretxeren kontsultarako deiari?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

## Kontsulta eta lurraldetasuna

**Eneko Bidegain**
www.berria.info/blogak/eneko

Juan Jose barretxe lehendakariak iragarri duen kontsultatik aparte gelditiko lirateke Ipar Euskal Herria eta Nafarroa. Ez du, beraz, lurraldetasunaren auzia konponduko. Den denek badakigu, ordea, Juan Jose Ibarretxek Euskal Herriko hiru herrialdetako instituzio bat baizik ez duela kudeatzen, eta har ditzakeen erabakiak eremu horri baizik ez dagozkiola. Azken finean, ez nafarrek ez Ipar Euskal Herriko herritarrek ez dute Juan Jose Ibarretxeren alde bozkatu.

Ibarretxe ez da gure lehendakaria. Beraz, Euskal Herri osoko kontsulta baten antolatzea ez dagokio Ibarretxeri, edo ez bakarrik. Ipar Euskal Herriko herritarrei kontsulta egitea, izatekotan Jean-Jacques Lasserrek erabaki beharko luke, ez Ibarretxek.

(...) Hots, jakin badakigu 2008ko urriaren 25ean kontsulta bat egingo balitz ere, horrek ez lukeela nahi den guztia konponduko.

Baina ongi neurtu behar litzatekeena da, nahiz eta mugatua izan, ea horrelako kontsulta bat aurrerapauso bat izanen litzatekeen ala atzerapauso bat, gatazkaren konponbideari eta Euskal Herriaren batasunari, ezagupenari eta euskalduntzeari begira.

Eta, hori jakin ahal izateko, oraino galdera franko gelditzen da airean, eta oroz gainetik, zer akordio lortuko den hemendik ekainera.

koplak

Eñaut Uriarte

## G puntua eta bonbila

Lan asko hemen egin ostean
egun haundixa heltzear da
ikutuko bait dogu igandean
Kilometroen helmuga.

Uste dot denok argi dogula
duda izpirik barik, hara!
Euskaran alde kolore biziz
beteko dala Bergara.

Igande honetan festa giroan
dena ondo irten dadila
horrela denok piztuko dugu
elkartasunaren bonbila.

G puntuaren asuntu hori
ere badoa aurrera
lau saio orain geratzen dira
zapatuan nire aukera.

Jende mordoa bildu da orain arte
beste saio guztietan
Elgetan hurrengo zapatuan
arratsaldeko seietan.

Bertan egin beharko dittut nik
puntua zein ofizioa
ikusi nahi dut mordoa dala
nere bertso afizioa.

# Kontzertatu-publikoa, Kataluniako eredua

**Estepan Plazaola Otadui**
(Aranzadi ikastolako gurasoa)
Bergara

Hainbat gauzaz jardun zuen Aitziber Etxeberriak orri honetan joan den astean argitaratutako gutunean baina nagusiki ideia bat agertzen zuen, tituluan jasotakoa: publikoak eta kontzertatuak ez dira berdinak eskubideei dagokienez, erakundeetatik jasotzen dituzten laguntza ekonomikoen aldetik. Lehenengoek gehiago jasotzen dute. Lehenengoek eskubide gehiago dute. Mezu bera zabaldu du San Martin ikastetxeko zuzendaritzak eta guraso elkarteak astean hedabideen bitartez.

Niri, behintzat, galdera hau sortzen zait berehala: eskubideen aldetik desberdinak dira, eta betebeharren aldetik?

Kontzertatuak eta publikoak ez dira berdinak erakundeetatik, gizartetik, denon dirutik, jasotzen dutenari dagokionez. Eta gizarteari ematen diotenaren aldetik? Gizartearekin duten konpromisoaren aldetik? Aranzadi ikastolak, esaterako, gutxiago ematen ote dio gizarteari eskola publikoek baino. Aranzadi ikastolaren konpromisoa txikiagoa ote da hezkuntzak gaur dauzkan betebeharren aldetik: hezkuntza kalitatezkoa eskaintzearen aldetik, gizarteko sektore ahulenei aukerak eskaintzearen aldetik, etorkinei ateak zabaltzearen aldetik, euskararen normalizazioaren aldetik, Euskal Herriko beste lurralde batzuetako ikastetxeekiko solidaritatearen aldetik, herriko ekimenetan parte hartzearen aldetik...

Ni ezezkoan nago. Eta ikastolak gizarteari eskola publikoak adina ematen badio, zergatik ez du besteek adina jasotzeko eskubidea?

Katalunian 2006ko martxoan PSC eta ERCko Gobernuak eta Hezkuntzako hogei agentek Hezkuntza Paktua egin zuten: Pacte Nacional per a l'Educació. Nahi duenak honako helbidean lor dezake: *http://www.gencat.net/educacio/pacte/index.htm.*

Inoiz Katalunian izan den Hezkuntza Pakturik zabalena izan da. Sinatzaileen artean dira, besteak beste, Kataluniako udalen elkartea, CCOO eta UGT sindikatuak, guraso elkarteak, ikasle elkarteak, eskola kontzertatuetako ordezkariak eta abar.

Paktu honetan kontzeptu bat finkatu dute: Hezkuntza Zerbitzu Publikoa. Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren partaide izango dira zentro publikoak eta nahi duten zentro kontzertatuak. Guztiek izango dituzte eskubide eta betebehar berdinak eta guztiek jasoko dute administraziotik pareko tratua, duten titularitatea bat edo beste izan.

*Una cooperació i coresponsabilitat que ha de permetre construir un servei educatiu d'utilitat pública, integrat per tots els centres que, compartint un mateix compromís social i educatiu, són finançats amb fons públics i participen d'una voluntat comuna de servei a la societat. Uns centres –tan públics com privats– ben dotats i de qualitat, tots ells sotmesos als mateixos drets i deures en la prestació pública del servei i compromesos a afrontar els reptes socials i educatius que avui es plantegen a la societat catalana.*

*(…)*

*La prestació del servei educatiu d'interès públic comportarà per a tots els centres que en formin part, independentment de la seva titularitat i respectant-la, rebre un tracte de l'Administració equiparable tant en recursos i serveis educatius, com pel que fa a planificació, control i avaluació.*

Badago, beraz, bestelako eredurik. Kataluniako Hezkuntzako agenteei bezala, niri ere justuagoa, progresistagoa, berdintzaileagoa, Eskola publikoaren sorrerako printzipioetatik ere hurbilagoa… iruditzen zait hori, zentroa administrazioarena izate hutsagatik ez dakit zer nolako eskubide bereziak eduki nahi izatea baino.

Eta ez ahaztu gauza bat: Aranzadiko 700 ikasleen gurasook ere ordaintzen ditugu zergak, besteak beste, gure hezkuntza-sistema (tartean, zentro publikoak) finantzatzeko. Guk ere izango dugu eskubideren bat diru horiek nola erabili behar diren esateko.

Gutuneko eta idatziko beste zenbait kontuz (tonuaz, Seminarioarekiko eskubideez…) ere jardun nezake baina nahiago dut gaur hemen utzi.

Domekan, Kilometroak. Elkarlanetik sortu ginen eta elkarlanean gabiltza. Animo!

# Ikastetxeen arteko lehia (Bergaran adibidez)

**Balen Tramon**
Arrasate

1. Ikastetxeen arteko konpetentziak kalitatezko hezkuntza dakarrela diote... Kalitateik ez. Itxurak, irudia eta propaganda zaintzera eramaten du normalean konpetentziak (gerra zikina ematen ez denean) eta gaurko marketing modak jarraituz "amuak" eskaintzen dira bezero-ikasleak (dirua) ez galtzeko, gero "saldutakoa" betetzeko prestaturik ez egon arren edo irakasleen lan zama astunaz makillatu arren emaitzak. Benetako kalitatea, ikastetxeen arteko elkartasunak, lankidetzak eta antolaketa osagarri batek ekarriko lukete, ez batak besteari ikasleak eta eraikuntzak kentzen indarra alferrik galtzeak.

2. Nori komeni zaio konpetentzia hori? Tontxu Campos eta antzerako neoliberalei. EAEko ikasleen erdia ere ez dabil eskola publikoetan. Jaurlaritza eta Hezkuntza Sailak diru aurreratze ederra egiten du horrela gurasoen, udalen eta euskaltzaleen lepotik. Eta bestetik hezkuntza langileria zatikatua geratzen da: funtzionario publikoak, behin-behineko publikoak, ikastoletako (2. mailako) funtzionarioak, ikastoletako behin-behinekoak, "beste pribatuetako" irakasle puteatuagoak... bakoitza bere egoera propioa defenditu nahian. Ikastola gehienek egun kooperatiba bihurturik (biziraupen kontuak), ez dute sindikatu ordezkaritza eta, ordea, Lan Hitzarmena sindikatuek eta Federazioak negoziatzen dute, eta gero honek Kontzertua Jaurlaritzarekin... zertan daude langile horiek bitartean? Mareaturik hainbeste kalitate mozorro eta programa oso modernoak aplikatzen (ingeles goiztiar ergel hori adibidez). Aldi berean EAEn ikasleen %44k A eta B ereduetan ikasten dute, eta D ereduko beste %56tik bi herenak lortzen dute euskara fundamentuz ezagutzea. Konklusioa, %37k ikasten dute euskara ganoraz (18 urterekin lortu daitekeen mailan). Non geratzen da beste %63 horren ofiziala (omen) den hizkuntza jakiteko eskubidea eta nork neurtzen du Hezkuntza Sailaren lanaren Gorotzezko Kalitate maila? Baliabide eta irakasle gehiago behar dira gauzak ondo egiteko eta ez diskurtso hutsalak. Are gehiago immigrazio uholde berriak ikasleen aniztasuna biderkatu egiten duenean. Ordea, Jaurlaritzaren Hezkuntzarako aurrekontua erraz eta harro konparatzen gaituzten Europar Batasuneko baxuenetakoa da. Pribatizazioa dute helburu baita irakaskuntzan ere, bide batez langile arazo posibleak patronalen bizkarrera botaaz eta Bolognan azaldutako enpresa handien mutur sartzearen eta lehiaren aldeko politikak aplikatuz.

3. Proposamenak. Bat: Jaurlaritzak finantzatzea %100ean ikastetxe eta ikastola guztiak baldintza berdinetan (ikasgela bakoitzari dagokion irakasle kopurua-ratioa eta abar) era egokietan jardun dezaten, azken finean irabazi ekonomikorik gabeko erakundeak dira, gazteak gizarte berdinerako prestatzeko helburua dute eta autonomiako eta espainiar gobernuek ezarritako lege, arautegi, curriculum eta abarrak txintxo(egi) betetzen dituzte guztiek. Bi: Titularitate publikorako berriz ate legalak ireki eta epe mugarik gabe nahi duenarentzat irekita utzi. 1993ko Buesaren aukera izan zen lehena eta azkena eta Buesaren neurrikoa zen... asmo txarrez betea eta itolarrian zituen ikastolei ultimatum mehatxagarri gisa eskainia. Diruz oso larri zeudenak sartu ziren, salbuespenak salbuespen eta jarrera politiko nahasiak ahaztu barik. Bestalde, hamalau urte eta gero, Sortzen-Ikasbatuaz-en jokabidea ikastolena beste aurrerakoi eta euskaltzalea da, gutxienez. Buesak zeukan bakarrik ateko giltza?

4. Iparralde eta Nafarroako ikastolei elkartasun hobeagoa emango diegu EAEko ikastolen kontu ekonomikoek hainbeste energia xahutzen ez dutenean. Ea urriaren 7an eguraldi ona egiten duen Bergara aldean, zeren eta dirudienez hezkuntza proiektuak euriaren arabera ateratzen dira aurrera herri honetan oraindik.

# San Martin Herri Eskolaren leku premiak

**Begoña Garmendia eta Maite Alzola**
(Bergarako San Martin Eskolako irakasleak eta Zuzendaritzako kideak 2000. urtetik 2006. urtera)
Bergara

Asko hitz egiten ari da San Martin Herri Eskolak bere arazoa kanporatzeari buruzko arrazoiei buruz. Badirudi gaur goizean sortutako gaia dela eta asmo ezkutu batzuk bultzatzen gaituztela momentu konkretu honetan ateratzera.

Guk eskutitz honekin azalpen batzuk eman besterik ez dugu nahi, betiere egoera argitze aldera.

2.000. urtean Zuzendaritza lanetan hasi ginenean aurreikusten genuen toki premia izango zela hurrengo ikasturteetan eskuartean izango genuen erronketariko bat.

Gaiari irtenbide egoki bat emateko hainbat aldiz jarri ginen harremanetan Hezkuntza Sailarekin eta Udalarekin, beraiek eta ez beste inork, zutelako gure etorkizunaren giltza.

2003. urte bukaeran, bi erakunde hauei aurkeztu genien Bergarako Eskola Publikoek, herrian kalitatezko Hezkuntza Publikoa bermatzeko, adostutako proposamena.

Txosten batean beste zenbait zehaztapenen artean, Bergarako Haurreskoa Publikoa eta San Martin Herri Eskolako Haur Hezkuntza Martinez Irala eraikinean kokatzeko nahia, lehendabiziko aldiz, azaldu genuen.

Garaian jaso genuen erantzuna eta ondoren sarritan jaso duguna honako hau izan zen: Gu ez ginela tokiarekin arazoa zuen herriko ikastetxe bakarra; Aranzadi ikastolaren egoera prekarioa zela Errege Seminarioan eta Udala eta Hezkuntza Ordezkaritza plangintza bat lantzen ari zirela Bergarako Hezkuntza espazioen kokapena zehaztuta eta lotuta lagatzeko.

2005eko ekainaren 15ean Bergarako udaletxean izan genuen bilera batean Bergarako alkateak eta Hezkuntza ordezkariak, administrazio bien artean adostutako erabakiaren berri eman ziguten: 2006-07 ikasturtean Haurreskola Publikoa irekiko zela Martinez Irala eraikinean eta aurrerago bertan kokatuko zela San Martineko Haur Hezkuntza.

Beraien esanetan, bigarren puntua burutzeko Errege Seminarioko lagapena bideratu arte ez zegoen data jartzerik. Lagapena lortu ondoren, Aranzadik bere gela guztiak bertan kokatu beharko zituen eta toki gehiago behar izanez gero, aukera izango zuen Seminarioko patioan jasotzeko. Hau dena garatu arte (Aranzadik finantziazioa bideratu, eraikin berria jaso e.a.) bi ikastetxeek Martinez Irala konpartituko genuen eta epea bukatu ondoren eraikina Hezkuntza Publikorako geldituko zen.

Guk gure aldetik (Zuzendaritza Taldea eta Guraso Elkartea) onartu genuen proposamena eta galdetu genien ia Aranzadik honen berri izango zuen. Erantzuna baiezkoa izan zen eta sinetsi genuen, horregatik izan gara hain pazietenak.

Egia da prozesu guztian berriak ahoz jaso genituela, nahiz eta askotan eskatu administrazio biei hartutako erabakiak eta adostasunak idatziz bidaltzeko.

Sentitzen dugu prozesua oso luzea eta neketsua suertatzen ari dela, bai hasi genuenentzat, bai gaur egun bideratzen ari direnentzat (oraingo Zuzendaritza Taldea, Guraso Elkartea eta Eskola Kontseilua). Benetan penagarria izango litzateke prozesu guzti hau zakarrontzira botatzea bi ikastetxeendako konponbidea aurkituta izan ondoren.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33
20570 BERGARA**

**Telefonoa:
943 25 05 01**

**Faxa:
943 25 05 13**

**Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com**


ERROMATAR
AZOKA
BOULEVARD - EKO AZKEN SOLAIRUAN
Urriaren 4an, 5ean eta 6an
Ordutegia: 11:00 – 14:30 eta 17:00 – 22:00.
Artisautzako 20 postu baino gehiago. Hainbat jarduera:
erromatar kanpalekuak, legionarioak, gladiadoreak,
malabaristak, haurrentzako jokoak (8 - 11 urtekoentzat).
IRUÑA VELEIA
el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz


ALMACENES ARRASATE
FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.
BERMEA 2 URTE
1.850 x 598 x 600 mm
A Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA COMBI 6 FAC-495
420 € 70.140 pta
aspes
A Sailkapen energetikoa
ONTZI-GARBIGAILUA LJA-0250
KARGA ERDIA
305 € 50.935 pta
aspes
1.000 b/min
5 kgr.
A Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA LA-110
305 € 50.935 pta
aspes
LABEA BITROZERAMIKA STA1410
LABEA eta BITROZERAMIKA INSTALATUTA
335 € 55.945 pta
aspes
Sukalde itxia, berotzen ez duena, igeltserotza lanik barik. Kutxa eta gaineko sukalde bikoitzarekin.
Altuera: 85 cm.
Luzera: 85 cm.
Sakonera: 60 cm.
kutxarekin
BEROTU SUKALDEA C-85 NC
1925 € 321.475 pta
TELEBISTA SANYO
LCD 20" CE20LD51- C
LTD (TDT) integratua
430 € 71.810 pta
TELEBISTA SANYO
LCD 26" CE26LD81- C
LTD (TDT) integratua
650 € 108.550 pta
"VERO" MAHAIA
110x70 cm,
zabalgarria 160x70 cm-ra
450 € 75.150 pta
Fagor Eko-igorle elektrikoak
BERO URDINA,
IZUGARRIZKO AURREZKIA
ED E
(610x1.060x95) mm 370 € 345 €
(610x910x95) mm 330 € 310 €
(610x760x95) mm 295 € 270 €
(610x610x95) mm 255 € 230 €
(610x460x95) mm 215 € 195 €
ED: Elektroniko digitala
E: Elektroniko, eskuzkoa
Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%
Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.
Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



iKER

Fagor sukaldeko altzariak, %25eko deskontua lau modelotan. Azaroaren 18 arte.
*Zatoz eta ikus itzazu!*

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
**BAINUAK:** ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR



zuazola-larraña
oñatiko b.h. institutua

KALITATEA HEZKUNTZAN

**2007-2008**
**OÑATIKO INSTITUTUAN (LANBIDE HEZIKETA). LANGILEENTZAKO IKASTAROAK**
**% 100 DIRUZ LAGUNDUTA**
**Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotuta (Katalogo Modularra)**

| IKASTAROAK | ORDUAK | DATA |
|---|---|---|
| *MEKANIZAZIOA* | | |
| Programazioa eta mekanizazioa Torno CNC | 130 | Martxoak 8 / Maiatzak 15 |
| Tornu Konbentzionaleko Mekanizazioa | 80 | Abenduak 10 / Urtarrilak 31 |
| Fresatzeko Makina Konbentzionaleko Mekanizazioa | 80 | Urriak 24 / Abenduak 4 |
| Programazioa eta mekanizazioa Fresa makina CNC | 96 | Abenduak 10 / Otsailak 14 |
| *MANTENUA ETA MUNTAIA ELEKTROMEKANIKOA* | | |
| Mantentze mekanikoa | 60 | Urtarrilak 31 / Apirilak 24 |
| Mantentze elektrikoa | 80 | Urtarrilak 7 / Otsailak 20 |
| Krokizazioa | 40 | Urriak 22 / Azaroak 7 |
| Soldadura elektrikoa | 55 | Azaroak 12 / Abenduak 5 |
| Soldadura Mig Mag | 55 | Urtarrilak 7 / 31 |
| Soldadura Oxiazetilenikoa | 55 | Martxoak 31 / Apirilak 24 |
| Automatismo neumatikoa eta elektroneumatikoa | 40 | Maiatzak 5 / 27 |
| Eguzki energia fotoboltaikoa eta termikoa | 40 | Apirila - Maiatza |

**Izena emateko:** Oñatiko Institutua, Larrañako Lanbide Heziketa Egoitzan, San Lorentzo auzoa z/g 943782150
09:00-13:00 / 15:00-17:00
**www.onati.net** *Ondo pasau jaixak !!!*

**IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK**
Ikastaroak astelehenetik ostegunera izango dira

EUROPAR BATASUNA
EUROPAR FONDO SOZIALA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Arrasate** > 18-23 **Bergara** > 24-29 **Aretxabaleta** > 31-32 **Oñati** > 33
**Eskoriatza** > 34-35 **Antzuola** > 36 **Aramaio** > 37 **Elgeta** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39



**> ARRASATE**
Mendi Astea Besaideren 50. urteurrena ospatzeko **> 23**



**> BERGARA**
Erretiratuen kultur hamabostaldia urriaren 15etik 27ra **> 24**



**> ARETXABALETA**
Iturriondo txukuntzeko proiektuarekin aurrera egin nahi dute **> 31**



**> ESKORIATZA**
Zubiateko labea berreskuratzeko lanak amaitu dituzte **> 35**

**ONDAREA** > BERGARA

# Jauregi etxea: berritze lanak amaituko dituzte datorren astean

**BERRITZE LANETAN** Fatxadako erliebearen egoera kaskarra izan da berritze lanei ekiteko arrazoi nagusia

**LAU HILABETE** Lanak ekainaren 11n hasi zituzten eta amaitzear daude

**JAUREGI ETXEA** Garaia, estiloa eta etxearen testuingurua ere zehaztuko dituzte



JAUREGI ETXEA Berritze lanak ekainaren 11n hasi zituzten. Irudian, Petra enpresako berritzaile bat Jauregi Etxeko erliebearen gainean lanean, eguenean. E.M.

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Joan den ekainetik Bergarako Jauregi etxean egiten diharduten berritze lanak amaitzear daude. Hain zuzen ere, datorren astean lanekin amaitzea da arduradunen asmoa. "Ondoren beste hainbat lan geratuko dira, erremate batzuk egin eta aditu batek egin beharreko dokumentazio grafikoa tartean. Aldamioak, beraz, urriaren bukaerarako kentzea espero dugu", dio Dolores Sanz lanen koordinatzaileak.

Fatxadako erliebearen egoera kaskarra izan da berritze lanei ekiteko arrazoi nagusia. Sanzen arabera, urgentziazko interbentzioa izan da, fatxadako igeltsuzko plakak jausten hasiak zirelako. Hain zuzen ere, erliebea igeltsuz egina izatea sorpresa handia izan da: "Kanpora begira egonik urtetan kontserbatu izana harrigarria da. Fase ezberdinetan egina dago erliebea, buztina modelatzen den erara. Gotiko estiloaren azken garaiko Alemaniako grabatuetan oinarritutakoa da. Galtzeko arriskuan zegoen, igeltsuzko morterotik paretara hainbat cm-ko poltsak zeudelako".

Gasteizko Petra kooperatibako Mercedes Kortazarrek eta Dolores Sanzek zuzendu dituzte lanok eta zuzendari teknikoa Eudald Gillamet berritzaile ezaguna izan da. Sanzen hitzetan, "Xabier Aranburu udal museologoari esker talde lana egin ahal izan dugu. Helburua hauxe izan da: exekuzio teknikaren detaile guztiak jasotzea, ondo aztertu eta dokumentatu ahal izateko, dokumentu historiko bat osatu nolabait". Jauregi etxean 6-8 berritzaile izan dira ekaina ezkero lanean eta EHUko Arte Ederretako Fakultateak ere kolaboratu du.

**KRONOLOGIA ARGITU**

Exekuzio teknika zehazteko, besteak beste, EHUko Artearen Historiako irakasle Pedro Luis Etxeberria eta Amaia Gallego lizentziadunaren laguntza daukate. Bergarako artxiboan ez dago Jauregi etxearen gaineko kronologia zehatzik eta datozen hilabeteotan azterketa sakona egingo dute: Jauregiaren garaia, estiloa eta testuingurua zehaztuko dituzte.

## "Euskadin ez dago horrelako igeltsuzko erliebea duen beste eraikinik"

Aurretik, 1970eko hamarkadan eraberritu zuten azken aldiz Jauregi etxea. Ondoren, 2005ean larrialdiko lan batzuk egin zituzten eta aurtengo lanak ekainaren 11n hasi zituzten. Fatxadako erliebea mudejarrek egindakoa den ikusteko dagoela dio Dolores Sanzek: "Mudejarrek erabiltzen zuten igeltsua, eta Espainian Aragoitik zabaldu zen gehienbat. Hain ondo landutako igeltsua fatxadan izatea benetan harrigarria da. Euskadin ez dago horrelako besterik. Badira motibo txikiagoak dituztenak, eta historialarien azterketan ikusi beharko da Bergarakoarekin zerikusirik duten eta benetan mudejar estilokoa den Jauregikoa". Dekorazio motiboengatik eta exekuzio teknikengatik "apartekotzat" jotzen du Jauregi etxea Sanzek. Lanen aurrekontua 250.000 euro inguru da. Banco Gipuzcoanok ordainduko ditu. Trukean, laguntza fiskalak emango dizkio Diputazioak. Udalak 24.000 euro inguru ordainduko ditu.



Zinkeko babesak jarriko dituzte etxeko leiho-barrenetan, uraren kalteak saihesteko.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 5 | Ruiz | Maalako Errebala 31 | 943 79 14 09 |
| Zapatua, 6 | Etxeberria | Zarugalde 42 | 943 77 16 30 |
| Domeka, 7 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Astelehena, 8 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Martitzena, 9 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Eguaztena, 10 | Irizar | Erguin 15 | 943 79 12 39 |
| Eguena, 11 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 5 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Zapatua, 6 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 7 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Astelehena, 8 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Martitzena, 9 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguaztena, 10 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 11 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 5 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Zapatua, 6 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 7 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 8 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Martitzena, 9 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 10 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 4 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 5 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Zapatua, 6 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 7 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 8 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 9 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 10 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 11 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)........943 46 11 11
DYA (Antzuola)........943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)........943 76 55 76
Suhiltzaileak........943 78 28 00
Ertzaintza........943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala........943 03 53 00
- Antzuola........943 76 62 23
- Aramaio........945 44 53 40
- Aretxabaleta........943 71 19 59
- Bergara........943 03 54 00
- Elgeta........943 03 54 00
- Eskoriatza........943 71 44 52
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola........943 76 62 46
- Arrasate........943 79 14 39
- Aretxabaleta........943 71 18 63
- Bergara........943 77 91 06
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA........902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate........943 79 12 22
- Aramaio........945 44 50 33
- Aretxabaleta........943 77 12 64
- Bergara........943 79 12 22
- Eskoriatza........943 71 40 59
- Oñati........943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea........943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)........943 78 15 12
Nekazaritza ganbera........943 76 10 15
Zerga Bulegoa........943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate........943 77 11 43
- Bergara........943 76 44 42
- Oñati........943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio........945 44 53 35
- Arrasate........943 77 16 77
- Aretxabaleta........943 71 26 28
- Bergara........943 76 56 41
- Elgeta........943 76 82 84
- Eskoriatza........943 71 53 28
- Oñati........943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola........943 76 60 65
- Aramaio........945 44 53 74
- Arrasate........943 77 01 05
- Aretxabaleta........943 71 10 27
- Bergara........943 77 91 58
- Eskoriatza........943 71 46 88
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 03 53

Udalak
- Antzuola........943 76 62 46
- Aramaio........945 44 50 16
- Arrasate........943 79 09 00
- Aretxabaleta........943 71 18 62
- Bergara........943 77 91 00
- Elgeta........943 76 80 22
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 6**
Lainoak eta ostarteak tartekatuko dira zapatuan. Arratsalde partean hegoaldeko haizeak joko du eta euri arriskua izango da.



**Domeka, 7**
Tenperatura mantenduko da eta hegoaldeko haizea nagusituko da. Eguraldi polita, nahiz eta zerua erabat garbi ez egon. Giro atsegina orokorrean.

### EUSKAL HERRIAN

Zapatu goizean hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira, baina oro har, ateri eutsiko dio. Hodeiak ugaritu egingo dira arratsalde partean. Domekan antzeko eguraldia izango dugu. Haizea leun eta nora ezean ibiliko da. 20 cº inguruko tenperatura atsegina.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Zapatua, 29 — **7 ºC**

**MAXIMOA** Martitzena, 2 — **28 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **24,4 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 26 | 19 ºC | 11 º | 14,3 l/m² |
| Eguena, 27 | 14 ºC | 10 C | 3,5 l/m² |
| Egubakoitza, 28 | 22 ºC | 9 º | 0,2 l/m² |
| Zapatua, 29 | 24 ºC | 7 C | - l/m² |
| Domeka, 30 | 23 ºC | 11 º | 0,9 l/m² |
| Astelehena, 1 | 20 ºC | 15 C | 1,7 l/m² |
| Martitzena, 2 | 28 ºC | 14 º | 4,8 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA URRIAN

| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 3 | 11 | 19 | 26 |

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE
**> 1967an jaiotakoek afaria egingo dute**
Azaroaren 10ean egingo dute afaria, Arteaga jatetxean. Izena emateko deitu 943 79 65 56 zenbakira edo Portaloi Optikatik pasatu (Mirari).

BERGARA
**> 1958an jaiotakoek afaria egingo dute**
Hilaren 20an egingo dute, Sirimiri jatetxean, 21:30ean. Izenematea Sirimirin egin beharko da, 30 euroren truke.

ARRASATE
**> Etorkin, ostalari eta merkatariendako eskolak Udal Euskaltegian**
Aisa deitzen da 16 urtetik gorako etorkinen ikastaroa eta euskara ikasteko lehen urratsak emango dituzte. Ostalarien kasuan, zerbitzua euskaraz emateko lehen urratsak emango dituzte ikastaroan. Merkatariendako ikastaroaren kasuan, helburua da bezeroekiko komunikazioa euskaraz egin ahal izateko tresnak ematea. Hiru ikastaroak izango dira 60 ordukoak. Izenematea zabalik dago Udal Euskaltegian.

BERGARA
**> Borondatezko lanaren gaineko ikastaroa**
Luhar taldeak emango du, hilaren 15etik 19ra, 17:00-19:00 ordutegian, eta boluntario izan nahi dutenei zuzenduta dago. Izena emateko deitu 663 0572 23 zenbakira.

DEBAGOIENA
**> Nomina eta aseguru sozialen gaineko ikastaroa Topagunearekin**
Urriaren 24an eta 31n izango da, Bilbon. 50 euro balio du. Izena emateko deitu 944 75 16 18 zenbakira edo idatzi *prestakuntza@topagunea.com* helbidera, hilaren 19a baino lehen.

BERGARA
**> Aylon mendilerrora irteera Pol-Pol eta Gorla mendi taldeekin**
Nagusiendako irteera da eta urriaren 12tik 14ra bitartean izango da. Herriko mendizale guztiak daude gonbidatuta. 18:00etan izango da irteera, Fraiskozuritik.

DEBAGOIENA
**> Geriatria ikastaroa, Gurutze Gorriarekin**
Urriaren 15etik azaroaren 5era arte izango da. 30 ordu teoriko eta 20 praktikok osatzen dute eta eskolak izango dira astelehenetik egubakoitzera, 18:15etik 20:30era. Prezioa 115 euro da. Izena emateko edo informazio gehiagorako, deitu 619 00 35 00 telefono zenbakira.

OÑATI
**> Txantxiku ikastolako ikasle ohien eguneko bazkarirako txartelak**
Bazkarirako txartelak salgai jarri dituzte urriaren 12ra arte. Prezioa da 18 euro eta eskura daitezke Txantxiku Ikastolan eta Izarraitz, Ona, Luisena, Aker, Aloña Mendi eta Otamendi tabernetan.

ARAMAIO
**> Urrian izango da dinamizatzailea KZgunean**
Urriaren 15ean eta 29an egongo da. 16:00-18:00. Eta, gogoratu behar da dinamizatzailerik gabe bada ere, egunero nabigatzeko aukera dagoela, 17:00-19:30.

ESKORIATZA
**> Urriko hiru egunetan izango da dinamizatzailea KZgunean**
Gaur, urriak 5, 19an eta 31n egongo da, 18:00-20:00. Bestalde, gogoratu behar da dinamizatzailerik gabe bada ere, egunero nabigatzeko aukera dagoela, astelehenetik barikura, 10:30-13:00 eta 16:30-20:00 eta zapatuetan, 10:30-13:00.

ARRASATE
**> 1943an jaiotako emakumeen bazkaria**
Urriaren 27an izango da, batzokian. Izena emateko 20 euro aurreratu behar dira Muruamendiaraz gozotegian.

ARRASATE
**> Txatxilipurdik lan eskaintza egin du**
Ludoteka eta gazte txokoetarako dinamizatzaileak behar ditu. Arrasateko ludotekan eta gazte txokoetan lau orduko kontratuko lana eskaintzen du; eta Aretxabaleta, Eskoriatza eta Antzuolako gaztelekuetan aste bukaerako lana. Informazio gehiago: 943 79 54 46.

BERGARA
**> Zaintzaileendako ikastaroa antolatu du Mizpirualde egoitzak**
Zaintzaileendako eta pertsona nagusien laguntzaileendako da. Lahar elkargoak emango du, urriaren 15etik 19ra, 17:00-20:00 ordutegian. Izenematea zabalik dago egoitzaren harreran.

DEBAGOIENA
**> Debagunek Nafarroa Oinez-era joateko autobusa antolatu du eta txartelak salgai daude**
Urriaren 21ean ospatuko da, Vianan. Hara joateko autobusak antolatu ditu ibarreko euskara elkarteen elkargoak. 08:30ean Bergaratik abiatuko da eta Oñati, Arrasate eta Aretxabaletan geratuko da. Txartelak hilaren 17ra arte egongo dira salgai. Prezioa da 8 euro bazkideentzat eta 10 euro gainerakoendako.

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

kale inkesta

# Erretiratuendako nahikoa ekintza egoten dela uste duzu?



**Jose Boyero**
Erretiratua
Aretxabaleta

Zapatuan bazkaria dago, baina beste askorik ez. Beste herri batzuetan parkeak dituzte, baina guk ez, erretiratuen txokoa bakarrik. Behar bezala egokitutako parkeak eskatuko nituzke nik.



**Juanita Jauregi**
Aurrez erretiratua
Aretxabaleta

Ez dakit ba... Paseatzera joateko leku egokiak ditugu inguruan, eta bidaia asko antolatzen dituzte erretiratuen elkartekoek. Hortaz, gura duenarendako badagoela aukerarik esango nuke.



**Bego Iturricastillo**
Langilea
Aretxabaleta

Badakit bidaiak antolatzen dizkietela, aita-amaginarrebari entzunda, eta kirol etxean sasoian egoteko gimnasia daukate. Gainera, egin diguten bidegorriarekin paseatzera lasai joan daitezke.



**Enrique Blanco**
Erretiratua
Aretxabaleta

Beste herri batzuetan bidaia gehiago egiten dituztela entzun dut. Baina hemen ere antolatzen dizkigute, eta ez dut kexarik. Aurten ezin gara joan zapatuko bazkarira, ea hurrengoan...



**Ana Teresa Borrego**
Langilea
Aretxabaleta

Ez diot jarraipenik egin gaiari, ez nagoelako erretiratuta, baina baiezkotan nago. Ez dut ezertan parte hartu, baina zergatik ez aurrerago? Amaginarreba pozik etortzen da antolatutako bidaietatik.

txaloak eta txistuak




GOIENKARIA.

## Ertzainek ere ondo aparkatu behar dute

Irakurle bat etorri da gurera, ertzainek autoa errepide erdian uzten dutela salatzeko. Tabernara zerbait hartzera joan gura izanez gero, gainerako herritarrek bezala legea bete eta autoa ondo aparkatu behar dutela adierazi du. Irudia Aretxabaletan aterata dago.

usteak uste

Larraitz Zeberio

## Ikasturte hasiera kaotikoa

Akordeoi eskolak eman behar zituen irakaslea harrera bulegoan aurkitu nuen gurasoen deiak erantzuten. "Lasai, garaiz jakinaraziko dugu ikasturtea noiz hasiko dugun", zioen. Guraso bat zuen telefonoaren beste aldean. Esan gabe doa ikasturte hasiera nahiko kaotikoa izan dutela aurten Arrasate Musikalen. Aprendizen Eskolak "krak" egin du. Antza, eman ditu eman beharrekoak. Orain, baina, Monterron jauregia behar den moduan egokitu arte zain egon beharko dute eskolako 640 ikasleak.

Bergaran ere ikasturte hasierak zeresan handia eman du aurten. Komunikabideei azalpenak ematen ikusi ditugu sarri eskolako ikasgeletan beharko luketen irakasleak. Zorionez, aurkitu diote konponbidea arazoari. Konponbidea-edo.

Ez da nire asmoa zutabe honetan arazo bien ardura non dagoen aztertzea. Kezka bestelakoa da. Zer ari da gertatzen? Serioa al da gertatzen ari dena? Jendaurreko hitzaldi eta hauteskunde-programetan lehentasuna ematen diote askok hezkuntzari, baina...

Laster itzuliko dira euren zereginetara Bergarakoak zein Arrasateko Musikalekoak, baina demontre, ze ikasturte hasiera aurtengoa!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

## 150.000

Domekan Kilometroak ospatuko da Bergaran. Edalontzi birziklatuak erabili ahal izango dira aurten. 150.000 edalontzi egin izan dira. Txartel bereziak salduko dira, euro baten truke, eta txosnetan horiek aurkeztu beharko dira. Bukaeran edalontzia bueltatzen dutenei dirua itzuliko zaie.

5 galdera...

## Arantza Altzibar

Bizi Bide elkarteko kidea
Donostia

**1. Bizi Bide elkarteak hitzaldia egin zuen atzo Arrasaten. Zertan datza fibromialgia eta neke kronikoaren gaitza?**

Organismoaren muskulu-ehunean eragina du. Bat-batean agertzen eta desagertzen den min handia eragiten du. Tratamenduekin ez da mina txikitzen. Batzuetan, mugitzen uzten ez duen neke kronikoa eta lo egiteko arazoak eragiten ditu. Gaixotasuna sufritzen dugun pertsonen bizi kalitatean eragiten du.

**2. Zer pertsona motari eragiten dio bereziki gaixotasun horrek?**

Gizartearen %3k sufritzen dutela esaten da. Gehienak emakumeak dira, %90 inguru. Hala ere, gero eta gizonezko gehiagok jasaten dute gaixotasun hori, baita haurrek ere.

**3. Fibromialgia eta neke kronikoaren gaitza gizarteratuta dagoela uste al duzu?**

Ez. Hasteko, izena bera arraro samarra da. Horrez gain, orain arte gaixotasunari buruz izan den kontzeptua desegokia eta peioratiboa izan da. Alegiazko gaixo moduan ezagutu izan gaituzte, eta hori ez da horrela. Ez da alferkeriagatik, gauza batzuk ezin ditugu egin. Erabateko ezjakintasuna dago gaixotasun horren inguruan, bai gizartean baita medikuntzan ere. Azken horretan ez dakite gaixotasuna nondik datorren, eta ez dute tratamendu egokirik sortu.

**4. Osasun publikoetatik jasotzen duzuen laguntza eskasa dela diozue...**

Hala da. Gaixotasunari buruzko ezjakintasuna hain handia da, administrazioek ez diote merezi duen inportantziarik ematen.

**5. Gutxi bada ere, nola hobe daiteke gaixoen bizi kalitatea?**

Elkartean aholku batzuk ematen ditugu. Hasteko, gaixotasuna onartu behar da eta horrekin bizi izaten jakin. Lan pedagogikoa garrantzitsua da. Minarekin bizi izaten eta barre egiten ikasi behar da, zaila bada ere.




Zure ametsetako
trajea dugu...
Casa Ceciaga
Casa Ceciaga 2007:
100 urte
(Ardo onak nola, urterik urte hobetuaz...)
Aurten ere
festarako ehunka soineko eta traje
eta milaka osagarri ditugu
zure gaurik gogokoenerako
Casa Ceciaga
Maalako Errabala, 3
ARRASATE
Tel/Faxa: 943 79 12 62
Maritxu Kajoi 2007
30 urte


Amagara
Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09
Eguzkia hartu eta gero zure azalak gure zainketak behar ditu.
Aurpegirako tratamenduak, hidratazioa, tonifikazioa, elektroestimulazioa, zimurrak.
Terapia medikoak: Vistabel (botoxa), betetzeko gaiak: azido hialuronikoa, azido poli-L-laktikoa, orbanak, aknea.
nº R.P.S. 297 / 05.

**JAIAK** > MARITXU KAJOI

# 30. aldiz, dotoretasuna izar Arrasateko kaleetan

Maritxu Kajoi ospatzen den 30. aldia da; dena den, orain dela 31 urte hasi ziren jaia egiten; urte batean bertan behera utzi zuten

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Maritxu Kajoi antolatzen duen Maritxu Komisiñuek gonbidapen berezia egin du: "Jendeak burukominak eta haserreak albo batera itxi eta ondo pasa dezala gaur. Hori da gure nahi nagusiena. Horrez gain, "jendea dotore jantzita eta eskapularioa zintzilik duela" irteteko eskaera egin dute. Eta hauxe ere eskatu dute: "Jendea animatzeko lore eskaintza egitera. Askok utzi egin du ohitura hori, eta gure asmoa da indartzea"

Egitarauari dagokionez, askotariko ekitaldiak daudela nabarmendu dute: "Saiatu gara jaiak denondako izaten. Kale antzerkia dago; Bonberenea txaranga; eta Maritxutan lehen aldiz, konpartsa txikia ere aterako da iluntze partean, plazan. Gero, 20:30ean da lore eskaintza eta gauean, plazan *agarrauak*-eta dantzatzeko aukera eta txosnetan, berriz, gazte sentitzen direnendako musika".

Bestalde, Udal Prebentzio Sailak iragarri du 23:00 -02:00 bitartean *testing* zerbitzua izango dela Otalora eta Zuloaga kale artean.



**UGARI** Jende ugari erakartzen du Maritxu Kajoi jaiak. GOIENKARIA

## Maritxu Kajoiko egitaraua

**17:00:** haur antzerkixe: Golokan
**18:30:** Bonberenea Txaranga mundiala.
**18:45:** AHT BAIk kabiarra eta txanpana banatuko dittu Arbolapetan, Arrasatera trenak ekarriko dittun onurak ospatzeko.
**19:00:** Maritxuren txarangak (Oria txarangak) gure belarrixak gozaraziko dittu.
**20:00:** udaltzainek *Pasarela Maala* delakuan desfilauko daue, aurki estrenauko dauien traje barrixak erakusteko.
**20:30:** urteko parrandak eskertu eta datorren urtien danok egon gaittezen eskaketako, Maritxuri lore eskeintza.
**00:00:** dantzaldi paregabie plazan Izotzekin. Ordu berien txosnetan, erromerixie eta ligetako aukera paregabie.

**Abixuek**

-**Eskapulaixue** txintxilik eta dotore jantzitte urten deigun denok! 10 eskapularixo erosten dittuenak GPS bat jasoko dau, Mondrauko kalietan gidatzian orientau ahal izeteko.

-Akordau Maritxuk ikeragarri eskertzen dauela **lorak jasotie**. Animau kuadrilla danak lorak erutera! Xoxik ez daukenak gogoratu Oñatiko jardinetan 2x1 ofertie dauela lorak lapurketako orduen.

-Maritxu Kajoi batzordiek telefono bittartezko informaziño zerbitzue jarriko dau, eskapulaixuek zelan lortu, nun aparkau, nun txikiteau... 943 76 53 40 telefonora deitu besterik ez!

> BIZTANLEEN ARRETA ZERBITZUA

### Nortasun agiriak egitera etorriko dira Biztanleen Arreta Zerbitzura urrian eta azaroan

Udako etenaldiaren ostean [ekaina ezkero ez dira etorri], atzera ere etorriko dira Arrasatera nortasun agiriak egin edo berritzera. Hiru hitzordu egin dituzte: urriaren 30ean eta azaroaren 6an eta 30ean. Hori horrela, txandak ematen hasiko dira urriaren 26an. Biztanleen Arreta Zerbitzuan (BAZ) egin behar da guztia, baita txanda hartu ere. Hain zuzen ere, handik jakinarazi dute BAZen egingo duten nortasun agiria ez dela elektronikoa izango.

> EMAKUME TXOKOA

### Emakumeen gaineko bi erakusketa ikusgai daude Kulturateko klaustroetan urriaren 28ra arte

Bi erakusketa zabaldu dituzte oraingo astean Emakume Txokoan, *Emakumeon Errealitateari* begira izenburuarekin. Horren barruan, batetik, *Emakumeekiko indarkeriaren aurkako kartelak* erakusketa ipiniko dute eta bestetik argazki erakusketa bat *Leiho bat zabalik emakume etorkinen bide luzeari* izenekoa. Erakusketa Kulturateko Klaustroan dago; urriaren 28ra arte izango da zabalik.

> PRESOAK

### Azkargorta presoari 'Parot doktrina' aplikatu diotela salatzeko agerraldia astelehenean, 13:45etik 14:15era

Luis Mari Azkargorta *Kanto* presoa aske uzteko eguna urriaren 8a dela gogorarazi du Kooperatibetako Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak. Salatu du lankide duten presoari *Parot doktrina* aplikatu diotela eta ondorioz kartzelan segitu beharko duela 2018ko apirilaren 8ra arte. Hori salatzeko, kale bilkura deitu dute, astelehenean, 13:45etik 14:15era, kooperatibetako sarreretan.

> ZERGAK

### Uraren, saneamenduaren eta zaborraren gaineko zergak ordaintzeko epea zabalik dago

Zabalik dago zaborrak batzeko zerbitzuaren eta edateko uraren eta saneamenduaren gaineko zergak ordaintzeko borondatezko epea. Zaborrei dagokienez, tasa hori ordaindu ahal da urriaren 21era bitartean. Urari eta saneamenduari dagokienez, berriz, zerga hori ordaindu ahal izango da azaroaren 1era bitartean. Bi kasuotan, esandako epeak pasatu eta gero ordaindu barik dauden ordainagiriak gainkarguarekin kobratuko ditu Udalak.




BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

MADINA ZURAK
Aroztegia
- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak
Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20
Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



**MUSIKA** > GOVERNORS MUSIKA TALDEA

# Governors taldearen lehen lana kalean da

'Itxaron beharra ez da itxaropena' diskoa aurkeztu zuen atzo Governors taldeak Donostian

**A. ARANBURUZABALA** > ARRASATE

Juan Sangre arrasatearrak gidatzen duen Governors taldearen lehen lana kalean da. Euskaraz kantatutako 11 rock abestik osatzen dute. Ekainean Garate estudioan grabatu zuten eta nahasketak, berriz, Elkarren egin zituzten. Gustura da abeslaria: "Jimmy SAren eta bion artean ekoiztu ditugu kantuak. Pozik nago, egun diskoa kaleratzea ez da-eta guztion eskuetan dagoen aukera".

Diskoa ezagutarazteko kontzertuak izaten dira bidea, nahiz eta kaleratu aurretik ere eskaini zituzten batzuk; besteak beste, Irlandan izan ziren. Dagoeneko hainbat dituzte lotuta. Debagoienean ere izango da Governors zuzenean ikusteko aukerarik: Arrasateko 3.60 aretoan azaroaren 10ean izango dira eta Eskoriatzako Inkernu tabernan, berriz, abenduaren 14an.

**TALDEAREN HISTORIA**

Fjord taldea banatu eta handik gutxira hasi zen Juan Sangre taldeberria sortzeko abestiak egiten. Ondoren, taldekide bila hasi zen.

Hori horrela, honako hauek osatzen dute taldea: Heloy soraluzetarrak bateria, Beñat arrasatearrak baxua eta Aitor algortarrak gitarra.




**GOVERNORS** Arrasateko taldeak lehen diskoa aurkeztu zuen atzo Donostian. GOVERNORS



**FEDERICO LUPPI** Amaia antzokian izango da. GOIENKARIA

**KULTURA** > URRIRAKO UDAL PROPOSAMENAK

## Federico Luppi, besteak beste, Amaia antzokian

Askotariko kultura ekitaldiak antolatu ditu Udaleko Kultura Sailak datozen asteetarako

**A. ARANBURUZABALA** > ARRASATE

Urrirako antolatutako kultura ekitaldietatik antzerkia da nabarmenena. Bi lan ikusteko aukera izango da: *El guía del Hermitage* eta *Mokaua*.

Federico Luppi Argentinako aktore ezaguna Amaia antzokian ikusteko aukera izango dugu museo bateko gidari paperean, urriaren 28an.

Astebete lehenago, bestalde, Elorrioko Logela Multimediaren eskutik, musika eta esketx umoretsuak biltzen dituen ikuskizun multimedia izango da.

**ZINEMA ESKAINTZA**

Zinemari dagokionez, aukera handia dago urriko egitarauan. Udako etenaldiaren ostean, atzo ekin zioten eguneroko emanaldiei; ohikoa den moduan, 20:30ean da hitzordua.

Aste bukaeran ere izango da zinemarako aukerarik, eta orduan, Simpson familia ezagunaren filma ikusteko aukera izango da. Gaur Maritxu Kajoi eguna izanik, berriz, ez da emanaldirik izango.

**LITERATURA SOLASALDIAK**

Azkenik, seigarren ikasturtea dute aurten literatura solasaldiek. Euskaraz eta gazteleraz izango dira eta hizkuntza bakoitzeko hileroko hitzordu bakarra izango da. Aurtengo lehengoak urriaren 23an eta 30ean dira. Izena emateko azken eguna hilaren 18a da, Kulturaten.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra
Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

HIKA OSAGARRIAK


Juan Carlos Gerra 1 ARRASATE Tel.: 943 79 98 06


Lilura
OIHALAK
Egin zure jantzia.
Konpromezurik gabeko aurrekontua.
Poltsak, eskularruak eta galtzerdiak bezalako osagarriak eskaintzen ditugu.
Zerkaosteta 5, behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72



*Eraman dotoretasuna*
*zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51




MARITXUTAN
EZ GAZ DANOK!
KEPA URRA
JON AGIRRE
JOSU URIBETXEBARRIA
LUIS MARI AZKARGORTA
PREMIN SANPEDRO
TXUS GOIKOETXEA
JOSU ARKAUZ
UNAI PAROT
ARATZ GOMEZ
JOSE I. GAZTAÑAGA
JESUS MARI ZABARTE
JOSE GABRIEL URIZAR
IGOR LETONA
KRISTINA GOIRIZELAIA
AMAIA ARRIETA
GORKA AZTIRIA
EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA
ERREFUXIATUAK
ETXEAN
NAHI DITUGU!
Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:
Irati, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Kimetz, Jai-Zale, Muxibar, Dat



ARAOTZEN GAINEAN Antolatu dituzten diapositiba emanaldien artean, *Pali*-k Araotzen eta eskaladaren gainean egingo du berba, hilaren25ean. BEÑAT LARRAÑAGA

**BESAIDE MENDI ELKARTEA** > 50. URTEURRENA

# Hitzorduz betetako Mendi Astea 50. urteurrena ospatzeko

## Urriaren 26an aurkeztuko dute mendi elkartearen 50 urteak batzen dituen liburua

**XABIER URTZELAI**> ARRASATE

Egunero ez dira 50 urte betetzen, eta behin eginda, Besaidek ondo ospatu gura du urteurren hori. Hori horrela, Besaidekoek udaberritik udazkenera atzeratzea erabaki zuten urtero egiten duten Mendi Astea. Eta, Arrasateko eta inguruko mendizaleek gustura hartzen duten aste hori hitzorduz beteta dator orain.

Aurreikusi dituzten hitzorduen artean berezienetako bat da *Besaidek mende erdia betetzen du* liburuaren aurkezpena. Jose Ramon Fernandez Urriategi arrasatearrak idatzi du liburua, eta anekdotak, efemerideak, aspaldiko erretratuak eta elkarrizketak batzen ditu, beste gauza askoren artean. Kulturaten aurkeztuko dute, hilaren 26an, 19:00etan.

**PILARIKAN PIRINIOETARA**

Hori da Mendi Asteko lehenengo hitzordua, Pilarikako zubian egingo dutena. Lutourretik (Frantzia) Sallent-era (Aragoi) egingo dute mendiko zeharkaldia. Horrez gain, hilaren 21ean Errioxa aldera joateko irteera ere antolatu dute, mendian ibili eta ondo bazkaltzera (Biasteri-Oion).

**DIAPOSITIBA EMANALDIAK**

Beste batzuen abenturekin ere badago gozatzea, diapositiba emanaldiek izaten dituzten arrakastak erakusten du hori. Hala, Iban Silbarrek eta Josu Juanek G2ko tontorrera egindako espedizioa kontatuko dute.

Alberto Asensiok, Aitor Garrok, Asier Bengoak, Asier Atxak eta Aitor Bengoak Indian bizikleta gainean egindako bidaiaren berri emango dute, eta txakur leren lasterketak izango ditu berbagai Itoitz Armendariz eskoriatzarrak. Azkenik, *Pali* aretxabaletarrak eskaladaren eta Araotzen gainean egingo du berba. Hitzordu horiek guztiak Kulturaten egingo dituzte, 19:00etan hasita.

### Mendi Asteko egitaraua

**Urriak 12, 13, 14**
Mendi irteera Pirinioetara (Lutour, Oulletes, Wallon, Sallent).

**Urriak 16, martitzena**
Diapositiba emanaldia. *G2 espedizioa*. Silbar eta Josu Juan.

**Urriak 18, eguena**
Diapositiba emanaldia. *New Delhitik Kathmandura bizikletaz*.

**Urriak 21, domeka**
Mendi irteera eta bazkaria. Biasteritik Oionera.

**Urriak 23, martitzena**
Diapositiba emanaldia. *Txakur leren munduko txapelketa*. Itoitz Armendariz.

**Urriak 25, eguena**
Diapositiba emanaldia. *Araotz, nuestra segunda casa*. Pali.

**Urriak 26, egubakoitza**
*Besaidek mende erdia betetzen du* liburuaren aurkezpena. Kultur Aten, 19:30.

**Urriak 27, zapatua**
Mendiko bizikleta irteera. 09:00. Musakolako kiroldegia.

### Arrasateko mendiko bizikleta irteera hilaren 27an

Besaide MTB taldeak antolatutako mendiko bizikleta irteera izango da Mendi Asteko azken hitzordua (hilak 27). Arrasateko inguruetan ibiliko dira, Bedoña, Larrino, Oro eta Aretxabaletatik Muru aldera egingo dute. 09:00etan elkartuko dira kiroldegian, eta amaitutakoan hamaiketakoa egingo dute.




Ohikoak ez diren mendiko pistetatik egingo dute ibilbidea. BESAIDE MTB

Uarkape jatetxea
Plater konbinatuak, bokatak, eguneko menuak, karta.
Maritxu egunerako dena prest! Ondo pasatu!!
Otalora lizentziatua 10 Tel.: 943 77 20 04 ARRASATE

((112)) SOS DEIAK

kapikua OPARIAK ETA OSAGARRIAK
Maritxutarako osagarriak
Bañez doktorea 4
(San Andres auzoan)
Arrasate
Tel.: 943 79 19 94

MEHER
Bañez doktorea 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85
Maritxutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.



UDAL GIZARTEA > ERRETIRATUAK

# Erretiratuek 11. kultur hamabostaldia ospatuko dute

'Adiskidetzea' lelopean, urriaren 15etik 27ra bitarterako hainbat ekitaldi antolatu dituzte

Hitzaldiak, bertso saioak, antzerkia eta musika tartean



HITZALDIAK Aurtengo hamabostaldian hizlarietako bat Jonan Fernandez izango da. GOIENKARIA

EDU MENDIBIL > BERGARA

San Joxepe erretiratuen elkarteak gertu dauka kultur hamabostaldiko egitaraua. *Adiskidetzea* lelopean, urriaren 15etik 27ra bitarterako hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Aurtengoa kultur hamabostaldiaren 11. ekitaldia da. Pintura taldekoek egindako kartela urriaren 15ean aurkeztuko dute, 18:30ean.

Lehen hitzaldia Patxi Azpitarte bikarioak egingo du, urriaren 19an, Miguel Altunako aretoan, 20:00etan. Beste hitzaldietako bat urriaren 24an izango da, Baketik Fundazioko zuzendari Jonan Fernandezen eskutik. Horrez gain, beste hainbat ekitaldi izango dira: besteak beste, urriaren 16an Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi taldeak *En dos palabras: im paciente* antzezlana eskainiko du; urriaren 17an bertso saioa izango da eta hilaren 20an Zumarragako Goizalde abesbatzaren eta San Joxepe abesbatzaren emanaldia Santa Marinan. Ohikoa den moduan herri bazkari batekin amaituko da hamabostaldia,urriaren 27an.

LANA

## Langabeei zuzendutako ikastaroa M. Altunan

Ikastaroa bereziki emakumeei zuzenduta dago eta doanekoa da

E.M. > BERGARA

Miguel Altuna institutuak bereziki emakume langabeei zuzendutako ikastaroa antolatu du, Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren laguntzarekin.

Ikastaroa 355 ordukoa izango da eta hainbat zatitan banatuko da. Makina erreminta eta mekanizatuko ezagutzak izatea komenigarria da ikastaroan parte hartu ahal izateko.

Hortaz, ikastaroan parte hartzeko interesa dutenek Miguel Altuna ikastetxera jo dezakete izena emateko. Era berean, *formakuntza@imaltuna.com* helbidean edo 943 76 70 49 telefono zenbakian jaso ditzakezue ikastaroaren gaineko argibide gehiago.

HEZKUNTZA > OINARRI AKORDIOA

# San Martinek eskatutako gelak Martinez Iralan kokatuko dituzte

Aranzadiri sortutako eskolaratze arazoei irtenbidea topatuko die Hezkuntza Sailak

E.M. > BERGARA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Bergarako Udalak eta Aranzadi ikastolak akordio oinarria lortu zuten aurreko astean. Horren arabera, San Martin ikastetxeak aldarrikatzen dituen bi gelak Martinez Iralako eraikin txikian kokatuko dituzte Gabonen ostean. Hortik aurrera Aranzadiri sortutako eskolaratze arazoei irtenbidea topatzeko konpromisoa hartu du Hezkuntza Sailak. Era berean, mahai bat eratuko da alde guztiekin bi ikastetxeendako behin betiko soluzioa topatzeko. Bi ikastetxeak baikor azaldu dira. Aranzadiko iturrien arabera, "pozik gaude Hezkuntza Sailak behin betiko irtenbide globala emateko konpromiso serio eta errealista hartu duelako". San Martinek ere ontzat ematen du akordioa. Hala ere, behin betiko soluzioa urria bukatu baino lehen topatzea eta Udalak otsailean aho batez onartutako akordioa errespetatzea eskatzen dute.



MARTINEZ IRALA Eraikin hori erabiliko du San Martinek Gabonen ostean. E.M.

Marrazki eta pintura klaseak
Edurne Eraña
Kurtso hasiera:
Urrian
Goizez eta arratsaldez
651 74 21 54
943 76 40 14
Arrizuri 5, 1.C
Bergara

GAZTELU
BURDINKI DENDA
Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Herran
BERGARA
Sukaldeko altzariak: Matxiategi 4
943 76 12 22 • 943 76 37 53 • 607 76 37 53


Zure sukalderako behar duzun guztia.

**TURISMOA** > UDAKO DATUAK

# Turisten beherakada aurten

2001a ezkero lehen aldiz beherakada izan du Turismo Bulegoak: 2.430 lagun igaro dira handik



**TURISMOA** Uda osoan izan da zabalik Udaleko Turismo Bulegoa. Azaroan eta abenduan zabalduko dute berriz. GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
Udaleko Turismo Bulegoak ateak itxi zituen domekan, eta balorazioa egiteko ordua da. Xabier Aranburu udal museologoak emandako datuen arabera, ekainetik irailera bitartean 2.430 lagun igaro dira Udaleko Turismo Bulegotik. Aranbururen hitzetan, "datu txarrak dira, iaz 3.476 lagun etorri zirelako. Jaitsiera orokorra izan da, antza. Donostian eta Bilbon beherakada nabari dute, eta gauza bera gertatu da herri txikiagoetan: Zarautz, Mutriku, Lekeitio, Bakio... Bergararen kasuan, 2001. urtetik lehen aldiz, aurreko urtearekin konparatuta, turista gutxiago izan ditugu eta aurtengo datuak 2003ko datuen antzekoak dira".

**BEHERAKADAREN ZERGATIA**
Ana Agirre Turismo sailburua baikor azaldu zen, eta iazko datuak hobetzeko itxaropena azaldu. Hala ere, Espainia aldetik bisitari gutxiago izan direla aitortu zuen Agirrek astelehenean. Eguraldi txarra eta diruaren prezioaren egoera izan dira faktore eragilleetako batzuk. Agirreren ustez, ETAren su-etenaren amaiera ez da erabakigarria izan turisten jaitsieran. Aranburuk ez dauka hain argi: "Izan ere, aurreko su-etena puskatu ondorengo uda txarra izan zen eta gauza bera gertatu da aurten. Aldiz, su-etena indarrean egon izan denean uda onak izan ditugu bisitariei dagokienez".

Bergarako Udalak 1995ean zabaldu zuen lehen aldiz Turismo Bulegoa. Azken urteotan uda osoan izan da zabalik. Urrian itxita egongo da eta berriro zabalduko dute azaroko Domu Santuen Egunerako eta abenduko zubirako.

**HEZKUNTZA** > AISIALDIA

# Ikasturte berria Xipizaro ludotekan

**E.M.** > BERGARA
Agorrosingo Xipizaro ludotekak ikasturte berriari ekin dio. Aurten ere, 3 eta 12 urte bitarteko umeei zuzendutako eskaintza berezia egin du Xipizarok. Izena emateko epea zabalik dago eta interesatuek Agorrosin Ekintza Guneko bigarren solairuan dagoen ludotekara jo dezakete.

Ainhoa Dominguez bergararra eta Nerea Ruiz de Gauna elgoibartarra arituko dira ludotekan lanean. Ainhoa Dominguezek hauxe esan digu: "Aurten hainbat nobedade izango dira. Jolasek eta eskulanek berebiziko garrantzia izaten jarraituko dute, eta, horrez gain, bestelako gaiak ere landuko ditugu gaztetxoekin ikasturtean zehar: birziklapena, zirkulazio seinaleak eta abar. Hain zuzen ere, aisialdia eta hezkuntza uztartzea da ludotekaren helburu nagusia".



**LUDOTEKA** Irudian, Agorrosingo Xipizaro ludoteka. E.M.

**IZENEMATEA ZABALIK**
Xipizaro ludoteka astelehenetik zapatura bitartean izango da zabalik, 17:00etatik 20:00etara. Izena emateko epea zabalik dago eta interesatuek Agorrosin Ekintza Guneko bigarren solairuan dagoen ludotekara jo dezakete. Argibide gehiago, 943 77 70 95 zenbakian. Bestalde, Osintxuko ludoteka ere zabalik dago, aste barruan 17:00etatik 19:00etara eta zapatuetan 10:00etatik 13:00etara. Hiru hilabetean behin ekintza bereziren bat egiten dute zapatu arratsaldeetan.

> UDALA

### Langabeei zuzendutako informatika ikastaroa azaroaren 7tik abenduaren 14ra bitartean

Udaleko Enplegu Sailak langabeei zuzendutako informatika ikastaroa antolatu du. Windows eta Microsoft Word (hasiera) jorratuko dituzte azaroaren 7tik abenduaren 14ra (50 ordu). Izenematea urriaren 26ra arte Udaleko Enplegu Sailean. Plaza mugatuak.

> INFORMATIKA

### Informatika ikastaroak antolatu dituzte erretiratuen egoitzan hurrengo astetik aurrera

San Joxepe erretiratuen elkarteak informatika ikastaroak antolatu ditu. Internet hasiera, edizioa eta Excel programako ikastaroak izango dira aukeran hurrengo astetik. Argibideak Boni Laskuraineko egoitzan edo 943 76 30 09 telefono zenbakian.

> GIZARTEA

### Lahar taldearekin, borondatezko lanaren gaineko ikastaroa Bergaran urriaren 15etik 19ra

Lahar taldeak antolatuta, borondatezko lanaren gaineko oinarrizko ikastaroa egingo dute Bergaran urriaren 15etik 19ra. Eskolak 17:00etatik 19:00etara izango dira, eta boluntario izan nahi dutenei zuzendutako doaneko ikastaroa da. Interesatuek 663 05 72 23 telefono zenbakira jo dezakete argibide eske.

Ion Murgizu
Pinturak
Margoketa orokorrean
• Enpapelatuak
• Iztukoak
• Fatxadak
• Eskilarak eta patioak
• Pintura industriala
Zabalotegi 9, 2. esk • **Bergara**
Esozia 24- 2º behea • **Soraluze**
Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

**ANTIA**
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
**Matxiategi 8. BERGARA**
**Tel.: 943 76 15 09**

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA


**POL-POL**
**Taberna**
943 76 07 78. Bergara

**ZERAMIKA** > GAUR INAUGURATUKO DA ERAKUSKETA

# Esther Galartzak lanak erakutsiko ditu Aroztegin

Gaur zabaldu eta hilaren 28ra arte ikusi ahal izango dira eibartarraren obrak

'Disonante armonia'-n, artistak formatu askotariko lanak aurkeztuko ditu



**ERAKUSKETAREN IZENA** Galartzak *Disonante armonia* deitu dio Aroztegiko erakusketari. M.B.

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Esther Galartza zeramikari eibartarrak bere azken lanen aukeraketa bat erakutsiko du gaurtik aurrera Aroztegi aretoan. Erakusketak *Disonante armonia* du izena eta hilaren 28ra arte egongo da zabalik. Gres pastaz eta teknika ezberdinez egindako lanak bilduko dira han.

Erakusketa bakoitzean, Galartzak berriztapen txikiak egiten ditu lanetan, erakusten diren tokiekin identifikatzeko asmoz. Hain zuzen ere, Bergarako kasuan, Kilometroak jaialdiko logotipoa jasotzen duen murala aurkeztuko du. Horrez gain, kebideak irudikatzen dituzten irudiak ere izango dira Aroztegin. Azken horiek herriko labegaraiek duten tradizioarekin lotu ditu.

Erakusketaren edukia azaltzeko orduan, "pretentsio handirik gabeko ideia bat eraikiz gizakitik abiatzen" dela esan du Galartzak. Premisa horretatik abiatuz, "gizakiak espiritu, ideologia eta irudi ezberdinen aniztasunaren bitartez sorrarazten didan disonantzia handian puntu komun bat bilatzen dut", gaineratu du.

**FORMATU ASKOTARIKO LANAK**

Aroztegiko erakusketarako formatu askotariko lanak aukeratu ditu artistak: muralak, eskulturak eta bestelako lanak. Obra horiek guztiak Galartzaren Eibarko tailerrean eginak daude.

Martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatutan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara ikusi ahal izango dira Galarzaren lanak.

**URRIKO AGENDA** > ERA ASKOTAKO EKIMENAK

## Kontzertuz, hitzaldiz eta emanaldiz beteta dator hilabete honetako kultura agenda

**M.B.** > BERGARA

Urriko proposamen kulturalak aurkeztu ditu asteotan Udaleko Kultura Zerbitzuak. Gustu eta adin guztietarako ekimenak antolatu dituzte.

Hilaren 13an, Montijoko abesbatzaren kontzertua izango da Santa Marina parrokian. Kontzertua 19:45ean hasiko da. Urriaren 18an, berriz, *Apaizac Obeto; itsasoa, hitzak eta irudiak* emanaldia eskainiko dute Bergarako kultura etxean, 19:30ean. Jardun euskara elkartea arduratu da ekimen hori antolatzeaz.

Bi egun geroago, hilaren 20an, musika entzuteko aukera egongo da berriro. Zumarragako Goizalde abesbatza Bergarara etorriko da eta Santa Marina parrokian kontzertua eskainiko du, Bergarako San Joxepe abesbatzarekin batera. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da eta San Joxepe erretiratuen elkarteak antolatu du.

Udal musika bandaren kontzertua ere ez da faltako hilabete honetan. Hilaren 21ean izango da, Udal Pilotalekuan, 12:30ean. Jakina denez, 175 bete ditu aurten musika bandak. Urriaren 24an, 18:30ean, Iñigo Marzabalek hitzaldia eskainiko du udaletxeko osoko bilkura aretoan, Vietnamgo gerrak zineman izandako trataerari buruz. Udal Artxiboak antolatu du hori.

**TREKKINGA SAHARAN**

Hilabetea amaitu aurretik, berriz, *Trekkinga Sahara aldean* gaiaz mintzatuko dira Mila Gallastegi eta Asier Arantzabal.

Hori ere udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da, hilaren 25ean, 19:00etan. Kutxaren laguntza du horrek.

> MUSIKA

### Jam aretoak urriko programazio elektronikoa prest du

Urrirako emanaldi elektronikoak aurkeztu ditu Jam aretoak. Ekimenen artean, biharko, zapatua, Kilometroen harira antolatutako jaialdia bereizten da. Kilometro Jam izena jarri diote jaialdi horri.

Pablo Acaros Aretha, Haitz Nothing Without, Ion2 Electric Fridays, Lalas Legazpi, Mitx Meataka! eta Eneko Independent han izango dira.

Jaialdia gauerdian hasiko da eta 08:00ak arte zabalik egongo da aretoa. Sarrerak 12 euro balioko du, edari bat hartzeko aukerarekin.

> MUSIKA

### Gaur rocka eta bihar DJak izango dira Ziripot tabernan

Astero bezala, Ziripot tabernan zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izango da aste bukaeran. Gaur, egubakoitza, Mansilla disko jartzaileak alaituko du saioa. Betiko orduan emango diote hasiera gaurko emanaldiari, 23:00ak aldera.

Zapatuan, berriz, musika elektronikoaren txanda iritsiko da. DJ Balza Kogolloren trebetasuna ikusi ahal izango da Ziripot tabernan. Emanaldi hori ere 23.00etan hasiko da.

> MUSIKA

### Mami Sakato organojoleak joko du bihar San Pedro elizan

Gustu guztietarako musika entzun ahal izango da aste bukaeran Bergaran. San Pedro elizan organo erromantikoaren nazioarteko zikloaren bigarren kontzertua antolatu da biharko, zapatua, 20:00etarako.

Mami Sakatok, Japoniatik iritsitako organo-joleak, emanaldia eskainiko du San Pedron. Kontzertua doakoa izango da eta pantaila handi baten bidez jarraitu ahal izango da.

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
MUJIKA BURDINDEGIA
BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA
Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA


Kantari
Debagoienean
Karaoke Ikuskizuna
OÑATIKO GAZTELEKUAN
Urriaren 20 eta 21ean
Urriak 20an:
1.saioa: 16:30ean
2.saioa: 17:45ean
3.saioa: 19:00etan
Urriak 21ean:
1.saioa: 16:00etan
2.saioa: 17:10ean
3.saioa: 18:10ean
4.saioa: 19:10ean
Zatoz zure herriko kantariak animatzera!!
BABESLEA
gaztetxoen
elkartea
club juvenil
ANTOLATZAILEA
Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Iñigo Larrañaga > Lokatza Txirrindulari Taldeko kidea

# "Ziklo-krosa oso ikusgarria da, lokatz artean, oztopoak gainditu behar izatea..."

XABIER URTZELAI > BERGARA

**Azaroaren 1ean egingo du Lokatza Txirrindulari Taldeak Euskal Herriko eta Espainiako txapelketetarako baliagarria den ziklo-kros lasterketa. Hala, Osintxura joan gara Iñigo Larrañagarekin, Iker Sanchezekin eta Arkaitz Amenabarrekin zirkuitua ikustera. Dagoeneko Unai Yusek –txirrindularia eta federazioko ordezkaria– eman die oniritzia.**




Iñigo Larrañaga, zirkuitua igaroko den pasabideetako batean, Osintxu gainean. GOIENKARIA

**Zer dela-eta sartu zarete ziklo-krosaren abentura horretan?**

Klubean orain arte ez da ziklo-krosa egiteko ohiturarik egon, baina denboraldi hasieran taldeko bi txirrindularik –Xabier Aranzeta eta Aitor Laskurain– probatu egin gura zutela esan ziguten. Hasieran entrenamendu batzuk izan ziren, gero etorri ziren lasterketak eta giro polita zegoela ikusita, horrelako proba bat antolatzeko behar den aurrekontuaren gainean hasi ginen galdetzen.

**Eta zein izan zen erantzuna?**

Xabier Usabiagarekin (ETB-ko kirol kazetaria) izan nintzen berbetan, hark antolatzen du-eta Asteasuko lasterketa. Eta, errepideko bizikletan amateurrendako antolatzen dugun lasterketa baten aurrekontu antzerakoa duela esan zidan, 4.200 euro inguru.

**Eta orduan animatu zineten?**

Bai. Konturatu ginen kluba gauza dela horrelako proba bat prestatzeko, baina gauza bat geneukan argi, klubeko gainontzeko kideei ezin geniela lan handiagorik eman. Kontuak egiten hasiz gero, Gorlako igoera, Mendekoste lasterketa, San Martinekoa... Guztira sei-zazpi lasterketa antolatzen dituzte urtero, eta beste lasterketa baten kontuarekin joatea... Egitekotan guk egitea erabaki genuen, eta badakigu laguntza behar badugu taldekoak hor egongo direla.

**Osintxun egingo duzue zirkuitua. Ez da izango erraza horrelako proba baterako lekua bilatzea.**

Ba, ez da oso erraza, ez. Gu San Martzialen eta Gorlan entrenatu izan gara, baina ez dira oso leku aproposak. Ez dago autoak aparkatzeko lekurik, herritik urrun daude... Hala, Osintxun lasterketa herrian bertan egingo dugu, bizilagunak laguntzeko prest agertu dira eta zirkuitua non egin ere erabaki dugu.

> **"Taldeko hainbat ziklistak ziklo-krosa probatu gura zutelako hasi ginen horretan"**
>
> **"Gorlan eta San Martzialen entrenatu izan gara, baina Osintxu aproposagoa da"**

**Izan ere, lasterketan laguntzaileak beharko dituzue.**

Bai, eta lehenago ere bai. Zirkuitua txukundu, hesolak jarri, ibilbidea inguratuko duen zinta jarri... eta lasterketan bertan ere gauzak egin behar izaten dira. Alde horretatik, osintxuarrek harrera ona egin digute, eta eskerrak eman behar dizkiegu.

**Zer-nolako zirkuitua izango da Osintxukoa?**

Zirkuitu azkarra izango da, hori da federazioak eskatu diguna. Azken baten, ibilbide oso gogorra jarriz gero, hasiberri dauden kadeteek gorriak ikusiko lituzkete. Eta amateur mailan ere, lasterketa berehala apurtzea ere ez da komeni. Horregatik, zirkuituak ez du malda oso gogorrik. Gero, herriko zatia asfalto gainean egingo dute, pistak ere baditutze eta baita zelaia ere.

**Eguna ere aproposa da, batik bat kanpoko jendea ere animatzeko.**

Bai. Azaroaren lehena eguena da, eta egun horretan beste proba bat baino ez dago, Madrilen. Hala, Espainiako txapelketarako puntuagarria izanda, uste dugu maila oneko txirrindulariak animatuko direla, domekarako atseden hartzeko egunak izango dituzte-eta.

**Eta ikusleak animatzeko, zer du ziklo-krosak?**

Proba ikusgarria izango da. Kontuan hartu errepideko lasterketan behin bakarrik ikusten ditugula lasterkariak, eta ezin izaten ditugula lasterketaren nondik norakoak jarraitu. Hemen ez. Zirkuitu barruan eginda, ondo jakingo dugu zein doan lehenengo eta zer gertatzen dabilen.

Horrekin batera, modalitate erakargarria da, lokatz artean, oztopoak gaindituz... Izan ere, ziklo-krosean, sasoian egotea garrantzitsua da, baina baita teknika izatea ere.

---

KROSA > SORALUZE-BERGARA

## Zabalik dago azaroaren 3an egingo duten Soraluze-Bergara kroserako izenemate epea

Ibarreko hainbat lekutan eman ahal da izena Soraluze-Bergara kroserako

X.U. > BERGARA

Antxintxika Triatloi Taldeak gertu dauka Soraluze-Bergara krosa, eta dagoeneko hasi dira proba horretarako izenak hartzen. Behobia-Donostia lasterketa baino astebete lehenago egingo dute Soraluze-Bergara krosa, eta Donostiako hitzordua prestatzeko lasterketa ezin hobea da. Horregatik, geroago eta korrikalari gehiago animatzen dira krosean esku hartzera.

**NON EMAN IZENA**

Lasterketan esku hartzeko korrikalariek 5 euro ordaindu behar dituzte. Bergaran, Lazkano Oinetakoetan, Goiena aseguru etxean, Agorrosinen eta Mapfren eman ahal da izena. Oñatin Zero-Km dendan eta Arrasaten Musakolako kiroldegian. Horrez gainera, *krosa@antxintxika.org* helbidera idatzita ere eman ahal izango da izena.

Lasterketari dagokionez, azaroaren 3an 17:00etan hasiko dute proba, Soraluzen. Hala, bederatzi kilometro eginda iritsiko dira Bergarara, eta herrigunean egingo dute azken kilometroa. Eta, gaztetxoendako ere izango da lasterketa egun horretan, Ibargarain, 16:00etan. Ibilbide hori Bergaran bertan egingo dute; 1.600, 2.400 eta 3.200 metroko probak izango dira.




OIHARTZUNA 200 korrikalari baino gehiago espero dituzte kroserako. X.U.

mingainari tiraka

**Marian Ortiz** > Eki-Lur parafarmazia eta belar-dendako arduraduna

# "Sendabelarrak ez ditut oso gustuko"

MIRIAN BITERI > BERGARA

**Lau urte eman ditu Marian Ortiz azkoitiarrak Antzuolako botikan lan egiten. Orain Bergaran egiten du lan, Eki-Lur parafarmazia eta belar-dendako arduradun berria da. Ekainean hartu zuen lokala eta hemendik gutxira tokiz aldatuko da.**




**Tokiz aldatuko duzu denda. Urruti zoaz?**
Ez, Ibargarai kalera goaz, Palmera bezala ezagutzen den aldera. Lanak orain hasi dira eta urri bukaeran edo azaro hasieran lokal berrian egotea espero dugu.

**Txiki geratu al zaizu dagoeneko oraingo denda?**
Ez. Oraingo lokala Batzokiarena da. Hark berrikuntzak egin nahi ditu, jatetxe handi bat egin nahi du. Baina egia da ez daukagula toki handirik. Eskaintza osatuz gero, txiki geratuko litzateke.

**Sendabelarrak dituzu. Ondo saltzen dira? Batzuek ez dute zapore oso ona...**
Bai, bereziki gaitzetarako erabiltzen dira. Egia da batzuk ez direla gustuz oso atseginak, baina botikek baino albo-ondorio gutxiago dituzte eta emaitza onak ematen dituztela frogatu da.

**Zuri zein da gehien gustatzen zaizuna?**
Ez ditut oso gustuko, eta, beraz, ez dut apenas belarrik hartzen.

**Emakume asko sartzen dira dendara...**
Hala da. Dendetara gehien sartzen direnak dira. Baina gizonezko bezero batzuk ere baditugu. Adin guztiko jendea dator.

**Ikasle asko etortzen al dira azterketa garaian lasaigarrien bila?**
Batzuk etorri dira. Ekain aldean eta irail hasieran ikasle gehiago etorri dira.

**Normalak dira bergararrak produktuak eskatzerakoan?**
Bai. Ez dute gauza arrarorik eskatzen.

**Zer egiten du azkoitiar batek ibarrean?**
Distantzia txikia dago Azkoitia eta Debagoiena artean eta lan egiteko aukera sortu zitzaidanean ez nuen pentsatu. Gustura nago. Bizi, baina, Azkoitian bizi naiz.

argazki zaharra

## 1955eko San Antonioko dianak jotzen

Aurten 175 urte bete ditu musika bandak. Juan Luis Bikuña kazetariak haren ibilbidea jaso du *Historia baten notak* liburuan. Irudia hortik hartuta dago. Zutik, ezkerretik eskumara, Genaro Suinaga, Enrike Noarbe, Martzial Egaña, Natalio Juaristi, Martin Gantxegi, Felix Aranburu, Sebastian Latorre eta Patxi Aiastui daude. Makurtuta, Kristobal Uriarte, Joxemari Larrea, Pablo Uribesalgo eta Jaxinto Gonzalez Eskiala.

**Argazkia:** Udal Artxiboa.
**Testua:** Mirian Biteri.
**Urtea:** 1955eko ekainaren 13a.



bere ustez



Ainhoa Agirreazaldegi

## Parot doktrina Kantori

Ez ezazu zutabe hau irakurri zeure burua euskal preso politiko baten azalean inoiz jarri ez baduzu. Hemen esaten dena oso gogorra bada ere, ariketa hori gaur arte egin ez baduzu, beste alde batera begira bizitzea erabaki duzulako da.

Lehen aldiz 1988ko apirilean atxilotu zuten. Espainiako hainbat espetxetan egin zituen 15 urte, Euskal Herritik oso urruti eta egoera oso zailetan. Legeak agintzen duen bezala, zigorraren hiru laurdenak bete ondoren atera zen kalera 2003ko urtarrilean.

**"Espainian gorrotoa da nagusi, eta gorroto horretatik lege berri bat asmatu dute"**

Epaileak, ordea, kondena osoa betearazi zion, eta bere burua aurkeztu zuen 2003ko azaroan. Orduan, 2007ko urriaren 8rako ezarri zioten kalera ateratzeko data. Datorren astelehenean etxean egon behar luke, 19 urte espetxean eginda.

Baina Espainian gorrotoa da nagusi, eta gorroto horretatik lege berri bat asmatu dute. Parot doktrina ezarri diote Kantori eta 2018ko apirilaren 8ra arte espetxean egon behar duela erabaki dute.

Nik ere gorrotoa sentitzen dut, eta ez dut pentsatu ere egin nahi zer sentituko duten Kantok, Nekanek, Markelek eta Zigorrek. Besarkada estu bana lauroi.

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
K21
Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak • Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA
Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

# "Giro alaia, jende jatorra eta noski jantzi dotorea"

## Hurrengo urtean gehiago eta hobeto!







Amets
Bengoa
Branka
Express
Rumba
Gure Leku
Iamai
Itzala
Monte
Plus Ultra



**INGURUMENA** > ITURRIONDO PARKEA

# Iturriondo parkearen proiektuarekin aurrera egiteko asmoa du Udalak

Parkean dauden zuhaitz eta zuhaixkak identifikatu eta txukuntzea da asmoa, eta gero beste bide bat egin gura dute Urkulura, Bolinagatik bueltan



**ITURRIONDO** Zuhaitz eta zuhaixka mota asko daude Udalarena den Iturriondo parkean. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Udalak, Basoa fundazioak eta Kutxak hitzarmena sinatu zuten abenduan, Iturriondo parkea eta Bainetxe ingurua txukundu eta berritzeko. Egitasmoarekin aurrera jarraitzeko asmoa du Udalak, eta proiektua aztertzen dabil azken asteotan.

**11 MILA METRO KOADRO**

Iturriondo parke inguruak 11.620 metro koadro ditu eta Arkarazo auzora doan errepidearen eskuineko aldean dago, Bainetxeko industrialdearen gainaldean. Orain dela urte batzuk Amilotx taldeak eta herriko hainbat lagunek –Jose Mari Sarasua eta Anjel Loidi tartean– egindako lanari esker zuhaitz eta zuhaixka asko daude landatuta. Hala ere, herritarrendako ezezaguna da parkea, eta hitzarmenaren asmoa zen berreskuratzea eta bizitza ematea. Horretarako hainbat lan egingo dituzte: parkea garbitu, txukundu eta bertan dauden zuhaitz eta zuhaixka guztiak identifikatu. Eta, behar izanez gero, hesi eta itxiturak jarri. Horrez gain Urkulura joango den ibilbide zirkuitu baten barruan sartu gura dute Iturriondo. Bainuetxearen albotik Urkulura doan bidegorriarekin bat egingo duen beste bide bat zabaltzea da asmoa, eta ibilbide zirkuitu bat osatu. Hala, bi ibilbide izango dituzte herritarrek Urkulura jotzeko: orain dagoen bidegorritik gora bata, eta bestea, Iturriondo parketik Bolinaga auzora eta gero Areantza auzotik bueltan urtegira.

**40 MILIOI EUROKO AURREKONTUA**

Ia 40 milioi euroko aurrekontua zeukaten lanok abenduan, hitzarmena sinatu zutenean eta Kutxak beregain hartu zuen gastua. Geldi egon da kontua hilabete batzuetan, baina Joxe Anjel Antxia Ingurumen zinegotziak adierazi digunez proiektua berrikusten dabil Udala azken asteotan. Egin gura duten ibilbide berriaren gaineko hainbat kontu lotzen dituenean hasiko dituzte lanok. Basoa Fundazioak lanen gidaritza teknikoa egitea adostu zuten hitzarmena sinatutakoan, eta aurreikusi zuten hilabete bi inguru iraungo zutela lanok.

**ELKARTASUNA** > ARIZMENDI

# Arizmendik San Migeletan batutako dirua, Hiruatxi

Ekuatore Ginean duen nekazari garapeneko proiektuarendako da

**M.A.** > ARETXABALETA

Azken sei urteotan legez, San Migel jaietako azokan postua jarri zuten Arizmendiko Lehen Hezkuntzako ikasleek. Eurek ekoiztutako jakiak saldu zituzten: bizkotxoak, lazoak, irasagarrak, palomitak eta txokolatinak. DBHkoek, ostera, bertsopaperak eskaini zituzten. Jasotako dirua Hiruatx elkarteari emango diote.

**NEKAZARI GARAPENERAKO**

Ekuatore Gineako Mitemelete-Evinayong zonaren nekazari garapenerako izango da, hain zuzen, dirua. Mitemeleten 300 bat nekazari ari dira lanean Hiruatxen proiektuari esker, eta bertan behera utzitako lurrak berreskuratzen dabiltza.



**IKASLEAK** Lehen Hezkuntzako ikasleak eurek ekoiztutako produktuak erakusten San Migel jaietako azokan. ARIZMENDI



**OSPAKIZUNA** > ERRETIRATUEN EGUNA

# Erretiratuen Eguneko bazkarian 260 lagun inguru elkartuko dira

Bihar, zapatua, ospatuko dute Erretiratuen Eguna; kirol etxean eskainiko die bazkaria Udalak, eta bazkalostean dantzaldia eta opariak izango dituzte



**BAZKARIA** Kirol etxean bazkaltzen dute erretiratuek euren omenez antolatutako eguna ospatzeko. JOSETXO ARANTZABAL

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Bihar, hilak 6, ospatuko dute herriko erretiratuek euren omenez antolatutako eguna. Meza eta kirol etxean egingo duten bazkaria izango dira ospakizuneko ekitaldirik garrantzitsuenak.

**BAZKALTZERA 260 INGURU**

Urtero antolatzen die Udalak jaieguna erretiratuei, eta 65 urtetik gorako aretxabaletar askok hartu izan du parte ekitaldietan. Aurten 260ren bat joango dira kirol etxera bazkaltzera. Jai eguna, baina, aurretik hasiko dute; 11:00etan salda beroa eskainiko diete Basotxo erretiratuen elkarteko tabernan. Eta ondoren, meza entzutera joango dira; 12:30ean izango da, parrokian. Kirol etxeko bidea hartuko dute gero erretiratuek eta 13:30ean bazkaria eskainiko diete. Hona menua: frijituak, haragi-salda, langostinoak plantxan, bildots errea entsaladarekin, tarta eta izozkia. Bazkalostean dantzaldia izango dute Ludi-Berri taldearekin eta opariak banatuko dizkiete guztiei.

**HERRIKO NAGUSIENAK**

Bazkaltzera doazenek oparia jasoko dute, baina herriko nagusienek ere bai. Iaz bezalaxe Urats-Gain egoitzan bizi den Joaquin Barbero da nagusiena; abenduaren 18an 101 urte beteko ditu. Emakumeen artean, ostera, Elesgarai baserriko Margarita Lasagabaster da, otsailean 96 urte egin zituen hark.

**INTERNET**

## Goiz eta arratsaldez zabalik KZgunea

**M.A.** > ARETXABALETA

Astelehenetik egubakoitzera bitartean goizez zabalduko dute Markole auzoan dagoen KZgunea, 09:00etatik 13:00etara. Eta martitzen, eguazten eta eguenetan arratsaldeetan ere bai, 16:00etatik 20:00etara. Hainbat ikastaro antolatu dituzte 16 urtetik gorakoendako: irudi digitala zelan landu, sinadura elektronikoa zertarako erabili, Interneten gainean gehiago jakiteko ikastaro orokorra eta beste hainbat.

Gainera, Izenpe txartela eskura daiteke Aretxabaletako KZgunean. Txartel horrekin hainbat gestio egin daitezke etxeko ordenagailutik: liburuen mailegua eskatu liburutegian, Gizarte Segurantzako bizitza laborala eskatu eta beste batzuk.

Eta IT txartela eskuratzeko azterketen hitzorduak zehaztu dituzte: hilaren 10ean, eguaztena, 09:00etan, eta urriaren 16an, 26an eta 30ean, 11:00etan.

**IKASTAROA** > MASAJEA

## Umeendako masaje ikastaroa egingo du Kurtzebarri eskolak

Hilabete batetik lau hilabete arteko umeendako dago gomendatua, eta hazkunde goxoa bideratzea du helburu

**M.A.** > ARETXABALETA

Masaje ikastaroa antolatu du Kurtzebarri eskolak hilabete eta lau hilabete arteko umeendako. Bost saio egingo dituzte eskolan bertan.

**UMEAREKIN BOST SAIO**

*Zure txikiarekin batera hazkunde goxoa bideratzen duen esperientzia* leloa du ikastaroak, eta eskolako irakasle diren Txaro Urrutia eta Mari Karmen Gutierrez izango dituzte gidari gurasoek. Maiatzean ere eskaini zuten eta gustura jardun zuten ume eta gurasoek.

Urriaren 16an, martitzena, aurkeztuko dute ikastaroa, 18:00etan; ekitaldia ume barik izango da. Ondoren bost saio egingo dituzte umearekin: hilaren 18an, 23an, 25ean, 30ean eta 31n; 17:00etatik 18:30era guztiak.



**MASAJEA** Maiatzean egindako ikastaroan hainbat guraso umeekin. KURTZEBARRI

> TXAPELKETA

### Martitzenean hasiko dira Joteko Prest! pala txapelketa jokatzen

Loramendi Euskara Elkarteak bigarren aldiz antolatu du Joteko Prest! pala txapelketa eta datorren martitzenean, hilak 9, hasiko dira jokatzen. Iaz izandako arrakastaren ondoren errepikatzea erabaki dute antolatzaileek, eta oraindik arrakasta handiagoa izango duelakoan daude, 14 bikotek eman dute-eta izena. Martitzen eta eguenetan izango dira partiduak Iturrigorri frontoian, 19:30ean.

Hilabete bi iraungo du txapelketak eta finala abenduaren 14an egingo dute. Jai giroa izango da orduan, bertso afaria antolatu dute-eta.

PAGALDAI
Opari denda
Lurrindegia

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14
Etorri da udazkena!

Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

RaijinTattoo
MANTENDU DEBAGOIENA EDERRA!
TATUATU ZAITEZ!
Iralabarri plaza 1, behea
Aretxabaleta
Tel.: 610 85 91 54
www.myspace.com/raijintatoo

**KIROLA** > ZUBIKOA KIROLDEGIKO JARDUERAK

# Astean hasi dira Zubikoa kiroldegiko jarduera berriak

Zazpi jarduera berri izango dira Zubikoa kiroldegian ikasturte honetan; instalazio berrietan pilatesa, fitbikea eta erditze ondorengo gimnasia eskainiko dituzte


**INSTALAZIO BERRIAK** Fitbike jarduerako momentu bat. GOIENKARIA

**M.A** > OÑATI

Astelehenean hasi ziren Oñatiko Zubikoa kiroldegiko kirol jarduerak. Aurten, gainera, hainbat berrikuntza eskainiko ditu: batuka (helduentzako edo gazteentzako), body combat, body pump eta body balance, muskulazioa, pilates terapeutikoa eta erditze ondorengo gimnasia. Esan bezala, astelehena ezkero daude martxan jarduera berriok; erditze ondorengo gimnasia urriaren 10ean hasiko da. Urarekin lotutakoak, aquagym eta igeriketa kasu, ez dira datorren astelehenera arte hasiko.

Inolako inaugurazio ekitaldirik gabe, Oñatiko zubikoa kiroldegiko instalazio berriak erabiltzeko moduan daude jada, eta astelehenean hasi ziren jarduera gehienak martxan. Body balance delakoa ez, ez da-eta talderik osatu oraindik. Gainontzekoak, body pump, body combat, pilatesa, fitbikea, batuka, aerobika eta beste hainbat hasiak dira. Baita erditze osteko ariketa fisikoa, sasoian egoteko gimnasia eta gimnasia terapeutikoa ere.

Hainbat jarduera uztartzeko aukera ere egongo da. Adibidez, jarduera bat aukeratzen duenak beste jarduera baten edo bitan izena emateko aukera izango du, eta hala, hilean ordaindu beharreko tarifa merkeagoa izango da. Gainera, bi gehigarri hartzen dituztenek *Sarrera Librea* izeneko aukeraz disfrutatu ahal izango dute; hain zuzen, gehigarri bezala aukeratu dituzten jardueretara nahi duten egun eta orduan joateko aukera izango dute. Instalazio berrietan pilates gela fitbike gela eta pilatesa egiteko material berria dago; hain zuzen ere, bosu, foam roller, arc barrell, spine sopporter eta beste hainbat dira pilates gela berrirako ekarritako materialak. Izan ere, pilatesa, fitbikea eta erditze ondorengo gimnasiak instalazio berrietan egingo dituzte eta gainontzeko jarduerak, berriz, betiko instalazioetan.

**ALDAGELA BERRIAK ITXITA**

Astelehenean hasi ziren jarduerak, eta astelehenean bertan konturatu ziren instalazio berrietako aldageletan dutxak martxan jartzean, ura orkatiletaraino iristen zela eta ate azpitik irten, gainera. Hori horrela, aldagela berriak itxita daude eta berriz ere hasi beharko dute konponketa lanak egiten. Hilabetean egongo dira itxita aldagelok.

**POLITIKA**

# PPko zinegotzia epaituko dute

EAE-ANVko kideei "hiltzaile" deitzeagatiK hilaren 24an epaituko dute

**M.A** > OÑATI

Uztaileko azken osoko bilkuran PPko zinegotzi Julio Perez Arriluzeak "hiltzaile" deitu ziela salatu zuten EAE-ANVko kideek. Salaketa Bergarako epaitegian jarri zuten.

**EPAIKETA HILAREN 24AN**

Bergaran urriaren 24an, eguaztenean, epaituko dute Julio Perez Arriluzea PPko zinegotzia. Izan ere, Perez Arriluzeak onartu du "hiltzaile" deitu izana EAE-ANVko kideei. Hala, epaileak salaketa onartu du eta PPko zinegotzia epaitua izango da.

> NAFARROA OINEZ

## Autobuserako txartelak Laixanen daude salgai

Txartelak urriaren 17ra bitartean egongo dira salgai Laixan Euskara Elkartean. Prezioa, 8 euro bazkideendako eta 10 gainontzekoendako.

Aurtengo Nafarroa Oinez Vianan ospatuko da urriaren 21ean, domekan. Debagunek antolatutako autobusak ibarreko herri ezberdinetan izango du geltokia. Oñatin, 08:45ean Correos parean jasoko ditu bidaiariak.

**JAIAK** > ERROSAIXUAK

# Herri Eguna egingo dute zapatuan

Zapatuan baserritarrez eta astelehenean mozorroz jantziko dira Oñatiko kaleak

**M.A** > OÑATI

San Migel jaietako bigarren txanpa ekintzez gainezka dator. Gaur, egubakoitza, 20:00etan, txosnagunean rock kontzertua: Astopitoak, Manifa, Karkaba, Triskantza eta Clavo Oxidado taldeekin. 22:30ean, bertso jaialdia Zubikoa kiroldegian Jon Maia, Amets Arzallus, Joxe Agirre, Sustrai Colina, Igor Elortza eta Jexux Mari Irazu bertsolariekin.

Zapatuan Herri Eguna ospatuko dute. Bertan, barazki, fruta, ganadu eta sagardo azokak izango dira. 14:30ean, herri bazkaria kiroldegian. 18:00etan, herri kirolak plazan. 19:30ean, omenaldia herriko preso eta iheslari politikoei. Ondoren manifestazioa izango da; ordu berean, salbea parrokian. 22:30ean, pilota partiduak eta 23:00etan, Erdizka Lauetan taldearekin dantzaldia. Txosna gunean, berriz, Tapia eta Leturia trikitilariekin erromeria eta dantzan egiteko aukera.

Domekan, Etxaluzen haur jolas parkea goiz eta arratsaldez. 11:00etan, Elkarmeza Nagusia. 12:00etan, Musika Bandarekin kalejira. 18:30ean, Scura Splats taldearen ikuskizuna. 19:00etan tortilla lehiaketa txosnetan. 20:30ean, balkoitik balkoirako bertso saioa Paia anaiekin. 23:00etan, suzko erruberak. 23:30ean, dantzaldia.

**ERROSAIXO-BIXAMON EGUNA**

Koadrilen mozorro erakustaldia egongo da. 09:30ean, poneyak, bigantxak eta sokamuturra. Eguerdian paella jana txosnetan. 17:00etan herriko taldeen bertsio kontzertua. 16:30ean, poneyak, bigantxak eta sokamuturra. 19:00etan, Djamboree Batukadaren kalejira. 23:00etan, Eganekin erromeria.


**HERRI EGUNA.** Argazkian koadrila oñatiarra urteroko sagardo azokan. GOIENKARIA.

**EUSKARA** > BIDELAGUN EKIMENA

# Gurasoek seme-alabekin euskaraz egin dezaten Bidelagun ikastaroak

Euskaraz ez dakitenendako eta euskara hobetu gura dutenendako ikastaroak antolatu dituzte

Euskaraz ez dakitenei, umeekin jolasteko, abesteko eta euskaraz komunikatzeko argibideak

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Aurten ere Bidelagun ekimena antolatu dute gurasoei euskarazko oinarriak erakusteko. Udalak eta herriko lau ikastetxek hartu dute horren ardura, eta herriko Euskal Txokoan, Intxaurtxuetan bertan, izango dira eskolak.

**AURTENGOA, HIRUGARRENA**

Aurten egingo dutena orain arteko hirugarrena da. Udaleko Euskara Zerbitzuko Mari Carmen Arrietak azaldu digunez, lehenengo urtean esku hartu zutenek bigarrenean errepikatu egin zuten, eta hirugarren bat antolatzea eskatu zuten.

**DEIALDIA ESKOLEN BIDEZ**

Ekimenaren helburua da gurasoek seme-alabekin euskaraz jolastea eta euskaraz egitea. Horretarako, iaztik hasita, bi ikastaro mota antolatzen dituzte: bata, euskararik ez dakitenendako; eta bestea, euskaraz dakitenek ikasitakoa hobetzeko aukera izan dezaten.

Iaz hamaika guraso ibili ziren euskarazko oinarriak ikasten; eta beste zortzi ordurako zekiten euskara hobetzen.

**JOLASAK ETA IPUINAK**

Euskaraz ez dakitenek urritik Aste Santura bitartean egingo dituzte eskolak. Astean bitan elkartuko dira eta ordu eta erdiko saioak izango dira.

Aukeran izango dira 14:30etik 16:00etara bitarteko edo 18:30etik 20:00etara bitarteko ordutegiak. Egunak, berriz, izena eman eta gero zehaztuko dituzte.

Landuko dituzten gaien artean honako hauek bereiztu dituzte: haurren jolasak, abestiak, ipuinak; agurrak, zenbakiak, ohiko esamoldeak; telebistako haur programen oinarrizko hiztegia eta pertsonaiak; eta urtaroak, aste egunak, hilabeteak, zenbakiak, koloreak eta beste.

Euskaraz dakiten eta hobetu egin gura duten gurasoek, berriz, azarotik abendura bitartean jasoko dituzte eskolak. Horien ikastaroak iraupen laburragoa izango du, guraso horiek gainontzekoek baino premia txikiagoa dutelako.

Haiek, astean bitan, ordu eta erdiko saioak egingo dituzte; eta honako gaiak izango dituzte aztergai: euskaraz egiterakoan ohiko akatsak zuzentzea, ahozko jarduna hobetzea eta eskolako hiztegia, hain zuzen ere.

**URRIAREN 11, AZKENEKO EGUNA**

Udalak ikastetxeen bitartez bideratu du izena emateko aukera. Hala ere, beste norbaitek izena emateko interesa badu ere, Udaleko Euskara Zerbitzura edo Euskal Txokora jo dezake.

Aste Santura bitarteko ikastaroaren matrikula 62 eurokoa da (materiala barne); eta azarotik abendura bitartekoa, berriz, 20 eurokoa, hori ere materialarekin.

**EMAKUMEZKOEN KONPROMISOA**

Antolatzaileek jakinarazi digutenez, orain arteko ikastaroetan esku hartu duten gehienak emakumezkoak dira. Horregatik, gizonezkoei ere esku hartzeko gonbita egiten diete.

GURASOAK

**19**

**GURASO IBILI ZIREN IAZ**

Iazkoa bigarren aldia izan zen Bidelagun izeneko ikastaroak antolatu zituztena. 19 gurasok esku hartu zuten, eta horietako askok eskatu zuten aurten ere ekimena errepikatzea.

**AZPIEGITURAK** > BIDEGORRIAREN PLANA

# Bidegorriaren plana berbagai

Udalak eskatu dio Aldundiari informazioa zabaltzeko eta tramu guztia ordaintzeko

**I.B.** > ESKORIATZA

Aurreko asteko osoko bilkuran, Aldundiak esku artean duen bidegorriaren gaineko plana izan zuten berbagai. Batez ere kritikatu zuten bidegorrien planari iradokizunak egiteko epea abuztuan hasi eta bukatu zela. Hala, aho batez onartu zuten Aldundiari bidalitako oharra berrestea.

Bestalde, bidegorriaren planaren gaineko tirabirak aspaldikoak direnez, Eskoriatzako alkate Pedro Lasabasterrengana jo dugu argibide bila.

Lasagabasterrek azaldu digu Jaurlaritzak 1998an erabaki zuela bidegorri sarea egitea autobidearen neurri konpentsatzaile moduan. Gero Aldundiaren esku utzi zuen horren ardura.

**LUR JABEEI INFORMAZIOA**

Alkateak jakinarazi digu baserritar eta lurren jabe batzuek plan horren gaineko zalantzak dituztela. Horregatik, EAE-ANV taldeak uste du Aldundiak informazio gehiago eman beharko lukeela, eta lurjabeei, baserritarrei eta gainontzeko herritarrei esku hartzen uztea. "Guk uste dugu bateragarriak direla bidegorria eta gaur egun trenbide zaharrak dituen erabilpenak; hau da, baserri pistak, auzoen arteko loturak, ganaduarendako bideak... Halako kontuak argitu egin behar dira", azaldu zigun Pedro Lasagabasterrek.



**HERRI BARRUKOA** Udalak argitu du ez duela bidegorriaren herri barruko tramurik ordainduko. IKER BARANDIARAN

Udala arduratzen duen beste kontu bat da Aldundiak dioela herri barruko tramuak Udalak ordaindu beharko dituela, baina Udala ez dago ados.

DE LA TORRE
igeltserotza
*Erreformak orokorrean*
*Gremioen koordinazioa*
Intxaurtxueta 7 2-D
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27

AZKOAGA
ESTANKOA
*943 71 48 77*
*Zure Zerbitzura*



**ONDAREA** > ZUBIATEKO LABEA

# Zubiateko labearen berreskuratze lanak eginda

Labearen estruktura sendotu, pitzadurak konpondu eta erabat garbitu dute

Aranzadi elkartekoek bi etapatan egin dute lan hori: apiriletik maiatzera eta abuztutik urrira



**ARANZADI** Aranzadi zientzia elkarteko adituak ibili dira labea berreskuratzeko lanak egiten. I.B.

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Astean bukatu dituzte Zubiateko labea berreskuratzeko lanak. Aranzadi elkartekoek izan dute horren ardura, eta bi fasetan egin dute: bata, apiriletik maiatzera bitartean; eta bestea, abuztutik urri hasiera bitartean.

Lan horien helburu nagusia izan da labearen estruktura konpontzea eta berreskuratzea eta propioak ez diren elementuak berezkoekin ordezkatzea, besteak beste. Hain zuzen ere, Aranzadiko arduradunek jakinarazi digute labearen estruktura ez zegoela osorik eta pitzadurak zituela. Horrez gainera, labearen hormetan zementua ere aurkitu zuten.

**ESTRUKTURA EGONKORTU**
Lehenengo fasean, sendotze eta garbiketa lanak labe barruan egin dituzte. Horren arabera, egonkortasuna eman diote labearen estrukturari eta propioak ez ziren elementuak eta zikinkeriak atera dituzte, berezkoak direnekin ordezkatuta. Hala ere, Aranzadik nabarmendu du ez zegoela labea jausteko arriskurik. Bestalde, bigarren fasean, batez ere, labearen arkuetan eta sarreran egin dituzte lanok, konponketa txiki batzuk. Hori guztia eginda, labearen inguruan museo proiektua egingo den edo ez erabakitzea falta da orain. Labe horrek garrantzi handia dauka, adituen ustetan. XIX. mendekoa da eta XX. mende erdirate ibili zen lanean. Gipuzkoan halako hiru bakarrik daude; eta Eskoriatzakoa da hiru horietatik hobeto zainduta dagoena.

**KIROLA** > KIROL IKASTAROAK

## Kirol ikastaroetan esku hartzeko izenematea zabalik

Joan den urteko prezioei KPI bakarrik gehituko die Goienasportek

**I.B.** > ESKORIATZA
Dagoeneko adostu dituzte Udalak eta Goienasportek ikasturte honetako kirol zerbitzuen nondik norakoak. Horren arabera, kirol ikastaroetan esku hartzeko izenematea zabalik dago dagoeneko. Interesatuek hilaren 15a aurretik jo beharko dute kiroldegira. Inprimakia hartu, banku edo aurrezki kutxan diru-sarrera egin, eta kiroldegira eraman beharko dute inprimakia.

Eskolak hilaren 15ean hasiko dira eta eskaintza oso zabala da. Aldaketa nagusia da aurten gutxienez hiru hilabetetarako izena eman beharko dela; eta urte osorako apuntatuz gero, %5eko beherapena egingo dutela.

## Emakumeen igoera Mont Blancera, iruditan

Aitzorrotz kultura elkarteak beste erakusketa bat jarri du Inkernu tabernan. 2006an Euskal Herriko 19 emakume Mont Blanceko gailurrera igo ziren hiru bide desberdinetatik. Guztiek 40tik gora urte zituzten.

Mendi ibilaldi haren gaineko argazkiak eta informazioa daude ikusgai hilabete osoan. Horrez gain, hilaren 18an berbaldia egingo dute Ibarraundin.




IÑAKI KORTAZAR



MIRENTXU
TABERNA
*Kafe goxoa hartzeko*
Tel.: 943 71 41 67

**bere ustez**



Ainhoa Ugarteburu

## Eguneroko sare soziala

Badira bi urte Dublin aldera etorri nitzala, eta ze esango dotsuet ba… Ez daukat Antzuolari buruz ideia haundirik. Etxekuek deitzen dabenian, egunerokotasunari buruz berba egitten dabe, gauza txikixak, batzutan berri on eta pozgarrixak, beste batzutan benetan tristetzen naben berrixak. Ez dogu gai politiko edo ekonomikotaz ixildu barik berba egitten… Komentau, berba egin, baina nere informazinua berritzeko adina ez behintzat.

**"Sentimendu kolektiboa sare sozialetan oinarrituta dagoela uste dut"**

Badirudi, inporta dana, sare soziala dala. Herri txiki baten bizi zarenian, ezagutzen dozun pertsonaz inguratuta zare. Gurasuak, lehengusuak, lagunak, kuadrilakuak, lankidiak, ikaskidiak, sare txiki baten parte zara, konturatu barik garrantzitsua dana. Ez dakitt ona edo txarra dan, baina da. Eguneroko bizitza sare horrekin osatuta dago,badirudi sare hori dala garrantzitsuena.

Sare horiekin osatzen dira herrixak. Uste dot, sentimendu kolektibua deitzen dana horretan dagola oinarrituta. Falta danian konturatzen zara zelako garrantzitsua dan, eta batez be nola bihurtzen dan bizitza ulertzeko oinarri nagusienetako bat. Kontura-tu barik.



**KONGO** Canudos herrialdean ura bideratu dute menditik herrira; irudian, iturrien inaugurazioa. BITTOR ARBULU

**ANELKAR** > ELKARTASUNA

# Afrikara eta Amerikara 27.000 € bidaliko dituzte

Domekako Elkartasun Festan 1.780 euro batu zituzten, txartelekin eta produktuekin

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Ia hamar urte daramatza Anelkarrek lanean. Ordutik hona diru asko batu eta hainbat herrialdetara bideratu dute, hango proiektuak laguntzeko. 81.730 euro, hain zuzen ere, bidali dituzte urte hauetan guztietan. Hona hemen datuak zehatzago: 24.000 euro Kongora; 25.900 Brasilera; 20.200 euro Senegalera; 3.000 euro Uruguaira; beste 3.000 Ekuadorrera; eta 5.630 euro Saharara. Diru horrekin lagundu dituzten proiektuak izan dira, besteak beste, ubideak egitea, eskolak egitea, irakasleen soldatak ordaintzea, automobilak erostea, nekazarien kooperatibak sortzea eta osasun azpiegiturak egitea.

**ORAIN, BESTE 27.000 EURO**

Azkenaldi honetan 27.000 euro batu ditu Anelkarrek eta diru hori bideratuko dute datozen asteotan. 7.000na euro bidaliko dituzte Kongora, Brasilera eta Senegalera eta 3.000na euro Uruguaira eta Ekuadorrera.

Anelkarreko kideek azaldu dutenez, domekako Elkartasun Festan batu zuten 1.000 euro zozketako txartelekin eta beste 780 euro Bidezko Merkataritzako produktuen salmentarekin.

**GAZTETXOAK** > TXATXILIPURDI ELKARTEA ARDURATUKO DA GAZTEGUNEA KUDEATZEAZ

# Gazteguneak asteburuan hasiko du ikasturte berria

Aisialdirako gune horretara joan daitezke 12 eta 15 urte bitarteko herriko neska-mutikoak

**A.I.** > ANTZUOLA

Bihar, zapatua, irekiko ditu berriro ateak Gazteguneak. Errekalde auzoan dago lokala eta aisialdi gune hori zuzenduta dago 12 eta 15 urte bitarteko neska-mutikoendako. Arrasateko Txatxilipurdi elkartea arduratu da gune hori kudeatzeaz azkeneko urteotan eta aurrerantzean ere hala izango da.

Zapatu eta domeketan egongo da zabalik lokala: zapatuetan, 16:00etatik 20:00etara eta 21:00etatik 23:00etara; domeketan, 16:00etatik 21:00etara.

> ERRETIRATUAK

## Kultura Asteko irteeran izena emateko aukera

Urriaren 16tik 19ra ospatuko du Antzuolako Erretiratuen Elkarteak Kultura Astea. Ekitaldi ugari antolatu dituzte egun horietarako, tartean, Errioxara irteera. Hilaren 18an, eguena, izango da hori. Navarreten egingo dute hamarretakoa eta gero joango dira Fuenmayorrera eta hantxe bazkalduko dute. Ondoren, Santo Domingo de la Calzada bisitatuko dute. Izena eman behar da hilaren 9an edo 10ean, 18:00etatik 19:00etara, erretiratuen egoitzan. Prezioa da 25 eurokoa.

> ANELKAR

## 'Garai bateko ezkontza' DVDa salgai jarri dute

Antzuolako jaietarako Anelkar taldeak antolatutako garai bateko ezkontzaren antzezpeneko irudiak DVD baten batu dituzte Anelkar Elkartasun Taldeko kideek eta salgai jarri dituzte, zazpi euroren truke. Itzar liburu-dendan eskura daitezke. Jaietako egubakoitzeko eta domekako irudiak batzen ditu DVDak; baita arreoaren gaineko erakusketako argazkiak ere, musikaz lagunduta. Guztira, 50 ale eman dituzte argitara.

> ARROLA

## Landako urtegira bizikletaz ibiltzera joango dira

Urriaren 14an, domeka, Arrola Mendizale Elkarteak antolatuta, irteera egingo dute Landako (Araba) urtegira. Bizikletaz egingo dute ibilbidea, hango bidegorrian zehar. Izena emateko aukera dago Herri Ikastetxean; baita Arrolaren egoitzan ere, urriaren 9an, martitzena, 19:00etatik 20:00etara. Irteera da egun erdikoa; goizeko zortzietarako egin dute hitzordua, Sagastin.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

bere ustez



Maria Elena Eztenaga

## Asteburu guztietako kontua

Aste bukaera guztietan albiste berbera daukagu egunkarietan. Hainbat zauritu eta hildako errepideetan.

Zergatiak anitz dira, baina ia beti alkohola eta abiadura handiegian gidatzeari botatzen zaizkie istripu horien errua.

Gidatzeko orduan,alkoholaren neurrigabekeriari norberak hartu behar dio neurria, eta autoen abiadurarekin berdin-berdina gertatzen da… Baina une honetara heldutakoan beti berdina bururatzen zait. Gure errepideetan eta autopistetan abiadura helmuga 90-120 kilometro bitartekoa baldin bada zergatik saltzen dizkigute 200 kilometro orduko abiadura eta hortik gorakoa hartzeko ahalmena duten autoak? Zergatik ditugu erosgai halako autoak? Ez al da posible auto egileak behartzea abiadura horietara egokituko diren autoak egitea? Horrela gidatzeko arauak errazago beteko genituzke eta ez genuke edukiko istripuan hildako hainbeste gazte eta heldu.

**"Zergatik ditugu erosgai halako abiadurak hartzeko ahalmena duten autoak?"**

Ez dut uste hori lortzea hain zaila denik. Munduan dauden beste zorigaitz askorendako - globalizazioa, munduaren beroketa, gosea, gerrak…- horrelako irtenbide erraza balego...

((112))
SOS DEIAK



**UMEAK URETAN POZIK** Igerilekuan ume asko ibili ziren jolasean. ARTXIBOA

**IGERILEKUA** > EAJ-EA-K SALATZEN DU SEGURTASUN NEURRIRIK GABE JARRI ZUELA ARALARREK

# EAJ-EA: "Baimenik gabe, arrisku handiak ditu"

Patxi Basauriren taldeak jakin nahi du udan Maala parkean igerilekua jartzeko erabakia non hartu zen eta gastuak nork ordaindu dituen

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Kiroletako batzordean eta osoko bilkuran EAJ-EA koalizioak udan Maala parkean jarritako igerilekuaren gaineko informazioa eskatu du. Kiroletako zinegotzi Rebeka Uberaren erantzuna "herritar batzuek jarri dute" izan da, baina koalizioko kideak ez daude gustura jasotako erantzunarekin.

"Herri txiki batean bizi gara eta gauzak berehala jakiten dira. Aralar taldeko udal ordezkariak eta udal langileak ibili ziren udan igeritokia prestatzen, garbitzen eta betetzen", adierazi du EAJ-EA koalizioak idatzi bidez.

Elgetako koalizioak uste du garrantzitsua dela haurrak zoriontsu egitea, baina hau gaineratu du: "Igeritoki bat ipintzea Osasun Sailaren baimenik gabe eta soroslerik gabe arrisku handiak ditu". Eta koalizioak galdetzen du igeritokia jartzeko erabakia nork hartu zuen eta nork ordaindu dituen gastuak.

Batzordeak indartzeko alkatearen formula hori ote den galdetzen du, azkenik, koalizioak. "Espero dezagun hasierako akats bat izatea".

> BEATIFIKAZIOA

### Elgetako alaba Zenona Arantzabal Erroman beatifikatuko dute

Hilaren 28an, domeka, 498 lagun beatifikatuko dituzte Erroman; tartean, Zenona Arantzabal Barrutia elgetarra.

1878. urteko uztailaren 9an jaio zen Arantzabal Elgetan. Moja sartu zen Adoratzaileen eta Guztiz Santuaren eta Karidadearen Mirabeen erlijio-ordenan.

> IRTEERA ZAPATUAN

### Udalak perretxiko irteera antolatu du zapaturako, 09:30ean

Ume zein gurasoendako antolatu du irteera Udalak, eta 09:30ean abiatuko dira plazatik. Elgeta inguruko basoetan ibiliko dira herriko hiru perretxikozaleren gidaritzapean; Jose Antonio Irazabal izango da horietako bat. Eguerdi aldean, batutako perretxikoak klasifikatu egingo dituzte plazan.

> HAMAR GARAJE SALGAI

### Torrealdean garajea erosteko zabalik dago izenemate epea

Hamar garajeok Torrealdean egin diren babes ofizialeko etxebizitzetako B blokeko sotoetan daude. Udalak jakinarazi du urriaren 31ra arte egongo dela zabalik garajeen zozketan izena emateko epea. Prezioak 10.500 eta 16.000 euro bitartekoak dira, BEZa kanpo. Argibide gehiagorako udaletxera jo behar da.

**KIROL ZERBITZUAK** > ASTEON HASI DIRA JARDUERAK

## Izena emateko bigarren txanda zabaldu dute

Pilates saioak ez du aurrera egin; batuka-funky-tonifikazio saioa osatu gura dute

**L.Z.** > ELGETA

Martxan dira Udaleko Kirol Zerbitzuek antolatutako jarduera gehienak. Pilates saioak ez du aurrera egin, ez baita nahikoa jende apuntatu. "Goizeko zortzietarako proposatzen genuen eta uste dut ordutegia arrakasta eskasaren arrazoietako bat izan dela", azaldu du Kirol teknikari Oskar Carrascalek.

Gainontzeko zerbitzuetan osatu dira taldeak, nahiz eta batuka-funky-tonifikazio taldea oso justu dagoen. Taldea osatze aldera bigarren izenemate txanda irekitzea erabaki dute arduradunek. Txanda hori urriaren 12ra arte egongo da zabalik. Ate irekiko astea ere antolatu dute, jardueraren bat probatu nahi duenak inongo konpromisorik gabe proba dezan.

**ZAZPI JARDUERA MARTXAN**

Eskainitako zerbitzuen artean, sasoian egoteko gimnasiak, tai txi saioek eta psikomotrizitateak izan dute arrakasta handien. Azken horretan, gainera, bi talde osatu dituzte. Guztira zazpi jarduera daude martxan: nagusiendako gimnasia, sasoian egoteko gimnasia, batuka gazteendako, batuka-funky-tonifikazioa, psikomotrizitatea, yoga eta tai txia. Horietan guztietan bost monitore ari dira lanean.




L.Z.

## 'TMEO' aldizkariko azalak ikusgai

*TMEO* aldizkariko azalak jarri dituzte ikusgai hilaren 28ra arte Espaloia Kafe Antzokian. Erakusketan, aldizkari satirikoan argitaratutako 39 azal daude ikusgai, guztiak ere 2006. urtean agertutakoak.

Hogei urteko ibilbidea egin du Gasteizko Ezten Kultur Taldeak bi hilean behin kaleratzen duen *TMEO* aldizkariak.

**KIROLA** > PLATER TIROKETA

# Kurtzeta Gain Elkarteak zapatuan amaitu zuen tiroketa denboraldia

24 tiratzailek hartu zuten parte zapatuko jardunaldian eta lehiaketa 25 plateretara egin zuten

Elkartearen batzarra eta bazkideen arteko afaria ere egin zituzten zapatuan



**PLATER TIROKETA** Jon Nafarratek irabazi zuen zapatuan. GOIENKARIA

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO
Aramaioko Kurtzeta Gain Plater Jaurtiketa taldeak zapatuan itxi zuen plater tiroketako 2006-2007 denboraldia. Urteko azkeneko tirada egin zuten Kurtzetan, eta baita elkartearen batzarra ere. Denboraldia behar den moduan bukatzeko, bazkideen arteko afaria egin zuten gero.

Elkarteko presidente Iñaki Ullibarriaranak kontatutakoaren arabera, 24 tiratzailek parte hartu zuten zapatuko jardunaldian eta bi mailatan banatu zuten lehiaketa: maila gorena edo talde gorria eta ikasten dabiltzanen maila edo talde urdina. 25 plateretara egin zuten proba.

**NOBEDADEAK AURTEN**

Aurten berritasun bat sartu dutela jakinarazi du Ullibarriaranak. Hain zuzen ere, talde urdinari, ikasten dabiltzanei, hiru platereko abantaila eman zioten zapatuko tiradan. Horren helburua da ikasten dabiltzan horiek sarien banaketara iristeko aukera handiagoak izatea eta, modu horretan, euren zaletasuna indartzea. Eta lortu ere lortu zuten helburu hori; izan ere, hiru platereko abantaila horri esker Jon Nafarrate 18 urteko gazteak irabazi zuen zapatuko tirada. Nafarrate da Kurtzeta Gain elkarteko aurtengo errebelazioa eta zapatuan erakutsi zuen ondo hartu duela tiratzaile bikaina izateko bidea. Ullibarriararen esanetan, zapatuko tiradan maila oso handia izan zen, tiratzaile erdiak baino gehiagok 20 platerетik gora bota zituzten-eta.

Kontuak kontu, esandako moduan, Jon Nafarrate izan zen lehena, Enrike Ullibarriarana izan zen bigarrena, Angel Ullibarriarana hirugarrena eta Rafael Aspe laugarrena.

**BATZARRA ETA AFARIA**

Tiradaren osteko batzar orokorrean, berriz, bestelakoen artean datorren urteko egutegia onartu zuten Kurtzeta Gain elkarteko bazkideek. Onartu zuten, besteak beste, 2007-2008 ikasturtean, gutxienez, bost tirada lokal egitea, hau da, elkarteko bazkideendako. Bestetik, erabaki zuten bi tirada egitea Kurtzetan, Euskadi mailakoak edo Araba mailakoak.

Horrez gainera, urteko sariak banatu zituzten zapatuko jardunaldian. Tiratzaile erregularrenei ematen die urteko saria Kurtzeta Gain elkarteak. Eta aurten bi saridun aukeratu dituzte: Jon Nafarrate talde urdinetik eta Iñaki Ullibarriarana talde gorritik. Untzueta jatetxe-erretegiaren laguntzarekin, bina afari opari egingo diete haiei. Urretxuko Etxaniz armategiak emandako opariak ere banatu zituzten zapatuan.

Horrenbestez, Aramaioko Kurtzeta Gain elkarteak bukatutzat ematen du aurtengo denboraldia, martxo ingurura arte.

**AHT** > INKESTA

# Udala auzitegira deitu zuten

Joan den aste bukaeran egindako AHTren inguruko inkesta dela-eta Aramaioko Udala Gasteizko auzitegira deitu zuten astelehenean

**ARRITXU BARRSO**> ARAMAIO
Astelehen goizean Asier Agirre Aramaioko alkateak Gasteizko auzitegian epailearen aurrean deklaratu beharra izan zuen. Barikuan Gasteizko Auzitegiak erabaki zuen AHTren inguruan aste bukaeran egin behar zuten inkesta debekatzea. Hori horrela, galdeketa egin ala ez, astelehenean auzitegira deitu zuen Aramaioko Udala. Alkatearen hitzetan, Udalean ez zuten debeku horren berri izan astelehenera arte.

Agirrek auzitegiko epailearen eta fiskalaren aurrean deklaratu behar izan zuen. "Bilera motza izan da. Galdetu didatena da inkesta egitekotan garen edo ez; hau da, inkesta egin dela jakin ez balute bezala jokatu dute", azaldu du Agirrek. Alkateak inkesta egina zegoela erantzu zien. Hori horrela, fiskalak adierazi zuen inkesta baino gehiago erreferenduma zela hori, eta erreferenduma egiteko Espainiako Estatuari horretarako eskubidea eskatu beharra dagoela. Auzitegiak eginbideak zabaldu zituen eta Udala orain berri gehiagoren zain dago.

**ITZULTZAILERIK EZ**

Agirrek gaztelaniaz defendatu behar izan zuen bere burua. Alkateak gogor salatu du Gasteizko Auzitegi guztian euskarazko itzultzailerik ez egotea. "Sinestezina da. Euskaraz hitz egin nahi banuen beste egun batean joan beharko nukeela esan didate, nik ez daukat nire denbora horretan galtzeko", azaldu digu Agirrek.

**AHT GELDITU**

AHT Gelditu Elkarlana izan da inkestaren bultzatzaileetako bat eta eskerrak eman nahi dizkiete inkesta aurrera eramaten lagundu dieten guztiei, baita iritzia ematera ausartu direnei ere.

> KULTURA

### Udalak antolatutako argazki lehiaketan izena emateko epea zabalik dago hilaren 31ra arte

Parte-hartzaile bakoitzak nahi beste argazki aurkeztu ahal izango ditu. Argazkiak koloretakoak EDO zuri-beltzekoak izan daitezke eta neurria 18x24 zentimetro izango da, gutxienez. Gutunazal batean aurkeztu beharko da argazki bakoitza.

Irabazle nagusiak 200 euroko saria irabaziko du, baina horrez gain, kategoria desberdinak sarituko dira (negua islatzen duen onena, uda islatzen duen onena...). Udalak lehiaketara aurkeztutako argazkiak erabili ahal izango ditu aurrerantzean ateratko diren egutegi edo eskuorrietan, betiere egilearen izena jarriz.

> ZUZENKETA

### Aitor Arana ibilaldiarekin lotutako zuzenketa

Joan den astean, Aitor Aranaren omenezko mendi ibilaldia iragartzeko artikuluan argazki okerra erabili genuen.

Hori horrela, barkamenak eskatu nahi dizkiegu gure okerrak min eragin zien guztioi.

**INTERNET** > BANDA ZABALA

# Wimax teknologiaren bitartez auzo guztiek Interneteko banda zabala izango dute




**EUSKALTEL** Zerbitzuaren berri emateko hitzaldia egin zuten. GOIENKARIA

**ARRITXU BARRUSO**> ARAMAIO
Landa eremuak, askotan, operadoreen jarduera eremuetatik kanpo daude, eta egoera horri bueltा emateko Eusko Jaurlaritzak Konekta Zaitez@Banda Zabala proiektua jarri du martxan. Helburua da banda zabala dentsitate txikiko eremuetara zabaltzea. Kasu honetan, Euskaltel enpresak irabazi du Jaurlaritzak aurkeztutako lehiaketa; beraz, hark kudeatuko du zerbitzua.

Etxean Internet erabili nahi dutenek seinale hargailuak jarri beharko dituzte eraikinaren kanpoaldean; eta bestetik, datuendako eta ahotsarendako ekipoa ipini beharko dute barruan. Kuotei dagokienez, hiru seinale mota kontratatu ahalko dira. 300 kilobitekoak 22 euroko hileko kuota izango du, mega batekoak 39 eurokoa eta bi megakoak 75 eurokoa. Kuota horretan ez dira telefono deiak sartzen; telefono seinalea jarriz gero 14 euro gehiago ordaindu beharko dira. Zerbitzuaren berri emateko Euskaltelek hitzaldia egin zuen eguaztenean.

AISIALDIA > LUDOTEKA

# Astelehenean, urriaren 8an, hasiko dute ikasturtea ludotekan eta liburutegian

Astelehenetik egubakoitzera 16:30etik 18:30era zabalduko dute ludoteka eta bi taldetan sartuko dira umeak; liburutegia ondoren zabalduko dute



**LIBURUTEGIA** Gatzagako ume eta gaztetxoak Garro jauregian dagoen liburutegian, iazko ikasturtean. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA
Astelehenean, hilaren 8an, jarriko ditu abian ludoteka zerbitzua eta liburutegia Gurel guraso elkarteak. Ordutegi aldaketarekin datoz biak, ume eta gazteen beharrei hobeto erantzuteko.

**LUDOTEKAN BI TALDE**
Astelehenetik egubakoitzera bitartean zabalduko dituzte Garro jauregian dauden ludoteka zein liburutegia. Joan zen ikasturtean izan zuten begiraleak jarraituko du Gatzagako umeekin, Alazne Diaz aretxabaletar gazteak. Aurten, baina, guraso elkarteko kideek erabaki dute ordutegia aldatu eta ordu bi eskaintzea ludotekari eta bakarra liburutegiari: "Iaz ordu bi egiten zituzten liburutegian baina gehiegitxo direla uste dugu. Gainera, pentsatu dugu ludoteka hobeto aprobetxatuko dutela bi taldetan banatuta", adierazi du Gureleko presidente den Gurutze Orbegozok. Hala, 16:30etik 17:30era, txikienendako egongo da zabalik eta 17:30etik aurrera nagusiagoendako.

Eta ludotekako zerbitzua bukatutakoan liburutegia zabalduko du Diaz begiraleak.

**LIBURUTEGIAN, IKASTAROAK**
Liburutegia erabiltzen erakutsi gura diete umeei aurten. Liburuak bertan ikusi, irakurri eta erabili bai, baina etxera eroan eta jarritako epean itzultzen ikas dezaten gura dute Gureleko kideek. Nagusienek etxerako lanak egiteko erabiltzen dutela liburutegia adierazi digu Orbegozok: "Edo marrazkiak egiteko", eta beste zerbaitetarako ere badela ikas dezaten gura dute.

Gainera, liburutegian pasatuko duten orduari probetxu handiagoa ateratzeko asmoa agertu du Orbegozok eta hainbat ekitaldi antolatu gura dituzte ikasturtean zehar: "Ikastaroak egitea ume zein gazteekin pentsatu dugu: pintura ikastaroa, argazkigintzaren gainekoa edo sor daitezkeen beste hainbat. Eta lehiaketak ere bai. Begiralearekin adostu behar dugu hori guztia". Hala bada ikasturtea hasteko gogoz izango dira gazteak.

**URTEKO KUOTA**
Gureleko kideek jakinarazi gura dute ludotekako zerbitzua erabiltzeko ez dagoela elkarteko bazkide izan beharrik, nahikoa da ikasturteko kuota ordaintzea. Bestalde, liburutegira edonor joan daiteke zabalik dagoenean, umea izan edo ez.

UDALA > ARAU SUBSIDIARIOAK

# Arau aldaketen proposamenak ondo aztertu gura ditu Udalak

**M.A.** > GATZAGA
Arlaban gaineko plan berezia eta hiri antolamenduko arau aldaketak proposatu zituzten maiatzean aurreko agintaldiko Udaleko kideek. Alegazioak aurkezteko epea ekainean bukatu zen eta laster ekingo dio Udalak arauak berrikusteari.

**HERRITARREN ALEGAZIOAK**
Pare bat alegazio aurkeztu zizkioten herritarrek proiektuari, eta Udalari dagokio orain alegazio horiek aztertu eta erantzuna ematea. Eusebio Villar alkateak ez dauka ahaztuta kontua, ezta gutxiago ere, baina herrian eguneroko sortzen diren arazo eta lantxoek ez diote utzi lehenago heltzen. Gainera, Udalak berak ere zalantza asko ditu maiatzean aurkeztu zuten proiektuaren inguruan: "Proiektua egin zuen Toledo taldeko adituekin elkartu gura dugu gure kezkak azaldu eta erantzun batzuk jasotzeko. Herritarren alegazioak ere aztertuko ditugu orduan. Eta argi eta garbi izan arte proiektuaren nondik norakoak, ez dugu erabakirik hartuko", dio Villar alkateak.

**ALDAKETAK ESKATU**
Gogora dezagun aurreko agintaldiko Udalak Arlaban ingurua –Gure Ametsa, Gaztainuzketa...– antolatu gura zuela, eta horregatik Arlabango plan berezia egitea eskatu ziola Toledo taldeari. Turismoaren alorra dela egokiena bertarako ikusi zuten orduan.

Arlabango antolamendua aprobetxatuta lur hiritar ezinari dagokion arau aldaketa ere egin gura izan zuten. Udalak ondo aztertu gura ditu bi proposamenak, eta, seguru asko, aldaketa batzuk egiteko eskatuko du.

> GIZARTE ZERBITZUAK

## Gizarte laguntzailea martitzenetan egoten da udaletxean

Dagoeneko hasita dago lanean Ainara Gabilondo gizarte laguntzailea. Martitzen goiz guztietan etortzen da Gatzagako udaletxera, eta herritarren kezkei erantzun eta arazoei konponbidea topatzen laguntzea du egiteko. Herritarrek hitzordua egin behar dute aurrez udaletxera deituta, 943 71 47 46.

Debagoieneko hiru herri txikienek, Antzuolak, Elgetak eta Gatzagak, Bideberri mankomunitatea osatu zuten iaz gizarte gaiak bideratzeko. Hala, bi gizarte laguntzaile dabiltza lanean hiru herriotako beharrei erantzunik onena emateko.

> INTERNET

## Arratsaldean egingo dituzte urriko lehen ikastaroak KZgunean

Interneten gaineko hainbat ikastaro izango dituzte aukeran gaur arratsaldean 16 urtetik gorako gatzagarrek: 16:00etatik 18:00etara, hain zuzen. Zerrenda luzea dauka aukeran Aitor Madrid ardurадunak, eta erabiltzaileek aukeratuko dute zein egin: etxebizitza erosten ikasteko, lanpostuen berri izateko, kontsumitzaileen eskubideak zeintzuk diren jakiteko, sinadura eta osasun txartel elektronikoak erabiltzen ikasteko, eta beste batzuk. Guztiak ordu pare batekoak dira.

Ikastaroendako hurrengo hitzorduak hilaren 19a eta 31 dira.

> XAKEA

## Domekan jokatuko dute Arrasate Hiriko laugarren jardunaldia

Gaur Maritxu Kajoi denez, domekan jokatuko dute Arrasate Hiria xake txapelketako laugarren jardunaldia (17:00).

Eta, txapelketa erabat baldintzatuta utz dezakeen norgehiagoka jokatuko dute lehenengo postuan dagoen Fran Miguel aretxabaletarrak eta Alejandro Franco madrildarrak. Orain momentuan puntu erdiko aldea baino ez du Aretxabaletakoak, baina domekan nagusitzen bada, eskura izango du txapelketa.

> PILOTA

## Gipuzkoako Txapelketako hainbat partidu gaur

Eskoriatzan, Bergaran eta Aretxabaletan jokatuko dituzte gaur iluntzean Gipuzkoako Txapelketako hainbat norgehiagoka.

Aretxabaletak Urnieta hartuko du Iturrigorrin (20:00). Eskoriatzako pilotariek bi partidu jokatuko dituzte, Ilunperen eta Oiarperen kontra (19:30). Eta Bergaran lau partidu jokatuko dituzte, 19:30ean hasita; gazteek eta seniorrek jokatuko dute.

> FUTBOLA

## Aloña Mendik Berio hartuko du zapatuan Azkoagainen

Asteburuan Aloñak jokatuko du etxean, Mondra eta Aretxabaleta kanpoan lehiatuko dira-eta. Oñatiko taldeak bigarren postuan dagoen Berio hartuko du bihar, 17:00etan. Azken bi jardunaldietan ligako kontrario gogorrenetakoak izango ditu aurrean Aloñak. Aretxabaletak Anaitasunaren kontra jokatuko du bihar (16:30) eta Trintxerperen zelaira joango da Mondra (16:30).



**ETXEAN INDARTSU** Iturripek izan behar du, aurten ere, Mondragon Unibertsitatekoen gotorleku; etxean izan behar du taldeak indartsu. JOSETXO ARANTZABAL

**SASKIBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Cafes Aitonaren kantxan hasiko du Mondragon Unibertsitateak liga

Iñaki Merinoren mutilek bihar, zapatua, jokatuko dute ligako lehenengo norgehiagoka, 20:00etan Donostian

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Gipuzkoarren arteko derbiarekin hasiko du Mondragon Unibertsitateak aurtengo denboraldia, Cafes Aitonaren kantxan (zapatua, 20:00). MUko entrenatzaile Iñaki Merinok dioen moduan, Donostian emango dute lehenengo urratsa: "Mila kilometroko ibilbidea lehenengo pausoa emanda hasten da. Orain arte taldeak hainbat pauso eman ditu, eta zapatuan, umiltasun eta gogo handiarekin, beste pauso bat ematen saiatuko gara".

Hausnarketa horiek Ointxe! taldearen webgunean egin ditu Arrasateko taldeko entrenatzaile berriak, *www.ointxe.com* helbidean. Eta, taldeak denboraldiaurrean egin duen lanaren gaineko balorazioa ere egin du –urtean zehar zaleok webgune horretan izango duzue taldeko gorabehera guztien berri–.

**SEI ASTE LANEAN**

Abuztuaren 20an hasi ziren MUkoak lanean, inoiz baino lehenago, Euskal Kopa zeukaten-eta aurrean. Orain, denboraldiaurrea ondo prestatuta, lehian hasteko gertu dago taldea: "Aste hauetan taldeak hainbat oztopo gainditu behar izan ditu. Entrenamenduetara jende asko etorri da, eta jokalariek ahalegin handia egin dute hori horrela izan dadin. Gainera, senior eta junior mailetako hamar jokalari izan ditugu gurekin lanean, eta horietako lauk lagunarteko partiduetan parte hartu dute. Dena dela, igarri egin da hainbat taldekide min hartuta egon direla".

**BALORAZIO BAIKORRA**

Entrenatzaile gasteiztarrak orain arte jokatutako lagunarteko partiduen gaineko balorazioa ere egin du webgunean: "Jokatu ditugun zazpi partiduetatik, sei irabazi egin ditugu eta Iraurgiren kontrako norgehiagokan saskiratze bakarragatik galdu genuen.

**KONTRARIO EZAGUNAK**

Bihar hasiko duten ligan Mondragon Unibertsitateak ez du sorpresarik izango, aski ezagunak ditueta kontrarioak. Cafes Aitona, Easo-Atletico eta Goierri Verkol dira Gipuzkoako beste ordezkariak; eta gero datoz Promociones Legarcia eta Valsay Ardoi (Nafarroa), Ocaso Berrio-Otxoa, Tabirako Baque eta La Salle (Bizkaia) eta Baskonia (Araba).

**SASKIBALOIA** > EMAKUMEZKOEN EUSKAL KOPA

## Hondarribia-Irun talde sendoak Irlandesas hartuko du Euskal Kopako finalean

**XABIER URTZELAI > ESKORIATZA**

Domekan jokatuko dute Hondarribia-Irunek eta Irlandesas taldeak Euskal Kopako finala, Intxaurtxuetan. Hainbat kanporaketa gainditu eta gero, Irlandesasek izango du Euskal Herrian emakumezkoen mailan dagoen talde sendoenaren kontra jokatzeko erronka.

Kontuan hartzeko moduko hitzordua da domekakoa, Jon Txakartegik Hondarribia-Iruneko jokalari guztiak ekarri ahal izango ditu-eta Eskoriatzara. Hala, denboraldi-aurrea amaitzear dagoela, Txakartegik taldearen gaineko azken azterketetako bat egin ahal izango du.

**"ALDEA IGARRIKO DA"**

Euskal Kopa Eskoriatzan joka dadin lanean ibili den Javi Corvalek esan digu kategoria ezberdinetako taldeak direnez, alde hori igarri egingo dela: "Pentsatzen dut Hondarribiako entrenatzaileak hainbat proba egingo dituela, jokalari guztiei emango dizkiela minutuak. Seguruenik, lehenengo minutuetan bi taldeak parean ibiliko dira, baina azken laurdenean-edo, Hondarribia-Irunek bosgarren abiadura sartzen duenean, igarri egingo da bi talde horien arteko aldea".

Gogoan izan Hondarribia-Irun taldean jokatzen duela Itziar Mallabiabarrena arrasatearrak.



Hondarribia Euskal Kopa bigarren aldiz irabaztera etorriko da Eskoriatzara. TXINGUDI

ESKUBALOIA

# Bergarak eta Ford Mugarrik lehenengo derbia jokatuko dute

Euskadiko txapelketan lehenengo aldiz neurtuko dituzte indarrak bi talde horiek; domeka goizean izango da norgehiagoka (10:00)



**BI URTE DELA** Iruditan Arrasatek eta Bergarak jokatu zuten azken derbia. ARTXIBOA

**X.U.** > ARRASATE

Debagoieneko maila goreneko derbia izateko, ezin da esan ordu aproposenean jokatuko dutenik Ford Mugarri Arrasatek eta Bergarak. Aukeran, goiz samar jarri dute norgehiagoka hori, baina seguruenik, gaurko Maritxu Kajoik eta domekako Kilometroak jaiak ez dute aukera handiegirik eman. Ordutegi kontuak alde batera utzita, poztekoa da bi talde horiek berriro ere aurrez aurre ikustea, baina oraingoan Euskadiko txapelketan. Arrasatekoendako bigarren denboraldia da; Bergarak, berriz, hasiberri etiketa darama bizkarrean.

**ARRASATEKOEK ABANTAILA**

Lehenengo derbi horretan, Bernardo Balerdiren eta Fertxuren mutilek abantaila daukate. Batetik, Arrasatek etxean jokatzen duelako eta, bestetik, taldea dagoeneko kategoria horretara egina dagoelako. Bergarak, berriz, pazientzia izan beharko du lehenengo jardunaldietan, kategoria berrira egokitzen diren bitartean jasoko dituzten porrotengatik behar dena baino gehiago larritu barik.

Hori horrela, Arrasatekoek Basauriren kantxan puntu baliotsua eskuratuta jokatuko dute domekako derbia; garrantzitsua zen lehenengo puntua lehenbailehen eskuratzea, eta kategoria horretan etxetik kanpora irabazten dena saria da.

Bergarak, berriz, joan den astean galdu egin zuen Egiaren kontra. Liga berean egonda ere, talde hori ez zen Bergararen kontrario. Atzealdean ibiliko direnak mendean hartzea da mahoneroen erronka.

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Lehenengo maila**
Reala-Albacete
Zapatua. 18:30. Anoeta.

**Kadeteen Euskal Liga**
Aretxabaleta-Arenas
Domeka. 12:00. Ibarra.

**Preferente maila**
Aloña Mendi-Berio
Zapatua. 17:00. Azkoagain.

Anaitasuna-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Txerloia.

Trintxerpe-Mondra
Zapatua. 16:30. Pasai Antxo.

**Lehen erregionala**
Bergara-Mutriku
Zapatua. 17:00. Agorrosin.

Antzuola-Lagun Onak
Zapatua. 16:30. Alegia.

**Bigarren erregionala**
BTLS-Anaitasuna
Zapatua. 11:30. Ipintza.

Mondra-Gazteak
Domeka. 16:00. Mojategi.

Aretxabaleta-Elgeta
Domeka. 17:30. Ibarra.

**Ohorezko mailako gazteak.**
Mondra-Bergara
Domeka. 10:00. Mojategi.

Urola-Aloña Mendi
Zapatua. 10:00. Argixao.

Aretxabaleta-Orioko
Domeka. 15:30. Ibarra.

**Lehenengo mailako gazteak**
Aretx.Arizmendi B-Ikasberri
Zapatua. 17:00. Ibarra.

**Kadeteen ohorezko maila**
Aloña Mendi-Elgoibar
Zapatua. 10:30. Ibarra.

Bergara-Beasain
Zapatua. 15:30. Ipintza.

**Kadeteak**
Eibartarrak-Arrasate
Domeka. 16:00. Unbe.

**Kadete txiki**
Arrasate-Urola
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**Ohorezko mailako infantilak**
Lagun Onak-Arrasate
Zapatua. 11:15. Azpeitia.

Aretxab. Arizmen-Bergara
Zapatua. 11:00. Ibarra.

**Lehen mailako infantilak**
Ilintxa-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Legazpi.

**Infantil txikien maila**
Arrasate-Aretx.Arizmendi B
Zapatua. 11:30. Mojategi.

**Emakumezkoen Liga**
Ordizia-Bergara
Zapatua. 15:30. Altamira.

Arizmendi-Mondra
Zapatua. 16:00. Almen.

Lazkao-BTLS
Zapatua. 16:00. Lazkao.

Elgoibar-Arizmendi
Zapatua. 15:00. Mintxeta.

**Emakumezkoak F8 kadeteak**
Ordizia-Bergara
Zapatua. 11:45. Altamira.

**Emakumezkoak F11 kadeteak**
Eibartarrak-Arizmendi
Zapatua. 17:30. Unbe.

**SASKIBALOIA**

**Lehenengo maila**
Cafes Aitona-MU
Zapatua. 20:00. Donostia.

**Emakumezkoen Euskal Ligako finala**
Irlandesas-Hondarribia Irun
Domeka. 19:00. Eskoriatza.

**Seniorrak gizonezkoak**
Candy BKE-Alde zaharra
Zapatua. 16:00. Bergara.

Mondragon Unib.-Ordizia
Domeka. 12:00. Musakola.

**Junior gizonezkoak**
Bergara-Krafft Atletico SS
Zapatua. 11:00. Mariaren L.

**Kadete gizonezkoak**
Mondragon Unib.-Caldereria
Zapatua. 16:00. Iturripe.

**Kadete emakumezkoak**
Eskoriatza-Bera Bera
Zapatua. 16:00. Intxaurtxue.

**ARETO FUTBOLA**

**Euskal Liga**
La Bellota-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Legazpia.

**Lehenengo maila**
EHU-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Donostia.

**Gazteak**
Aloña Mendi-Azpeitiko
Zapatua. 10:00. Zubikoa.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko Txapelketa**
Ford Mugarri-Bergara
Domeka. 10:00. Iturripe.

**Gazteak, gizonezkoak**
Arrasate-Egia Servi Chap
Domeka. 11:30. Iturripe.

**XAKEA**

**Arrasate Hiria Txapelketa**
Laugarren jardunaldia.
Domeka. 17:00. Altamiran.
*Maritxu Kajoi jaiarengatik atzeratu dute domekara.

**PILOTA**

**Gipuzkoako Txapelketako norgehiagokak**
**Gaur. 19:30. Bergara:**
Bergara-Aurrera Saiaz
Bergara-Burumendi
Bergara-Urnieta
Bergara-Aretxabaleta
**Gaur. 19:30. Eskoriatza:**
Eskoriatza-Ilunpe
Eskoriatza-Oiarpe
**Gaur.20:00. Aretxabaleta:**
Aretxabaleta-Urnieta



Elgeta-Piel
Udazken eta neguko moda
Domingo Iturbe 8
ELGETA
Tel.: 943 76 81 12
Martitzenetik zapatura:
10:30-13:00 eta 17:00-20:00.
Domeketan:
11:00-13:30.
Astelehenetan itxita.

# IEFPS Aretxabaleta GLHBI

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotutako Etengabeko Formakuntzako Ikastaroak**
**LANEAN ARI DIREN LANGILEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK (%100-a subentzionatuta)**

| Ikastaroak | Orduak | Aurreikusitako datak |
|---|---|---|
| **FABRIKAZIO ELEKTROMEKANIKOA ( 2. maila)** | | |
| Modulua : Fabrikazio mekanikoko makinen prestaketa eta programazioa (275 ordu) | | |
| CNC tornuaren prestaketa eta programazioa | 40 | 2007 Azaroa |
| CNC fresatzeko makinaren prestaketa eta programazioa | 46 | 2008 Otsaila |
| Modulua : Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa (300 ordu) | | |
| CNC tornoko mekanizazioa | 50 | 2008 Urtarrila |
| Modulua : Muntatze eta mantentze mekanikoa (160 ordu) | | |
| Krokisak | 20 | 2007 Urria |
| Makinen egiaztapena | 20 | 2007 Urria |
| Mantentze mekanikoa | 60 | 2007 Azaroa |
| Mantentze pneumatikoa | 30 | 2008 Urtarrila |
| Mantentze hidraulikoa | 30 | 2008 Martxoa |
| Moduloa : Automatismo elektrikoak , pneumatikoak eta hidraulikoak (185 ordu) | | |
| Automatismo pneumatikoak eta elektropneumatikoak | 40 | 2008 Urtarrila |
| Automatismo hidraulikoak | 36 | 2008 Otsaila |
| Automatismo elektrohidraulikoak | 30 | 2008 Apirila |
| Automatismo elektriko kableatuak | 45 | 2008 Apirila |
| Automatismo programagarriak | 40 | 2008 Maiatza |
| **METAL - ERAIKUNTZAK ( 2. maila)** | | |
| Modulua : Giro naturaleko soldadura ( 310 ordu) | | |
| Elektrodo estali bidezko angeluko soldadura | 80 | 2007 Urria |
| Elektrodo estali bidezko topekako soldadura | 80 | 2007 Azaroa |
| Elektrodo estali bidezko beste posizio batzuetako soldadura | 80 | 2008 Urtarrila |
| Modulua : Giro babestuko soldadura (215 ordu) | | |
| Posizio horizontaleko MIG / MAG soldadura | 50 | 2008 Otsaila |
| Beste posizio batzuetako MIG / MAG soldadura | 50 | 2008 Martxoa |
| Posizio horizontaleko TIG soldadura | 50 | 2008 Apirila |
| Beste posizio batzuetako TIG soldadura | 50 | 2008 Maiatza |

**Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailak % 100-ean lagundutako ikastaroak**
**LANGABETUEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK**

| | | |
|---|---|---|
| Telebista eta irrati antenen instalatzailea | 310 | Azaroa-Martxoa |
| Mekanizatua | 500 | Abendua-Ekaina |
| Geriatriako laguntzailea | 360 | Otsaila-Ekaina |

**Ikastaroak arratsaldeko 16:00 eta 21:00 artean emango dira • Informazio gehiago eta inskripzioak IEFPS Aretxabaleta GLHBI , Etxebarri auzoa, z/g Tfn.:943-7979 00**
**Web orrialdea: www.iaretxabaleta.com**

IQNet AENOR ER Empresa Registrada Euskadi 2006

Debagoieneko
# PROFESIONAL LIBERALAK

## ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

## AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

## ARKITEKTO TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

## EKONOMISTAK

**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA**
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

## INGURUMEN TEKNIKARIA

**ROSA AGIRREBEÑA BERASATEGI**
BERGARA / San Antonio 15
T: 627 85 20 80
raguirrebe@euskalnet.net

## GESTORIAK

**EGUREN**
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

## PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.



> HUHEZI
Euskal Herriko Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa > 51



> MIXEL DUCAU
musikaria 'Ilunpean' saioan izango da gaur 22:15ean > 52

> ANDOITZ BARRIOLA
Oñatiarra da eta Araotz auzoan duen baserrian eztia egiten du; urtean 100 kilo ezti ateratzen ditu eta 2005ean Euskal Herriko ezti onenaren saria jaso zuen > 50



# Latzen taldearen 'infernuko atea'

## Zortzi urteren ostean, taula gainera itzuliko da Oñatiko taldea

1993an sortu eta 1999an desegin zen Latzen taldea, arrazoi pertsonalengatik

Zuzeneko DVDa argitaratuko dute bira bukatutakoan

Itzulera biraren gaineko zehaztasunak jasotzeko hitzordua egin dugu taldearekin



**AITOR** ahotsa eta gitarra — **JOXE MARI** baxua — **IKER** gitarra — **GORKA** bateria

**LATZEN** Taldeari agur ofiziala emango dion Infernuko Ateetan Tour bira aurkeztu berri dute. JESSICA DEL CAMPO

AITZIBER ARANBURUZABALA > OÑATI

**Zerk bultzatu zaituzte zortzi urteren ostean itzultzera?**

Taldearen erabakia izan da. Aspalditik genuen itzultzeko gogoa. Hasieran bromatan hasi ginen, baina gero serioago heldu genion gaiari. Taldean hausnartu eta gero, asmoa aurrera eramateko lagunen bila hasi ginen.

**Agertokietara itzuliko zarete, baina, era berean, taldearen agurra izango da.**

Bai, hori da. Aurrekoan egin ez genuen moduan, mimoz landutako amaiera eman nahi diogu taldeari. Bira bat besterik ez da izango, gero taldekide bakoitza bere proiektuetara itzuliko da. Birarako aukeratu dugun izenarekin ere hori adierazi nahi izan dugu, infernurantz,hau da, taldearen bukaerarantz goazela.

**Zertan datza Infernuko Ateetan Tour?**

Mimoz prestatutako bira da. 11 kontzertu ditugu lotuta, baina baliteke besteren bat oraindik lotzea. Euskal Herrian izango dira guztiak. Kontzertu bereziak izango dira; ondo zaindutako argi eta eszenografia muntaia izango dute. Gaztetxeetan izango dira lehenengoak eta areto eta jaialdietan gainontzekoak.

**Kontzertuak eskaintzeaz gain, zuzeneko DVDa ere kaleratzeko asmoa duzue.**

Bai, bira amaitutakoan kalean izatea nahiko genuke. Orain, diskoetxeekin borrokan ari gara. Oso zaila da, egia esan, baina nola edo hala aterako dugu. Besterik ez bada, gure poltsikotik! Kontzertu batean grabatuko dugu. Zeinetan ez dugu zehaztu oraindik, baina areto edo jaialdi handietako batean izango da.

**Bi disko dituzue; izango da hirugarrenik?**

Diskoa baino gehiago, zuzeneko grabaketa bat eskuratzeko bidea izango da. Bitxia izango da; izan ere, emanaldia bukatu orduko, kontzertuan izan den guztiak grabaketa eskuratzeko bidea izango du. Aurrerago zehaztuko dugu zeinetan.

> "Aurrekoan egin ez genuen moduan, birarekin merezitako agurra eman nahi diogu taldeari"

**Kantu berririk izango da?**

Ez. Lehengoak dira, kantu batek edo bestek moldaketaren bat duen arren.

**Aurkezpena martitzenean izan zen, Donostian. Nola joan zen?**

Gustura gaude, komunikabideen partetik harrera ona izan zuelako.

**Komunikabideak bakarrik ez, jarraitzaile bat edo beste ere hurbildu zen zuengana.**

[Barreak]. Bai. Aurkezpena bukatutakoan, Gasteizko bi neska etorri zitzaizkigun itzulerarengatik eskerrak ematera. Lehenagoko jarraitzaileak ziren eta Riezutik Getxoraino jarraituko gintuztela agindu ziguten.



> **HUHEZI**
Euskal Herriko Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa > **51**



> **MIXEL DUCAU**
musikaria 'Ilunpean' saioan izango da gaur 22:15ean > **52**

> **ANDOITZ BARRIOLA**
Oñatiarra da eta Araotz auzoan duen baserrian eztia egiten du; urtean 100 kilo ezti ateratzen ditu eta 2005ean Euskal Herriko ezti onenaren saria jaso zuen > **50**



# Latzen taldearen 'infernuko atea'

## Zortzi urteren ostean, taula gainera itzuliko da Oñatiko taldea

1993an sortu eta 1999an desegin zen Latzen taldea, arrazoi pertsonalengatik

Zuzeneko DVDa argitaratuko dute bira bukatutakoan

Itzulera biraren gaineko zehaztasunak jasotzeko hitzordua egin dugu taldearekin



**AITOR** ahotsa eta gitarra | **JOXE MARI** baxua | **IKER** gitarra | **GORKA** bateria

**LATZEN** Taldeari agur ofiziala emango dion Infernuko Ateetan Tour bira aurkeztu berri dute. JESSICA DEL CAMPO

**Zerk bultzatu zaituzte zortzi urteren ostean itzultzera?**

Taldearen erabakia izan da. Aspalditik genuen itzultzeko gogoa. Hasieran bromatan hasi ginen, baina gero serioago heldu genion gaiari. Taldean hausnartu eta gero, asmoa aurrera eramateko lagunen bila hasi ginen.

**Agertokietara itzuliko zarete, baina, era berean, taldearen agurra izango da.**

Bai, hori da. Aurrekoan egin ez genuen moduan, mimoz landutako amaiera eman nahi diogu taldeari. Bira bat besterik ez da izango, gero taldekide bakoitza bere proiektuetara itzuliko da. Birarako aukeratu dugun izenarekin ere hori adierazi nahi izan dugu, infernurantz,hau da, taldearen bukaerarantz goazela.

**Zertan datza Infernuko Ateetan Tour?**

Mimoz prestatutako bira da. 11 kontzertu ditugu lotuta, baina baliteke besteren bat oraindik lotzea. Euskal Herrian izango dira guztiak. Kontzertu bereziak izango dira; ondo zaindutako argi eta eszenografia muntaia izango dute. Gaztetxeetan izango dira lehenengoak eta areto eta jaialdietan gainontzekoak.

**Kontzertuak eskaintzeaz gain, zuzeneko DVDa ere kaleratzeko asmoa duzue.**

Bai, bira amaitutakoan kalean izatea nahiko genuke. Orain, diskoetxeekin borrokan ari gara. Oso zaila da, egia esan, baina nola edo hala aterako dugu. Besterik ez bada, gure poltsikotik! Kontzertu batean grabatuko dugu. Zeinetan ez dugu zehaztu oraindik, baina areto edo jaialdi handietako batean izango da.

**Bi disko dituzue; izango da hirugarrenik?**

Diskoa baino gehiago, zuzeneko grabaketa bat eskuratzeko bidea izango da. Bitxia izango da; izan ere, emanaldia bukatu orduko, kontzertuan izan den guztiak grabaketa eskuratzeko bidea izango du. Aurrerago zehaztuko dugu zeinetan.

> "Aurrekoan egin ez genuen moduan, birarekin merezitako agurra eman nahi diogu taldeari"

**Kantu berririk izango da?**

Ez. Lehengoak dira, kantu batek edo bestek moldaketaren bat duen arren.

**Aurkezpena martitzenean izan zen, Donostian. Nola joan zen?**

Gustura gaude, komunikabideen partetik harrera ona izan zuelako.

**Komunikabideak bakarrik ez, jarraitzaile bat edo beste ere hurbildu zen zuengana.**

[Barreak]. Bai. Aurkezpena bukatutakoan, Gasteizko bi neska etorri zitzaizkigun itzuleraren gatik eskerrak ematera. Lehenagoko jarraitzaileak ziren eta Riezutik Getxoraino jarraituko gintuztela agindu ziguten.

# Latzen taldearen 'infernuko atea'

(43. orrialdetik dator)

**Jarraitzaileak aipatu ditugula-eta, ze ikusle mota duzue buruan?**

Ikusleria zabala izango dela uste dugu. Kontuan izanda gure belaunaldiko jendea espero dugula batetik, lehenagoko musika gogoratu gure duena, hain zuzen ere; bestetik, diskoetatik ezagutzen gaituzten gazteek ere sarritan galdetu digute inoiz jo behar genuen kontzerturik. Beraz, denetik espero dugu.

**Taldearen azken etapan moduan, Haritz Harreguy izango duzue soinu teknikari.**

Bai. Sekulako sorpresa hartu zuen biraren berri eman genionean. Guretako luxua da Haritzen mailako teknikari bat izatea. Guk oso harro esaten dugu beti Latzen izan zela Haritzen lehen zuzeneko taldea. Ondoren, Berri Txarrak, SA eta Barricada taldeekin izan da.

**Lantaldean, baina, jende gehiagok parte hartzen du.**

Luxuzko taldea dugu: Haritz Harreguy soinu teknikaria, Roger Irigoien argi teknikari lanetan, diseinu lanetan Joseba Ponce eta *management* aldetik Txintxarrikoak ditugu.

**Webgunea ere abian jarri duzue: *www.latzen.info*.**

Sarean mundu paraleloa dagoela badakigu; horregatik, guk ere leku bat eduki nahi izan dugu. Biraren gaineko informazioa eskuratzeko bidea izango da eta baita taldearen gaineko beste kontu batzuk ere: biografia, argazkiak...

**Birak irauten duen bitartean, zer gertatuko da taldekideen gainontzeko proiektuekin?**

Une eta Potemkin taldeek geldialdia izango dute, taldekideen oniritziarekin, noski. Kalterik ez egiteko, talde biei ondo zegokien momentua aukeratu dugu.

**Hilabeteak isilean lanean ibilita, deseatzen egongo zarete taula gainera igotzeko.**

Bai, horixe! Orain arte negoziazio lanak eta horrelakoak egin behar izan ditugu; eta guk disfrutatu, musika egiten disfrutatzen dugu.

## INFERNUKO ATEETAN TOUR

**> RIEZU**
Urriak 12, gaztetxean.

**> LAUDIO**
Urriak 20, gaztetxean.

**> ONDARRU**
Urriak 26, gaztetxean.

**> TOLOSA**
Urriak 26, Bonberenean.

**> IRURTZUN**
Azaroak 3, Pikurock jaialdian.

**> USURBIL**
Azaroak 17, Ikasle Gaua jaialdian.

**> BILBO**
Azaroak 22 eta 23, Kafe Antzokian.

**> GASTEIZ**
Abenduak 15, Helldorado aretoan.

**> GERNIKA**
Urtarrilak 5, Astra aretoan.

**> OÑATI**
Otsailak 2, kiroldegian.

**> GETXO**
Apirilak 5, Portu Zaharrean.

Horiez gain, beste kontzerturik ere izango dela azaldu du taldeak.



AITOR PEROSTERENA

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA
EXCELENCIA EUROPEA
AENOR Empresa Registrada ER-0528/1998
IQNet
INVESTOR IN PEOPLE

**AKTIBOAN DAUDEN LANGILEENTZAT PRESTAKUNTZA**

**IKASTAROAK %100 DIRUZ LAGUNDUTA**

Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotzen zaion katalogo modularra.

**FABRIKAZIO MEKANIKO ARLOA**

| | |
|---|---|
| Tornu konbentzionaleko mekanizazioa | 80 or. |
| Fresatzeko makina konbentzionaleko mekanizazioa | 80 or. |
| Z.K.K. tornuan programazioa. FAGOR 8055 | 40 or. |
| Z.K.K. tornuan programazioa. FANUC | 40 or. |
| Z.K.K fresagailuan programazioa. FAGOR | 46 or. |
| Z.K.K fresagailuan programazioa. HEINDENHAIN | 46 or. |
| Z.K.K tornuan programazioa eta exekuzioa. FAGOR | 40 or. |
| Z.K.K fresagailu programazio eta exekuzioa. FAGOR | 46 or. |
| CNC sarpen bidezko elektrohigaduraren prestaketa eta programazioa. | 30 or. |
| CNC hari bidezko elektrohigiduraren prestaketa eta programazioa | 30 or. |
| Abiadura handiko mekanizatua | 50 or. |
| CAD. UNIGRAPHICS (NX) | 30 or. |
| CAM. UNIGRAPHICS (NX) | 20 or. |
| Mekanika diseinua. 3D Modelaketa. Modelatu eta Planoak. SOLID WORKS | 30 or. |
| Mekanika diseinua. 3D Multzoak. SOLID WORKS | 30 or. |
| Marrazketa 2D irudikapen grafikoa. (AUTOCAD) | 40 or. |
| Planoen irakurketa | 50 or. |
| Saiakuntza Suntsitzaileak eta ez Suntsitzaileak | 40 or. |
| Elektrodo eta erdiautomatikorekin Soldadura | 55 or. |
| Lan arriskuen prebentzioa. Oinarrizko maila | 30 or. |
| Tratamendu Termikoak eta Metalografia | 60 or. |
| Egiaztapen dimentsionala | 30 or. |
| Egiaztapen tridimensionala. COSMOS | 40 or. |
| Automatismo hidraulikoak | 40 or. |
| Zubi-Garabi erabiltzea | 15 or. |
| Jasoketa eskorga | 15 or. |
| Hotzeko estanpazio diseinua | 20 or. |

**ELEKTRIZITATE ARLOA**

| | |
|---|---|
| Oinarrizko Automatismo Programarriak. SIEMENS STEP7-300 | 35 or. |
| Automatismo Programarriak Aurreratuak. SIEMENS STEP7-300 | 40 or. |
| Muntaia Domotikoak. I. Maila. Sistema zentralizatuak | 40 or. |
| Muntaia Domotikoak. II. Maila deszentralizatuak.Bus EIB | 60 or. |
| Automatismo Elektroteknikoak | 40 or. |
| Etxebizitzetako instalazio elektrikoak | 60 or. |
| Etxebizitzetako eta eraikinetako instalazio bereziak | 150 or. |
| PLCen programazioa | 60 or. |
| Baimendutako instalatzaile karneta ateratzera zuzendua Esperientziarik gabe. | 100 or. |

**ADMINISTRARITZA eta INFORMATIKA ARLOA**

| | |
|---|---|
| Informatika-aplikazioak administrazio arloan (Windows, Word, Excel, e Interneta) | 80 or. |
| Dokumentuen informatika-elaborazioaren kudeaketa (Word-Excel-Access, aurreratuta) | 75 or. |
| Nominak eta Gizarte Segurantza | 60 or. |

Ibargarai 1 • 20570 Bergara • Tel.: 943 76 70 49 • Faxa: 943 76 38 41 • email: imaltuna@sarenet.es

EUROPAR BATASUNA
Europar fondo soziala
EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Berria!!**
Autokarabanak alokairuan.
**6 pertsonentzako McLouise Autokarabana**

**Denboraldi Altuan:**
**30 €**/eguneko
eta pertsonako (**180€**)

**Denboraldi Baxuan:**
**20€**/eguneko
eta pertsonako (**120€**)

Arrasate Bidaiak
BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA
marsans
Kontzeziño Kalea 12 - ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 - Faxa.: 943 79 74 45
Posta-e: d4051@marsans.es

KULTURA > GIPUZKOAKO BERTSO TXAPELKETAKO KANPORAKETAK

# Bihar izango da bertso kanporaketa Elgetan

## Lau kanporaketa saio jokatuko dira asteburuan Gipuzkoako bertsolari txapelketaren barruan; horietako bat Elgetako Kafe Antzokian



BERTSO SAIOA Joan zen zapatuko Arrasateko kanporaketa. GOIENKARIA

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

Joan den zapatuan jokatu ziren Gipuzkoako bertsolari txapelketako bigarren kanporaketa saioak eta horietako bat Arrasateko Kulturaten egin zen. Bertan izan ziren, besteak beste, Aitor Sarriegi eta Ainhoa Agirreazaldegi elgetarra. Lehenak hurrengo faserako txartela eskuratu zuen eta debagoiendarrak, berriz, hirugarren postua.

### HURRENGO KANPORAKETAK

Bihar bertan beste lau kanporaketa saio jokatuko dira, Ataunen, Elgetan, Errenterian eta Getarian. Getarian egingo den kanporaketa Iturzaeta herri eskolako antzokian izango da,bihar, arratsaldeko seietan hasita, eta bertan izango da lehian Jokin Labaien arrasatearra. Aurkari izango ditu Joxe Joakin Aizpurua, Oier Aizpurua, Bixente Gorostidi, Aitor Urbieta eta Andoni Otamendi. Elgetako kanporaketa saioa, berriz, Espaloia Kafe Antzokian egingo dute, esan bezala bihar, 18:00etan hori ere. Han ere beste debagoiendar bat egongo da: Eñaut Uriarte bergararra da hura, eta taula gainean izango ditu aurrez aurre Egoitz Alkorta, Xabi Astigarraga, Nahikari Gabilondo, Manu Goioaga eta Alaia Martin.

IKASTAROA > IDAZLE ESKOLA

# Ikasturtea hastear dago UNEDeko idazle eskolan

## Ikastaroan izena emateko epea datorren urriaren 11n amaituko da

**M.A** > ARRASATE

Andu Lertxundi, Fernando Morillo, Edorta Jimenez, Aingeru Epaltza, Itxaro Borda, Felipe Juaristi… Izen ezagunak eta estilo askotarikoak dira ikasturte berriari begira Bergarako UNEDen dagoen idazle eskolan irakasle eta hizlari lanetan jardungo duten euskal idazleak. Bosgarren ikasturtea urriko hirugarren astetik aurrera izango da.

Ikastaroei dagokienez bi aukera daude: batetik, graduondokoa, bi ikasturtetan zehar 300 ordu hartzen dituena; eta bestetik, mintegiak, edozeinentzat irekiak direnak.

Tere Irastortza idazlea eskolako irakaslea da, eta hark azaldu du ikastaroen helburua: "Idazle eskola da idazten ikasteko eskola bat. Irakurtzea ere beharrezkoa den arren, bakoitzaren sorbideak eta norberak idazten duena zuzentzen ikasteko eskola da. Ikasleen testuetatik abiatu eta landutako generoaren araberako zuzenketak egiten dira".

Ikasleek ahalik eta lanik praktikoenak egitea dute helburu; hau da, idatzi ahala, irakurtzeko gogoa pizten duten lanak egitea. Hori dela-eta, ebaluazio sistema ere berezia da. Sistema horretan sartzen da iaztik martxan dagoen *www.idazten.com* webgunea. Han, ikasleek egindako lanak argitaratzen dituzte, edozeinen eskura ipinita; hori horrela, ikasleen lanak jendaurrean erakusten dituzte.

Ikasturte bakoitzeko 10-15 ikasle biltzen dira; horien artean, Karmele Igartua aretxabaletarra dago. Lanbidez irakaslea da, eta eskolan gustura ibili dela azaldu du, askotan barruan dagoena kanporatzea zaila egin bazaio ere. Bi urte horietan ikasitakoa baliagarria izan zaiola aitortu du.

### IZENEMATE EPEA

Idazle eskolan izena emateko epea urriaren 11ra arte dago zabalik eta bi helbidetan dago aukera: *arse@asmoz.org* eta *idazleskola@euskalnet.net*. Baldintza bakarra da gutxienez diplomadun titulua izatea.

**22.650** €-tik aurrera, Honda Accord Sport-eko hamabi aukera hauetatik, hamabi aukeratu.
**0** km-dun unitate mugatuak.

HONDA
The Power of Dreams




5 urteko bermea

Salneurri gomendatua Penintsulan eta Balear uharteetan Accord 2.0 Sport autoarendako. BEZ, garraioa, matrikulazio zerga eta promozio kanpainak barne. *5 urteko bermea (3+2) kilometraje muga barik, Hondaren kontratu-baldintzen arabera; horiek kontsulta ditzakezu Honda autoak saltzen dituzten Penintsulako eta Balearretako kontzesionario ofizialetan. Executive irudi akabera. Accord diesel edo gasolina gama, 140 ZPtik 190 ZPra. Kontsumo mistoa (l/100 km): 5,5-9,4. CO2 emisioak (g/100): 145-223.

ACCORD




**Tecnocar Guipuzcoa SL**

Peña y Goñi kalea 12-14. Tel.: 943 32 31 55*. **DONOSTIA**. GIPUZKOA.

Araba etorbidea z/g. Tel.: 943 79 22 67*. **ARRASATE**. GIPUZKOA.

*Jarri gurekin harremanetan informazio gehiago jasotzeko eta autoak probatzeko*

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

**Bergara:**
- Zubiaurre 67 m². Berritua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Martoko 92 m². Prezio ona.
- Osintxu 80 m². Berritua.
- Angiozar. Bi solairu. Berritzeko.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Iraburu 84 m². Terrazarekin.
- Zubieta 60 m². Prezio ona.
- Masterreka 92 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 70 m². Berritua.
- Zabalotegi 70 m². Prezio oso ona.

**Antzuola:**
- Buztinzuri 76 m². Prezio ona.
- Aiherra 123 m². Duplexa.

**Elgeta:**
- San Roke 90 m². Berritua.
- Salbador 90 m². Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- Simon Arrieta, 88 m², erdialdean.
- San Pedro, 72m², ondo
- Masterreka, 90m², ondo
- Ibargarai, 80m², ondo
- Artekale, 70m², oso ondo
- Ortuibar, 100m², ia berria
- Ibarra, 130m², aukera ona
- Zubieta, 70m², ondo
- Matxiategi, 80m², ondo
- Bidekurutzeta, 200m²
- Iparragirre, 195m²
- Aranerreka, 87m²,ondo
- Bidekurutzeta, duplex, 105 m² berritua
- Masterrekan etxebizitzak, 3 logelakoak eta duplexak.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83m², berria

**ANTZUOLA**
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01** sailkatuak@goiena.com

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.**
**PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ARETXABALETA**

Sukaldaria behar da goizez edo arratsaldez lan egiteko.
675 70 82 36

**OÑATI**

KOMA, HIZKUNTZA ZERBITZUAK INGELESEKO IRAKASLEAK BEHAR DITU. Bidali zure CV ondorengo e-postara: profesores@komalingua.com edo Olakua 7, behea, 20560 OÑATI helbidera.

**ESKORIATZA**

Taberna baten lan egiteko (16:00etatik 21:30etara) pertsona bat behar da.
687 07 71 88

**BERGARA**

Taberna errentan ematen da.
943 76 54 75

**DEBAGOIENA**

Jatetxe baten zerbitzaria behar da aste bukaeratarako.
690 85 52 25

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** Etxebizitza salgai, Otalora 2, azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Arrasate.** Apartamentua prezio eta egoera ezin hobean salgai. 50 m2 gehi atikoa, jantzia. Terraza. Guztiz jantzia. 687 83 97 37.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Grupo San Juanen. 60 m2. Igogailua, ganbara eta sotoa. Azkeneko solairua. 619 25 46 69.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. San Andresen. 57 m2. Guztiz berritua. Bi logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Kanpoaldera begira. Igogailu eta sotoarekin. 620 15 12 12.

**Arrasate.** Gorostiza auzoan (Malvinak). 77 m2. Guztiz berrituta. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldea, patio ingelesa, sotoa eta garajea. 607 72 75 63.

**Arrasate.** Grupo San Juanen etxebizitza salgai. 60 m2, bi logela, komuna, sukaldea eta egongela. Berriztatuta, altzariekin eta bizitzera sartzeko moduan. Ganbara, sotoa eta igogailua. 600 90 76 73 edo 635 71 93 00.

**Arrasate.** Zigarrolan etxea salgai. Beheko solairua, 48 m2. Berrituta. 200.000 euro. 665 73 25 74.

**Arrasate.** Zigarrolan etxebizitza salgai. 53 m2. 3 logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Altzariekin. Guztiz berritua eta oso egoera onean. Deitu telefono honetra: 615 75 96 36.

**Bergara.** Duplex egindako etxebizitza, 2001ekoa. 125 m2. Altzaririk gabe, sukalde hornitua. Bi logela (beste bi egiteko aukera), jangela handia, bi bainugela, terraza, bi balkoi, gas naturala, igogailua, antena parabolikoa. Garaje plaza itxia (19 m2) aukeran. Zubiaurre kalean. Prezio ona. 699 49 14 14.

**Bergara.** Erdialdean. 57 metro koadro. Igogailua eta trastelekua. Prezio interesgarria. 649 63 11 74.

**Bergara.** Etxebizitza saltzen da Zubiaurren, guztiz berritua, ganbara eta berogailuarekin. 619 41 39 72.

**Nafarroa.** Urederra inguruan. Berriztatuta. Bi solairu ditu. 123 metro koadro. 185.000 euro. 943 76 00 03.

**Oñati.** Duplexa salgai kultura etxearen parean. 100 metro koadro. Sukaldea, logela, egongela eta 2 komun. 670 48 32 99.

**Oñati.** 120 m2-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitzera sartzeko moduan. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 420.000 euro. 676 39 36 93.

**Oñati.** Duplexa salgai kultura etxearen parean. 100 metro koadro. Sukaldea, logela, egongela eta bi komun. 670 48 32 99.

**Peñiscola.** Bungalow bat salgai. 948 41 00 79.

### 102. EROSI

**Arrasaten** etxea erosi nahi dut, prezio egokian. 635 70 24 66 edo 606 03 80 18.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza ematen da errentan, erdialdean. Berogailua eta igogailua. 618 20 31 85.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan, ikasleentzat. 943 79 33 93.

**Bagneres-La Mongie.** Apartamentua ematen dut errentan neguko denboraldi osorako. 679 76 11 57.

**Benidorm.** Apartamentua ematen dut errentan. Levante hondartzaren lehen lerroan. 605 72 13 67.

**Bergara.** Etxebizitza ematen dut errentan, Bolun. 20:00etatik 22:00etara deitu. Telefonoa: 943 76 07 89.

**Marina D'or.** Etxea ematen dut errentan. Bainuetxearen parean eta hondartzaren ondoan. 943 76 23 53 edo 679 74 60 61.

**Vera (Almería).** Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxea errentan hartuko nuke. 685 75 41 21.

**Arrasate.** Arrasateko bikote batek etxebizitza errentan hartuko luke. 13:00etatik 16:00etara bitartean ez deitu. Aitor. 649 19 64 04.

**Bergaran** etxe konpartitua errentan hartuko nuke. 943 78 70 16.

**Oñatin** etxebizitza nabil bilatzen errentan hartzeko. Neska euskalduna naiz, seme batekin. 666 74 14 33.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Gela bat alokatu nahi du neska batek. Deitu ezazu telefono honetara:629 40 33 68.

**Bergara.** Etxebizitza osatzeko bi pertsona behar dira. Andoni. 605 76 98 97.

**Eskoriatza.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da urritik aurrera. Seriotasuna eskatzen da. 656 71 33 96.

**Iruñean** logela bila nabilen irakaslea naiz. Kurtso osorako. 669 97 91 31.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Trasteroa salgai Zurraderon, motorra gordetzeko egokia. Neurriak 5,80x1,80. 8.000.- euro. Deitu arratsaldeko 6etatik aurrera. Deitu ezazu telefono honetara:678 43 31 07.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Bustinzuri kalean. 638 89 78 76.

**Arrasate.** Garajea errentan ematen dut Roneon. Deitu ezazu telefono honetara: 615 70 22 68.

**Oñati.** Garajea errentan Olakua 18an. Deitu ezazu telefono honetara:659 38 66 29.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Aretxabaleta.** Lokala salgai Gorbeia kaleko 2. zenbakian. Guztira 104,60 m2, bi solairutan banatuta. 671 42 54 32 edo 943 79 52 78.

**Arrasate.** 72 m2 dituen lokal bat errentan ematen da Anboto kalean. Ura, argia eta komuna ditu. 607 44 35 46.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**ARRASATE** sukaldaria behar da arrasateko taberna batean lan egiteko, esperientziarekin obe. juan carlos. 943 79 20 56.

**Bergara.** Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. 669 53 97 03.

**Bergara.** Pertsona bat behar da gaztelaniazko eskolak emateko. 629 33 26 34.

**Debagoiena.** Neska euskalduna behar da arratsaldez umeak zaintzeko. 647 37 20 48.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko. 6 urteko esperientzia. Feli. Telefonoa: 943 53 33 92.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lanetarako. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 652 76 65 06.

**Arrasate.** Paperak eguneratuta dituen emakumea adinekoak zaintzeko prest. Etxeko lanetan, sukaldean eta erizaintzan esperientziarekin. Telefonoa: 686 52 15 98.

**Arrasate.** Paperak eguneratuta dituen neska adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia etxeko lanetan, sukaldean... Erreferentziekin. 618 93 59 29.

**Debagoiena.** Neska gaztea garbiketa lanak egiteko prest. 619 92 40 86.

**Debagoiena.** 22 urteko mutila edozein lan egiteko gertu. 943 78 03 32 edo 687 67 71 83.

**Debagoiena.** Emakume bat pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeak, bulegoak zein tabernak garbitzeko gertu; orduka. 650 67 15 92.

**Debagoiena.** Emakumea gertu sukaldari edo sukaldari-laguntzaile jarduteko, baita garbiketa lanak egiteko ere. Telefonoa: 660 36 44 99.

**Debagoiena.** Etxeko lanak egingo nituzke, orduka zein egun osoz. 638 38 93 42.

**Oñati.** Neska gazte bat haurrak zaintzeko prest. 636 07 01 16.

**Oñati.** Neska gazte euskalduna haurrak zaintzeko prest. Telefonoa: 636 07 01 16.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Mutila edo neska behar da DBHko 4. mailako ikasle bati eskola partikularrak emateko. 696 33 47 72 edo 943 79 17 45.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

**Bergara.** Zientzietako gaietan arazoak? Zihur konponduko ditugula. DBH-3tik gorako maila guztiak (unibertsitatekoak ere). 615 75 82 54.

**Bergara.** LH edo DBHko eskola partikularrak emateko prest dagoen neska. 675 71 55 56.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**BMW F 650 GS** motorra salgai. 2005eko azarokoa. 4.000 kilometro. ABS Warning. Beltza. 6.600 euro. 635 71 67 06.

**Citroen C4** Coupe beltza salgai. 138 ZP. Diesela. 55.000 km. Estra guztiak. Oso egoera onean. 627 93 55 74.

**Honda CB 600F** motorra salgai. 25.000 km. 4.200 euro. 699 37 15 11.

**Jeep Cherokee.** 2.1 turbo dieselа salgai. Oso egoera onean. 3.500 euro. 655 45 07 25.

**KTM** Enduro 450 EXC. 2004 urtekoa. Mendiko motorra. 646 05 74 78.

**Opel** Astra ISUZU 1700 TD. 114.500 km. Egoera onean. 606 94 35 50 edo 617 13 17 51.

**Suzuki GS 500** motorra salgai. Oso egoera onean, 19.000 km, 2003koa. 3.000 euro. Deitu arratsaldez. 630 77 50 71.

**Suzuki Vitara 1.6** salgai. 92.200 km. Egoera onean. Telefonoa: 665 71 39 94.

**Trialeko** motorra salgai. Gas-Gas TXT 280. 2004koa. Egoera oso onean. 2.500 euro. Telefonoa: 627 42 63 12.

**Volkswagen Golf II** GTI, 112 ZP, 1990ekoa, hiru ate, gorria. Enbragea eta distribuzioko uhala (korrea) aldatu berri. Oso egoera onean. 1.200 euro. Telefonoa: 699 98 36 71.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Yorkshire** Terrier arrazako hiru txakurkume saltzen ditut. Erika. 697 20 67 85.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Automobilerako** umearendako eserlekua salgai. 943 79 41 31.

**Basalurra** salgai Bergara eta Eskoriatzan. Borda bat eraikitzeko oso egokia. 678 72 75 72.

**Baxu** anplifikagailua salgai. Trace Elliot (Combo) markakoa. 300 v. 700 euro. 639 27 25 56.

**Egurra** saltzen da. Bi kamioikada egur sutarako gertu. Telefonoa: 945 44 51 11.

**Mahai** obalatua salgai, luzagarri eta guzti. Neurria: 140x92 zentimetro. 200 euro, negoziagarriak. 617 17 15 88.

**Mahaia** Egongelakoa. 90x90 neurrikoa. Gereziondo kolorea dauka eta kristalezkoa da. Berria. 99 euro. 653 72 22 54.

**Pneumatiko-estalkiak** saltzen ditut: lau estalki. Eta beste lau hagun (llanta), Speed Line. 14 hazbetekoak. Golf GTI autoarenak. 686 55 79 82.

**Soldatzeko** makina salgai. 600 euro. 655 45 07 25.

**Teleskopioa** salgai. Astrolon. Potentzia: 402. 943 79 41 31.

**Tronpeta** salgai. Berri-berria. 943 78 70 52.

### 802. EROSI

**Txanponak** eta bankuko billete zaharrak erosten ditut. Telefonoa: 688 61 85 02.

### 806. GALDU

**Arrasate.** Urre zuriko eskumuturrekoa galdu nuen abuztuan. Seber Altuben edo Herriko Plazan galdu nuen. Balio sentimental handia du. 943 79 13 68.

### 807. AURKITU

**Aretxabaleta.** Bizikleta topatu dugu. Umearena da. 943 79 66 51.

### 808. BESTELAKOAK

**Bergaratik** Donostiara automobilean joan-etorria egiteko aukera eskainiko didan norbaiten bila nabil. Astegunetan, egunero. 697 56 29 18.

**LAN ESKAINTZA**

**ESTANPATZAILE** lanpostu bat

Baloratuko da:
-FP-II edo antzeko titulua izatea
-Esperientzia estrusio hotzean
-Bergaran edo inguruan bizi izatea

**TAILER MEKANIKO**rako lanpostu bat

Baloratuko da:
-FP-II edo antzeko titulua izatea
-Esperientzia eta makina ezberdinak erabiltzen trebea izatea (tornua, fresa, erosioa, ...)
-Bergaran edo inguruan bizi izatea

metagra

Interesatuok bidali curriculuma gutun-azalean, lanpostua zehaztuz, 2007ko urriaren 15a baino lehen, ondoko helbidera:
METAGRA – Amilaga 22 – 20570 BERGARA
edo *mse@metagra.com*

**Enpresa eraikitzaile eta promotore batek *OBRA TEKNIKARIA* behar du Arrasateko obra baterako.**

**Obra-buruaren aginduetara lan hauek egin beharko ditu:**
neurketak, ziurtagiriak, eskaintza eskaerak, obren jarraipena…

**Lanpostu honetarako baliagarriak diren titulazioak hauek dira:**
arkitekto teknikoak, ingeniari teknikoak edo goi mailako ingeniariak.

**Baloratuko da:**
Esperientzia eta Debagoienean bizi izatea.

**Soldata pertsona bakoitzaren balioaren araberakoa izango da.**

**Interesatuok deitu telefono honetara:**
**690 629 869**

**LAN ESKAINTZA**

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak

**IKUS ENTZUNEZKO TEKNIKARIA** behar du

**Baldintzak:**
- Euskaraz jakitea.
- Errealizazio, irudi edo soinu teknikari tituluduna izatea, gutxienez.

**Baloratuko da:**
- Esperientzia izatea.
- Informatikako programak erabiltzen jakitea.
- Atzerriko hizkuntzak jakitea.
- Goi mailako titulazioa izatea

Interesatuok bidali curriculuma,
2007ko urriaren 12a baino lehen, ondoko helbidera:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
edo admi@goiena.com

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**

Euskarako irakasleen lan poltsa sortzeko merituen lehiaketa.

Eskaerak aurkezteko azken eguna: urriak 15.

Eskaerak aurkezteko lekua:
Leintz Udal Euskaltegia.
Nafarroa kalea, 4. Aretxabaleta

Aretxabaleta, 2007ko irailaren 26a.



**Ainara Zubia** oñatiarra eta **Iñaki Larrea** antzuolarra urriaren 13an ezkonduko dira Oñatiko San Migel Parrokian. Ospakizuna Zumarragako Etxe-Berri jatetxean egingo dute eta bidaian Caribera eta AEBetara joango dira. Familiaren partetik zorionak!



Arrasateko **Alex Castelo** eta Zumarragako **Silvia Alonso** irailaren 29an ezkondu ziren Zumarragako 'Las Mercedarias' elizan. Ospakizuna Etxeberri jatetxean egin zuten eta eztei bidaian Bali eta Thailandiara joan dira. Zorionak lagunen partetik!



Arrasateko **Eneko Galdos** eta Eskoriatzako **Esti Arrate** urriaren 12an ezkonduko dira Dorletako santutegian, 13:00etan. Bazkaria Gure Ametsa jatetxean egingo dute eta bidaian Afrika eta Maurizio irlak ezagutuko dituzte. Zorionak familiaren partetik!

## hildakoak

- **Milagros Egiluz Lasa.** Arrasaten, urriaren 1ean. 92 urte.
- **Jose Luis Arroitia Galdos.** Arrasaten, urriaren 1ean. 75 urte.
- **Purificacion Varga Carmona.** Arrasaten, urriaren 1ean. 55 urte.
- **Jose Mari Polo Hernandez.** Aretxabaletan, urriaren 1ean. 75 urte.
- **Juan Trejo Martin.** Arrasaten, urriaren 2an. 86 urte.
- **Juan Jose Rojas Rivera.** Arrasaten, urriaren 2an. 65 urte.
- **Marian Olea Eguizabal.** Arrasaten, urriaren 3an. 58 urte.
- **Ignacio Maria Ilarramendi Ibabe.** Oñatin, urriaren 1ean. 72 urte.



**Jose Luis Azkarate** eta **Milagros Beitia** arrasatearrak urriaren 10ean ezkondu ziren, orain dela 37 urte. Zorionak eta urte askotarako, amama eta aitaita! Oihanen eta Lideren partetik zorionak eta muxu handi bat.



Irungo **Arantxa Uribe** eta **Txolo Lozano** bihar ezkonduko dira Arrasateko Bedoña auzoan, eguerdiko 12:30etan. Ondoren, Argentinara joango dira ezti bidaian. Zorionak eta ondo pasa bikote, familia eta lagunen partetik eta, muxu handi bat!

ESKER ONA

### Juan Manuel Herrero Lainez

Almerian istripuz hil zen 2007ko irailaren 16an, 50 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2007ko urriaren 5ean.

URTEURRENA

### Gregorio Elizaran Elustondo



Lehen urteurreneko meza
zapatuan, urriaren 6an,
19:00etan,
Arrasateko San Juan Bataiatzailearen elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

IV. URTEURRENA

### Agustin Urrutia Zubizarreta



Laugarren urteurreneko meza
domekan, urriaren 7an, 11:30ean,
Aretxabaletako parrokian.
–
*Emazteak, seme-alabek, familiak
eta lagunek ez zaitugu ahazten.*

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

### Milagros Eguiluz Lasa

Fortunato Bediaren alarguna

Arrasaten hil zen 2007ko urriaren 1ean.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko.
**Semeak:** Belen eta Jesus Iriarte, Jesus Ramon eta
Arantza Marteatxe eta Jose Antonio.
**Bilobak:** Ana Belen eta Babacar, Alberto eta Lierni eta
Albano eta Mikel.
**Birlobak:** Aner eta June.

Arrasaten, 2007ko urriaren 5ean.

III. URTEURRENA

### Karmelo Garaitonandia Kortabarria

Aramaion hil zen 2004ko irailaren 29an, 63 urte zituela.



Hirugarren urteurreneko meza
domekan, urriaren 7an,
11:00etan,
Aramaioko Uribarri auzoko San Esteban elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

### Periko Arriola Billar

Arrasaten hil zen 2007ko irailaren 27an, 56 urte zituela.



*Ibaiaren murmurioarekin nahastuta,
hire ahotsa entzungo diagu betiko.
Mendi artetik hik bidalitako haize leuna
nabarituko diagu, Periko.*

Zure lankideak.
Oñatin, 2007ko urriaren 5ean.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,

deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 01**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
**Arrasate** Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11 / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01. **Oñati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65 / Laixan euskara elkartea: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11. **Aretxabaleta:** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramaio**: Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22. **Elgeta:** Mariasun janari denda: Salbador 26. 943 76 81 90. **Antzuola:** Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **100** euro.
**Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.**



Babeslea:

OROILORE
Hileta eta beilatoki zerbitzuak

*• Zerbitzu etengabea 365 egunean • Behar bagaituzue aski duzue dei bat, laster joango gara zuekin egoteko: etxera, ospitalera… • Erantzun azkarra, tratu pertsonala • Eskelak: egunkari, irratí eta paperetan • Aukera lore apainketan: koroak, erramuak eta zentroak • Bete beharreko tramiteak • Gorpua prestatu eta dotore ipini • Zerraldo aukera, denetariko prezioak • Oroilore beilatokiak hiru gela ditu, beila egiteko*

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Biluzik utzi / Zeharo | | Gipuzkoako herria / Garaia | | Langa / Elkartea | |
| | | | | | | | | |
| | | | * Irudiko fruitua / Hauts hilgarri | | | | | |
| Iragana / Ugazaba | | Neguko jantzi / Emakume izena | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| Itxura / Aurkari | | | | | Anno Domini / Intsektu mota | | | Jardun |
| | | | | | | Kasik / Azkena eta lehena | | |
| (Infin.) Osatu / Musika nota | | | | Atzizkia / Bokala | | | | |
| | | Sotoa | | | | | Bokala | |

GOIENKARIA



## umore giroan

**Kike Amonarriz**

**Txanponak**

- Ba al dakizue zein den libraren, dolarraren eta errubloaren artean dagoen erlazioa?
- (!!!)
- Errublo libra batek dolar bat balio du.

**Guisking**

Txirrina etengabe jotzen ari da norbait. Atea zabaldu eta semea aurkitu du Irenek:
- Ama, ama! Aita eskaileretan behera erori da bi litro whisky gainean dituela eta muturra puskatu du!
- Eta ez zuen dena zerrikeria bat eginda utziko, ezta?
- Ez! Ahoa itxita eduki du!

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 3 | | 9 | | | |
| 3 | | | | 7 | | 2 | | |
| | 7 | | 8 | | | 4 | | |
| 8 | | | 6 | | | | 3 | |
| | 6 | | | 9 | | | 4 | |
| | 3 | | | | 5 | | | 2 |
| | | 5 | | | 4 | | 1 | |
| | | 9 | | 3 | | | | 5 |
| | | | 7 | | 8 | | | |

## hieroglifoa

Ez oso lagunak




## hizki salda

5 animaliren izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | A | E | G | U | S | I | J | A |
| N | Z | B | I | C | H | K | M | L |
| D | E | E | H | A | A | O | R | U |
| A | T | U | R | E | N | O | I | A |
| Z | I | D | Y | I | K | E | S | O |
| T | N | K | L | A | A | T | O | N |
| N | O | G | F | N | O | I | O | R |
| O | S | M | X | A | G | U | A | A |
| H | D | E | E | S | T | A | D | O |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | E | ■ | I | ■ | A |
| | | | E | R | A | B | A | T |
| | | | ■ | A | R | A | N | A |
| ■ | I | ■ | A | N | O | R | A | K |
| A | G | I | N | T | A | R | I | A |
| ■ | A | N | T | Z | ■ | A | D | ■ |
| A | R | E | R | I | O | ■ | I | A |
| ■ | O | S | A | ■ | T | Z | A | R |
| L | A | ■ | X | A | I | A | ■ | I |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 5 | 8 | 3 | 4 | 9 | 1 | 7 | 6 |
| 3 | 4 | 1 | 5 | 7 | 6 | 2 | 8 | 9 |
| 9 | 7 | 6 | 8 | 1 | 2 | 4 | 5 | 3 |
| 8 | 9 | 4 | 6 | 2 | 7 | 5 | 3 | 1 |
| 5 | 6 | 2 | 1 | 9 | 3 | 8 | 4 | 7 |
| 1 | 3 | 7 | 4 | 8 | 5 | 6 | 9 | 2 |
| 7 | 2 | 5 | 9 | 6 | 4 | 3 | 1 | 8 |
| 4 | 8 | 9 | 2 | 3 | 1 | 7 | 6 | 5 |
| 6 | 1 | 3 | 7 | 5 | 8 | 9 | 2 | 4 |

Jeroglifikoa: Etsaiak.
E + T + Saiak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | A | E | G | U | S | I | J | A |
| N | Z | B | I | C | H | K | M | L |
| D | E | E | H | A | A | O | R | U |
| A | T | U | R | E | N | O | I | A |
| Z | I | D | Y | I | K | E | S | O |
| T | N | K | L | A | A | T | O | N |
| N | O | G | F | N | O | I | O | R |
| O | S | M | X | A | G | U | A | A |
| H | D | E | E | S | T | A | D | O |

## bono fotoa



### Arrasateko zein auzotan daude argazkiko etxeak?

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ..........

IZEN-DEITURAK ..........
TELEFONOA..........

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Skip detergentea**
33 garbiketa
**9,49 €** 168 pta.
**Bi eramanda, bakoitzak 7,12 €**
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Bergarako **IRUNE ZANGITU**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: Angiozar. San Migel Goiangeruaren eliza.**



# UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA III. LEHIAKETA



**Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/udakoargazkiak**

# Banatu ditugu sariak

Banatu ditugu udako argazkien *Asteleheneko Goienkaria* III. lehiaketako sariak. Isabel Kirze arrasatearrak irabazi du lehen saria, *Ekaitzaren ostean barealdia* argazkiarekin. Donostian egin zuen argazkia, eta Kontxako barandaz baliatu da enkoadraketa ezberdin bat egiteko. Bigarren saria Ane Lopez bergararrak eskuratu du, *Euskal gazta* argazkiari esker; koadrila elkartu eta argazki sinpatikoa atera du. Eta hirugarrena Aritz Murgia arrasatearrak; ilunabarrean egin du erretratua: *Guincho*.



**SARI NAGUSIA.**
Isabel Kirze arrasatearrak irabazi du sari nagusia, argazki-kamera digital bikaina, **Kiñu** argazki dendak eta **Olympus** etxeak emana. Dendako Juanje eta Bibiren eskutik jaso zuen saria. Iaz ere lehiaketan parte hartu zuen, baina ez zuen irabazi, eta aurten ere animatu da berriro; ezustea hartu du lehiaketa irabazita. Oso pozik dago sariarekin, asko gustatzen zaio-eta argazkilaritza.

**2. SARIA**
Bergarako Ane Lopezek irabazi du bigarren saria, asteburu bateko egonaldia bi pertsonarentzat. Saria jasotzera, Nerea Mendizabal eta Irune Igartua etorri dira. Oso pozik daude irabazitako sariarekin. Izan ere, lehen aldia da argazki lehiaketa batean parte hartzen dutena. Gainera, argazki bakarra bidali zuten. Saria **Arrasate Bidaiak**-eko Ane Bereziartua eta Bea Aldairen eskutik jaso dute.



**3. SARIA.**
Aritz Murgia arrasatearra izan da hirugarren saritua. Oso pozik dago sariarekin, lehen aldia baita lehiaketan parte hartzen duena. Bi pertsonarendako bazkari edo afaria irabazi du Gatzagako **Gure Ametsa**n. Gure Ametsako ugazaba Marisarekin ageri zaigu alboko irudian.



Babeslea: kutxa

Laguntzaileak: kiñu argazkilariak, OLYMPUS, Arrasate Bidaiak, GURE AMETSA JATETXEA

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa
Harpidedun egiteko: 902 36 38 51

Andoitz Barriola > Eztia egiten du

# "Arantzazuko erle beltza daukat; autoktonoa da, klimara egokitua"

Andoitz Barriola oñatiarrak eztia egiten du; familiatik datorkion zaletasuna dela esan digu. Orain zazpi urte hasi zen bere eztia egiten. Legazpiko Joxe Leundaren eta aitaren laguntza jaso du Barriolak. Gainera, orain dela bi urte Euskal Herriko ezti onenaren saria irabazi zuen Usurbilen egindako azoka batean: lore bakarreko ezti onenaren saria, hain zuzen ere.

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Araotzen egin dugu hitzordua Andoitz Barriolarekin; han, baserrian, ditu erleak oñatiar gazteak. Urtean bi aldiz ateratzen du eztia; aurten, adibidez, 100 kilo inguru. Eztia eta argizaria aprobetxatzen ditu; apiterapia egiteko eskaintzarik oraingoz ez duela esan aitortu digu Barriolak.**

**Noiz piztu zitzaizun erleekiko zaletasuna?**

Etxean betidanik ezagutu izan dut; hortaz, txikitatik datorkidan zaletasuna da. Gure bi aitaitek egiten zuten eztia; bai Mañakoak (Araotz) eta bai Leitzakoak. Nik ez nituen haiek ezagutu, baina zaletasuna hortik datorkit. Gero, gure aita hasi zen, eta hark erakutsita, ni ere mundu honetan sartu nintzen.

**Hasiberritan, erleak nondik lortzen dira?**

Poliki-poliki hasi behar da. Hasieran, aita hasi zen; hura mundu horretan sartu zen eta hainbat ezagun egin zituen. Eta haiek lagundu egin digute; batez ere, Legazpiko Joxe Leundaren laguntza jaso dugu.

**Gaur egun zenbat erle dituzu?**

Zortzi kaxa ditut; bi baserrian, Araotzen, eta beste seiak inguruan egokitu dudan txabola batean. Urtaroaren erabera, erle kantitatea ezberdina izaten da; uda garaian, adibidez, 60.000 erle izaten ditut eta neguan gutxiago, 10.000 inguru.

**Gainera, erle autoktonoa daukazu.**

Bai, hala da; Arantzazuko erle beltza da. Erleak egiten duen eztia berdina da, baina arraza da ezberdina. Horiek bertakoak dira eta bertako klimara egokituta daude, hori da berezitasuna.

**Zaintza berezia behar izaten dute erleek?**

Ez, ez dute ezer berezirik behar izaten. Baina, lehen esan bezala, sei kaxa baserri inguruan egokitu dudan txabola batean daude; modu horretan, giro goxoagoan daude eta, horrez gainera, haizetik babestuta geratzen dira.

**Ateratzen duzun eztiarekin zer egiten duzu?**

Gehiena etxean geratzen da edo familiartekoei banatzen diet. Eztia egiten dudala dakiten ezagunei edo familiartekoei. Oraingoz, ez dut saltzen.










ARANTZAZU EZKIBEL

PERTSONALA

**Herria:** Oñati. **Adina:** 27 urte. **Ikasketak?** Ingeniari Teknikoa Gestio Informatikoan ikasi nuen, ETEOn. **Zaletasunak?** Mendia eta, orokorrean, naturarekin zerikusia duten zaletasunak. **Zein da zure jaki gustukoena?** Lentejak oso gustuko ditut. **Badaukazu maniarik?** Ez, nik dakidala, behintzat. **Gomendatzeko moduko film bat?** Aspaldikoa da, baina *Cadena perpetua* asko gustatu zitzaidan. **Oñatiko txoko gustukoena?** Dena dut gustuko. **Amets bat?** Orain arte bezala jarraitzea.

**Zenbat ezti egiten duzu?**

Urtean zehar egin duen eguraldiaren arabera izaten da; aurten, adibidez, 100 kilo atera ditut. Eguraldiak eragin zuzena dauka; iaz, oso eguraldi lehorra egin zuen eta hori ez zen batere ona izan erleek eztia egiteko. Izan ere, loreek ez dute beharrezkoa den nektarrik izaten.

Eztiarentzat onena giro hezea izaten da: euria eta eguzkia egitea izaten da onena.

**Eztia batzeko beharrezkoak diren jantzi guztiak eramango dituzu gainean...**

Bai, baserrian daukat beharrezko guztia; hala ere, zerbait falta zaidanean, Itsasondon dagoen Gipuzkoako erlezainen elkartera joaten naiz eta han erosten dut.

**Orain dela bi urte, Euskal Herriko ezti onenaren saria irabazi zenuen.**

Bai, azoka batean izan zen; Usurbilen, hain zuzen. Euskal Herriko hainbat erlezain izan ginen bertan; sariak bi mailatan banatuta zeuden: alde batetik, lore bakarreko eztia saritzen zuten eta bestetik, mila loreko eztia. Nik lore bakarreko eztiarekin hartu nuen parte eta lehenengo saria eskuratu nuen.

Garaiaren arabera jakiten dut ze ezti mota egiten duten erleek; irailean, *txilarre* lorea izaten da nagusi; hortaz, badakit eztia ze lorerekin eginda dagoen. Beste urte sasoi batzuetan, berriz, lore gehiago izaten dira eta eztia mila lore motakoa izaten da. Garaiaren arabera izaten da.

**Eman izan dizute ziztadarik erleek?**

Bai, asko! Alergiarik, behintzat, ez dudala konturatu naiz jaso ditudan ziztada guztiekin.

**Ateratzen duzu polena edo egiten duzu beste produkturik?**

Ez, polena egiteko erle gehiago behar dira. Urte batean egin genuen, baina orain ez dut egiten. Argizaria, berriz, izebak erabili izan du ukenduak edo beharrezko duen beste zerbait egiteko.

**Aurrerantzean ere ferietan parte hartzeko asmoa duzu?**

Bai, ferietara joateko asmoa badut. Bailara mailan antolatutako azokak izaten dira eta polita izaten da haietara joatea; beste erlezainekin harremana egin eta mantentzeko modu polita izaten da. Gustatzen zait azoketan sortzen den giroa.



IREKIERA EKITALDIA Hainbat arduradun eta parte-hartzaile, aurkezpenean; Jon Sarasuak hitz egin zuen. HUHEZI

**HEZKUNTZA** > GRADUONDOKO IKASTAROA

# Euskal Kulturgintzaren Transmisio masterra zabaldu dute HUHEZIn

Helburua da euskal kulturgintzari buruzko jakintza corpus batean biltzea eta belaunaldi gazteei transmititzea; kulturgintzan ibili direnek eta adituek egingo dute hori

**LEIRE KORTABARRIA** > ESKORIATZA

Joan den martitzenean, Euskal Kulturgintzaren Transmisioa izeneko masterra ireki zuten Mondragon Unibertsitatearen HUHEZI fakultateak eta Arteola elkarteak. Jon Sarasuak hitz egin zuen ekitaldi hartan. Gero etorri ziren bi saio: Josu Amezagarena eta Anjel Lertxundirena. Lehenengo aldiz, ikastaro horrek maila akademikora ekarriko du euskal kulturaren transmisioa, eta izen handiak daude irakasleen artean: Benito Lertxundi, Xabier Lete, Bernardo Atxaga, Mari Jose Olaziregi, Jose Mari Sors, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Mariasun Landa, Joseba Zulaika, Juan Antonio Urbeltz, Jose Angel Irigaray eta Fermin Muguruza, besteak beste.

**GAZTEEI TRANSMITITZEA**

Eskaintza horren oinarrian hainbat kezka daude, HUHEZIk dioen moduan: "XXI. mendean, desafio globalarekin, ez dago gure artean esperientzia, gogoeta eta praktika-biltze, sistematizazio eta transmisio-lanik kulturgintzari buruz; eta beharra dago egokiago txertatzeko gure kulturgintza hezkuntzan, eta horretarako, faltan daude irizpideak, esperientziak eta formatzaileak".

Graduondoko ikasketa horien helburua da corpus baten biltzea euskal kulturgintzari buruzko jakintza, eta belaunaldi gazteei transmititzea; eta, era berean, formazio multifokala eta praktikoa egitea. Hori guztia arituek eta adituek egingo dute.

**HIRU MOTAKO FORMAZIOA**

Formazioaren edukia hiru bloketan banatzen da. Batetik, formazio teorikoa, adituen eskutik: kulturgintza kokatzeko oinarriak, gizarte eta teknologia aldaketak eta kulturgintza, euskal izaera XXI. mendean, euskal kulturgintza aurrera begira… Bigarren blokea testigantzen bidezko formazioa da: kantagintza, literaturgintza, bertsolaritza, beste hainbat kulturbide, eta oinarrigintza. Azkenik, hausnarketa eta ekoizpena egingo dute, eta proiektua, ikasleek.

## teknologia berriak

> MUSIKA JARTZEKO GAILUAK

### Microsoftek Zune berriak aurkeztu ditu

Microsoftek lau, zortzi eta laurogei GBko Zune berriak aurkeztu ditu. Lau eta zortzi GBko edukiera duten modeloak arrosa, berde, beltz eta gorri koloretan eskura daitezke eta 1,8 hazbeteko pantaila dute. 80 GBko modeloaren pantaila, berriz, 3,2 hazbetekoa da eta, oraingoz, beltz kolorean bakarrik eskura daiteke.

Lau noranzkoetan nabiga daiteke Zune Pad berriarekin. Modelo guztiek FM irratia barneratuta dute.

Azaroan merkaturatuko dituzte. Salneurriak 106 eta 176 euro bitartean daude.




Lau noranzkoetan (gora, behera, ezkerretara eta eskumatara) nabiga daiteke Zune Pad berriarekin.

> DISKO GOGORRAK

### Botoi bakarra erabilita, segurtasun kopiak

Transcend enpresak 2,5 hazbeteko kanpo disko gogorrak kaleratu berri ditu.

Botoi bakar bati sakatuta segurtasun kopiak egin daitezke. 480 Mbit segundoko transferentzia abiadura dute, eta ordenagailura USB bidez konektatzen dira.

Hainbat edukieratan eskuragarri daude: 80 GB (70 €), 120 GB (84 €) eta 160 GB (93 €).

Windows 2000, MacOS 9.0 eta Linux Kernel 2.4 edo sistema eragile berriagoekin bateragarria da.




Transcend StoreJet 2.5 modeloak aluminiozko diseinu modernoa du.

> TELEFONIA

### HTC S730: ohiko teklatua eta QWERTY teklatu irristakorra duen sakelako telefonoa

HTC enpresak sakelako telefono berriak aurkeztu ditu. Modelo berrien artean, HTC S730 modeloa dago.

Sakelako horren abantaila da ohiko zenbakizko teklatua eta QWERTY teklatu irristakorra dituela. Bestelako prestakuntzak ere baditu: bi megapixeleko kamera eta bideo-deiak egiteko beste bat, wifia, USB eta bluetootha, microSD txartelentzako erretena eta 2,4 hazbeteko pantaila.

Oraingo hilabetetik aurrera eskuragarri egongo da.



Ohikoa beharrean, QWERTY teklatu irristakorra du.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak
/aebpn /aiastui /aretxargi /argi-plastik /arregi /atai /azkarate /bastida /briz-aseguruak /BZ-sistemas /bolusukaldeak
/denetik /dragon-oriental /dukiena /ego /ekilore /ekin /elejalde /ezkutuorly /galgorri /gallastegi /ganesha /garaia
/gertu /gorkataxi /gurea /guztizeder /hamaika /itxaseder /irudisport /ixaun /jracing /joseba /lamaino-etxeberri /lorelan
/korozabaleta /markiegi /maulanda /mayte /merkeopari /multiopticas /ohiak /ogizun /okipark /otzeta /pando /puerta-ingles
/richimaier /tabernaberri /udalaitz /urdeki /urbieta /urko /vitoria /zainduz /ziripot

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net



## berriak

> PROGRAMAZIOA

### Lope de Agirreren gainean sortu den eztabaida GOITBn

Oñatiko Araotz auzokoa ote? Aramaiokoa ote? *Argia* aldizkariak sortu zuen eztabaida eta Goiena Telebistak ere tirabira horren gaineko erreportajea egin du. Julen Iriondo, datorren asteko erreportaje saioan, Lope de Agirreren bizitza ikertu duen Julen Arriolabengoarekin eta Oñatiko historialari Jerardo Elortzarekin eta Jose Antonio Azpiazurekin izango da. Ea, ba, zerbait argitzerik duten.

> PROGRAMAZIOA

### GOITBko 'Berriak' saioak ohiko ordutegia izango du

Udako ordutegia izan du orain arte GOITBko *Berriak* saioak, baina datorren astetik aurrera ohiko ordutegia izatera bueltatuko da. Hala, hemendik aurrera, 19:45ean emitituko da *Berriak*, eta errepikapenak 20:45ean eta 22:45ean izango dira. *Gaurkoak*, berriz, 21:45ean emitituko da, eta baita 23:45ean ere. Orain arte, 20:45ean *Gaurkoak* eskaintzen zen *Berriak* beharrean.

> ARRASATE IRRATIA

### Aquariumerako sarreren zozketak abendura arte

Maritxu Kajoiren ostean, Arrasate Irratiak *Uda giroan* saio bukatu egingo du datorren urte arte, eta horrek esan gura du orain arte izan diren hainbat atal bertan behera geratuko direla; tartean, Donostiako Aquariumarekin egunero egiten dugun konexioa. Hala ere, Aquariumerako sarrerak zozketatzen segituko dugu abendu arte. Zozketekin lotuta, datorren astean ere Kilometroetako materiala zozketatuko dugu.

> ARRASATE IRRATIA

### Udazkenarekin batera irratsaio berriak Arrasate Irratian

Udazkenaren etorrerarekin batera, Arrasate Irratiak neguko denboraldiari eutsiko dio, eta, bestelako aldaketen artean, tarte batzuk estreinatuko ditugu bigarren orduan, 11:30etik 12:00ak bitartean. Besteak beste, teknologia berrien eta Interneten gainekoak landuko ditu Imanol Soriano arrasatearrak, *Teknoberriak* saioan. Eta, horrekin lotuta, gomendio kulturalei ere egingo diegu tartea astearen amaiera aldera.

**'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Mixel Ducau Baionako musikaria 'Ilunpean' saioan

Baionako musikaria euskal rockaren aitzindari izan zen Errobi taldearen sortzaileetako bat da

**GOIENKARIA** > ARRASATE
Mixel Ducau Baionan jaiotako musikari euskaltzalea da. Euskal rockaren aitzindari izan zen Errobi taldearen fundatzaileetako bat izan zen, Anje Duhalderekin batera. 50 disko baino gehiagotan hartu du parte Mixel Ducauk. Gaur egun, Kalifornian jaiotako Caroline Phillips piano jotzailea du bikotekide, bai lanean eta baita bizitzan ere. Bi disko argitaratu dituzte bikotekide moduan: *Alaia Zu* eta *Zatoz gurekin*. Ondoren, Bidaia izeneko taldea sortu zuten beste bi kiderekin batera. Gaur ezagutuko duzue, 22:15ean.



**MIXEL DUCAU** Gaur Caroline Philips pianojolearekin ari da GOIENKARIA

**'KILOMETROAK 07'** > DOMEKA, 22:15

# Ikastolen aldeko Kilometroak jaiak utzi dituenak eskainiko dituzte domekan GOITBn

**GOIENKARIA** > ARRASATE
Bergarako Aranzadi ikastolak antolatutako Kilometroak 2007 jaiak utzi dituenak eskainiko ditu Goiena Telebistak, Kilometroen gainean egingo duten saio berezian. Saioa domekan bertan, Kilometroen egunean egingo da.

Goizean goizetik ibiliko dira GOITBko kazetariak eta kameralariak Bergaran gertatzen denaren lekuko izaten, eta, bertatik bertara, ikastolen eta euskararen aldeko jaiaren jarraipena egingo dute. Saioa domekan 22:15ean hasiko da.

Bestalde, datorren eguaztenean, hilaren 10ean, Oñatiko Errosaixuen eta Maritxu Kajoi jaiaren gaineko *Jaiak* saio berezia eskainiko dute. Maritxu Kajoik *maritxupean* zein mirari egin duen, jendearen dotorezia, egun horretan noraino hel daitekeen edota Arrasaten zein giro sortu den ikusi ahal izango da. Baita, Oñatiko Errosaixuek utzi dituztenak ere: herri eguna, talo, sagardo, ganadu, baserriko produktu eta abarrekin, eta, zelan ez, Errosarixo-bixamona egunean kalean ikusiko diren mozorroak ere bai.

## telebegi

**Edu Mendibil**

### Mirari txikiak

Autoa gidatzeari beldurra edo fobia dion lagun bat daukat. Eta amaxofobia sufritzen duen neska bat izan zen *Zeure esku* (ETB1, martitzen gauetan) saio berriko lehen protagonista. Argi dago saioak gidatzeari ez diola inolako fobiarik Klaudio Landak eta bera dugu saioko aurkezlea. Garai bateko estilo zoro eta oihukari hura alde batera lagata, serioago agertzen zaigu orain. Amaxobiaren gaineko hainbat datu eta azalpen eman ostean, berak aurkeztu zigun Jaurne zornotzarraren kasua, eta bien bitartean hainbat mezu larri azaltzen ziren pantailan, letra larriz: *Ezin du kotxea bakarrik hartu*, *Berandu iristen da*, *Denbora asko galtzen du*, *Familiak ez du ulertzen* edo *Besteen menpe bizi da*. "Ai, ama! Felix Linaresen eskua hemen?", pentsatu nuen.

Azkenik, Mikel Elizondo psikologoaren eta Ander Vilariño pilotuaren gomendioei eta senarraren animuei esker bere fobia gainditu omen zuen Jaurnek. Hori frogatzeko Urkiolaraino joan zen autoan. Nork esan zuen telebistak zerbitzu publikoa eskain dezakeela? Ea zer-nolako *mirari txikiak* aurkezten dizkiguten aurrerantzean.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Ana Urkiza, idazlea; Irati Arantzabal, Iñaki de Juanaren senidea; Arizmendi Ikastolako Olarte guneko haurrak Aratusteen gainean berbetan; Zinearen geltokian, Amaia Labaien...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Lorategiaren geltokia: Bergarako Gorosti loradendako Irene Zenitagoiarekin
Opariak: kultura ekitaldietarako sarrerak eskuratzeko aukera
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 5**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Berbaire. **14:15** Musikantoi. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ikusten. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Eltze beroa **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Aranzadi ikastolako erreportajea. **18:45**Albisteak. **19:15** Erreportajea . **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**KMK 06. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Teknopolis. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Kirolari. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 6**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15**Klipa. **12:30** Erreportaia **13:00** Eltze beroa **13:30** San Migelak 06. **14:00** Berbaire. **15:00** KMK 6 .**16:00** Kirolari. **16:30** Illunpean. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00**Erreportajea. **19:30**Klip@. **20:00**Ur eta lur. **20:30**Erreportajea. **21:00**Ikusten. **21:30** Berbaire. **22:00**Astekoak. **22:15**Klip@. **22:30**Ilunpean. **23:00**Erreportajea. **23:30**Musikantoi. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 7**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. **11:00**Kirolari. **11:30**Musikantoi. **12:00**Ur eta lur. **12:30**Klipa.**13:00**Eltze beroa. **13:15**Klip@. **13:30**Erreportajea. **14:00**San migelak 06**.15:00** Berbaire.**15:30** Marrazki bizidunak. **18:00**KMK06. **18:30**Aranzadi ikastolaren erreportajea.**19:00**Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea.**21:00** Berbaire.**21:30**Musikantoi.**22:00** Astekoak. **22:00**KMK 07 Bergaran. **23:00** Teknopolis.**23:30**Ilunpean-.**00:00** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 8**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea-Ttipi TTapa. **14:15**Eltze beroa. **14:45**Berriak. **15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Berbaire.**16:15**Berbaire. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ikusmira. 1**8:15**Ikusten. **18:45**Berriak. **19:15** 2x2. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea-GOITB. **22:15** Kirolari.**22:45**Berriak. **23:15**Harmaillatik. **22:45**Gaurkoak. **23:30**28 Klipa. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena,9**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Horry.**13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea-GOITB. **14:15** Harmaillatik.**14:45**Berriak. **15:15**2x2. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Kirolari. **16:15**Eltze beroa **16:45**Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47** 28 Klipa .**18:15**Musikantoi. **18:45**Berriak. **19:15** Harmaillatik. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Horry **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** KMK07 Bergara **22:15**Animaliak. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusmira. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Erreportajea-GOITB **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena,10**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** KMK 07. **14:15**Eltze berioa. **14:45**Berriak. **15:15**Ur eta lur **15:45** Gaurkoak. **15:47**Animaliak. **16:15** Teknopolis. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**2x2. 1**8:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45**Berriak. **20:15** Zaharrak berri. . **20:45** Berriak. **21:15**Maritxu Kajoi 07. **21:45**Gaurkoak. **21:47**San Migelak 07 Oñati. **22:15**Ur eta lur. **22:45**Berriak. **23:15** Teknopolis. **22:45**Gaurkoak. **23:30** Jazmina. **00:15**Emisio amaiera

**Eguena,11**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Zaharrak berri. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Marazki bizidunak. **14:15**Maritxu 07. **14:45**Berriak. **15:15**San Migelak07. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Ur eta Lur. **16:45** Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. 1**8:15**Kirolari. **18:45**Berriak. **19:15** Erreportajea-GOITB. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Horry. **20:45** Berriak. **21:15**Berbaire_Donostiako Zinemaldia. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Berbaire_Donostiako Zinemaldia. **22:15**Musikantoi. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ilunpean. **00:15**Emisio amaiera

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA
**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13
**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK
**ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)**
Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19
**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK
**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA
**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK
**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23
**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46
**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23
**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90
**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95
**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57
**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77
**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54
**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88
**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45
**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74
**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36
**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA
**TAMAYO CONCEPCION**
OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

## DIETISTAK
**ALBERDI MIREIA**
Bergara /Masterreka 11, behea / 943 76 33 99 / 646 43 34 58
**RAQUEL PEREIRA GALDOS (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Nafarroa etorbidea 3 / 943 79 44 22

## ENTZUMEN ZENTROAK
**GAES**
Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93
**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
**ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON**
Arrasate/ Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

## FISIOTERAPEUTAK
**ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA**
Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96
**ARZAK MIREN**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**BASTERRETXEA MARIA**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Belorrieta 6 – 7 / 943 79 95 64
**IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA**
Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31
**IRATZARRI FISIOTERAPIA LOGOPEDIA ZENTROA**
Arrasate / Uribarri etorbidea 7 / 943 53 39 90
**UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.**
Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

## HOMEOPATIA
**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA
**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77
**IRATZARRI LOGOPEDIA FISIOTERAPIA ZENTROA**
Arrasate / Uribarri Etorbidea7 / 943 53 39 90

## MASAJISTAK
**ABUIN JOSE LUIS**
Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kiroldegian
943 77 01 33 / 943 77 16 77
**ARANTZABAL SAIOA**
Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29
**ARANTZETA JUAN MARI**
Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54
**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43
**CASANELLAS JABIER**
Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78
**ELORTONDO FLOREN**
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK
**ARRASATE OPTIKA**
Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98
**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21
**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68
**ITZIAR OPTIKA**
Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88
**ITZIAR UGARTE OPTIKA**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87
**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**
Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95
**PORTALOI OPTIKA**
Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

## ORTOPEDIA
**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK
**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA
**BENGOA NEREA**
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK
**AZPIAZU ARANTZAZU**
Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32
**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46
**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84
**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA
**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK
**AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA**
Antzuola / Olaran etxea 3, MA10 / 670 45 19 62
**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86
**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16
**PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA**
Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55

## UROLOGOAK
**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA
**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.
**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 235 753

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

# Urriak 5-12

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 01/02** • Faxa: **943 25 05 13**

## Bertsolaritza



OÑATI
**> San Migeletako bertso jaialdian puntako bertsolariak arituko dira**

Puntako bertsolariek ez diote hutsik egingo urtero San Migel jaietan egiten den bertso saioari. Gaur, egubakoitza, izango da, 22:30ean, Zubikoa kiroldegian. Jardungo dute: Maia, Arzallus, Agirre, Colina, Elortza eta Irazu bertsolariek.

## Musika



BERGARA
**> Mami Sakato japoniarrak organo emanaldia egingo du**

Bihar, zapatua, egingo du emanaldia, 20:00etan, San Pedro parrokian. Kontzertu hori dago organo erromantikoaren nazioarteko VI. zikloaren barruan. Tokioko Himonya eliza katolikoko organo jotzailea da.

## Erakusketa



BERGARA
**> Matias Azkarate margolariaren natura hil eta paisaiak ikusgai**

15 lan zintzilikatu ditu Matias Azkaratek Nahikari tabernako paretetan; guztiak paisaiak eta natura hilak. Beart elkartean dihardu eta Ricardo Azkargortaren ikaslea da. Erakusketa hil bukaera arte egongo da zabalik.

## Musika

ARRASATE
**> Ellectric Maritxu Frydays jaia Maritxu Kajoi ospatzeko**

Hainbat disko jartzailek hartuko dute parte: Troy Piercee (AEB), Kasper&Papol (Madril), Gonzalo Morbid (Bilbo), Koldo Intermusic (Donostia), Haitz Jamclub (Arrasate) eta Ion2 Ef (Arrasate).

Gaur, egubakoitza, 23:00etan, 3.60 aretoan.

OÑATI
**> San Migel jaien barruko rock kontzertua txosnagunean**

Jardungo dute honako taldeek: Astopitoak, Manifa, Karkaba, Triskantza eta Clavo Oxidado.

Gaur, egubakoitza, 20:00etan.

BERGARA
**> Disko jartzaileak Kilometroak jaiaren harira**

Pablo Akaros, Haitz, Ion2, Lalas, Mitx eta Eneko disko jartzaileek jardungo dute.

Bihar, zapatua, 00:00etan, Jam aretoan.

BERGARA
**> Disko jartzaileen emanaldia Ziripot tabernan**

Gaur, egubakoitza, Mansillak jardungo du; bihar, zapatua, Balzak.

Biak ala biak, 23:00etan.

BERGARA
**> Hesian (Etxarri) eta Intifada (Katalunia) taldeen emanaldia**

Txosna batzordeak antolatu du Kilometroak jaiaren bezperarako.

Bihar, zapatua, 22:00etan, Munibe plazan.

OÑATI
**> Tapia eta Leturiak emanaldia egingo dute**

San Migel jaien barruan egingo dute emanaldia.

Bihar, zapatua, 23:00etan, txosnagunean.

## Antzerkia

OÑATI
**> Scura Splats Valentziako taldearen ikuskizuna**

*Flit* izeneko ikuskizuna egingo dute San Migel jaien barruan.

Etzi, domeka, 18:30ean, Herriko Plazan eta inguruko kaleetan.

ELGETA
**> Gipuzkoako bertso txapelketaren barruko saioa**

Nahikari Gabilondo, Xabi Astigarraga, Eñaut Uriarte, Alaia Martin, Egoitz Alkorta eta Manu Gorionaga arituko dira.

Bihar, zapatua, 18:00etan, Espaloia Kafe Antzokian.

## Erakusketak

ELGETA
**> 'TMEO' aldizkariaren azalak ikusgai jarri dituzte**

Aldizkari ezagunaren 39 azal jarri dituzte ikusgai Espaloia Kafe Antzokian.

Urriaren 31ra arte.

ARRASATE
**> Jon Idigoras akuarela egilearen erakusketa**

55 urteko ermuarrak 100etik gora sari jaso ditu bere akuarelekin.

Urriaren 19ra arte, Iñigo Arregi aretoan.

ARRASATE
**> 'Emakumearen errealitateari begira' delako erakusketa**

Bikoitza da erakusketa. Batetik, emakumeekiko indarkeriaren aurkako kartelak daude; bestetik, argazki erakusketa bat: *Leiho bat zabalik emakume etorkinen bide luzean*.

Urriaren 28ra arte, Kulturateko klaustroan.

## Ikastaroak

ARRASATE
**> Literatura solasaldietan izena emateko epea zabalik dago**

Urrian hasi eta 2008ko ekainera arte iraungo dute eskolek. Euskaraz eta gaztelaraz izango dira.

Izena emateko jo Kulturatera, hilaren 18ra baino lehen.

ARRASATE
**> Aisialdi begirale ikastaroa Jardun eta Txatxilipurdirekin**

Jaurlaritzak homologatutako titulua lortzeko aukera ematen du. 200 ordu teoriko eta 120 praktiko dira. Prezioa da 350 euro. Arrasateko Udalak matrikularen%50 diruz laguntzen du eta Bergarakoak %60. Izena eman daiteke Jardunen (943 76 08 19) eta Txatxilipurdin (943 79 54 46).

Izenematea da urriaren 11ra arte.

ARETXABALETA
**> Haurrei masajeak ematen ikasteko ikastaroa**

Bost saio izango dira: urriaren 18an, 23an, 25ean, 30ean eta 31n, 17:00-18:30. Eskolak hasi aurretik, hilaren 16an, aurkezpena egingo dute, 18:00etan –ume barik joan behar da–. Ikastaroa gomendatuta dago hilabete batetik 4ra arteko umeendako.

Izena Kurtzebarrin eman behar da.

ANTZUOLA
**> 'Gorputzaren musikak' izeneko tailerra egingo dute**

Urriaren 20an izango da, 10:00etatik 13:00etara, Olaran etxean. Prezioa da 15 euro eta izena emateko azken eguna, urriaren 7a.

Izena emateko deitu: 626 27 44 10 (Eider) eta 670 45 19 62 (Enara).

ARRASATE
**> Joskintza tailerra antolatu du Ekin Emakume Taldeak**

Hastapen maila da –botoiak eta kremailerak nola jarri, barrenak nola hartu...– eta 10-12 pertsonarendako lekua dago. Urriaren 22an, 23an eta 25ean izango dira eskolak, 18:00etatik 20:00etara.

Izenematea da urriaren 18a baino lehen, elkartean, 15:30-18:30 ordutegian.

ARRASATE
**> Gazteendako ikastaroak Gazte Bulegoaren eskutik**

Bost ikastaro antolatu ditu: Argazkigintzari dagokionez, urriaren 16tik abenduaren 18ra izango da, martitzenetan, 18:30-20:30 ordutegian, Kulturaten. Antonio Murillok emango ditu eskolak. Dantza afrikarrak ere egongo dira, urriaren 15etik azaroaren 14ra, astelehen eta eguaztenetan, 18:30-20:30, Kulturaten. Euskal dantzen ikastaroa, berriz, Lore Gazteak taldeko kideek emango dute hilaren 19tik abenduaren 14ra, egubakoitzetan, 19:00-20:30, Lore Gazteak taldearen lokalean. Alboka ikasi nahi duenak hilaren 20tik martxoaren 15era egin ahalko du, zapatuetan, Angel Agirianoren eskutik, Monterronen. Azkenik, perkusio ikastaroa ere izango da hilaren 15etik abenduaren 17ra, astelehenetan, Gazteluondo eskolan, Iñaki Bruñaren eskutik. Ikastaroon matrikula da 20 euro; 12, ikasle edo langabeendako.

Izenematea Gazte Buelgoan (943 77 00 65).

ARRASATE
**> Yoga ikastaroak Arrasate Yoga Elkartearekin**

PROPOSAMENA

ARRASATE
### > Gaur, egubakoitza, egingo du Maritxu Kajoik urteroko miraria

Arrasatearrek egun handia ospatuko dute gaur: Maritxu Kajoi, hain justu ere. Eguerditik goizaldera arte, primerako giroa izango da Arrasaten. Maritxuk zein mirari egingo duen ez dakigu, baina txikiteroek hari 20:30ean egingo diote urteroko lore eskaintza. Gauerdian, dantzaldia izango da Herriko Plazan, Izotz taldearekin.

Gaur, egubakoitza, egun osoan barrena.



# Urriak 5-12

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 01/02** • Faxa: **943 25 05 13**

## Bertsolaritza



OÑATI
**> San Migeletako bertso jaialdian puntako bertsolariak arituko dira**
Puntako bertsolariek ez diote hutsik egingo urtero San Migel jaietan egiten den bertso saioari. Gaur, egubakoitza, izango da, 22:30ean, Zubikoa kiroldegian. Jardungo dute: Maia, Arzallus, Agirre, Colina, Elortza eta Irazu bertsolariek.

## Musika



BERGARA
**> Mami Sakato japoniarrak organo emanaldia egingo du**
Bihar, zapatua, egingo du emanaldia, 20:00etan, San Pedro parrokian. Kontzertu hori dago organo erromantikoaren nazioarteko VI. zikloaren barruan. Tokioko Himonya eliza katolikoko organo jotzailea da.

## Erakusketa



BERGARA
**> Matias Azkarate margolariaren natura hil eta paisaiak ikusgai**
15 lan zintzilikatu ditu Matias Azkaratek Nahikari tabernako paretetan; guztiak paisaiak eta natura hilak. Beart elkartean dihardu eta Ricardo Azkargortaren ikaslea da. Erakusketa hil bukaera arte egongo da zabalik.

# Musika

ARRASATE
**> Ellectric Maritxu Frydays jaia Maritxu Kajoi ospatzeko**
Hainbat disko jartzailek hartuko dute parte: Troy Piercee (AEB), Kasper&Papol (Madril), Gonzalo Morbid (Bilbo), Koldo Intermusic (Donostia), Haitz Jamclub (Arrasate) eta Ion2 Ef (Arrasate).
Gaur, egubakoitza, 23:00etan, 3.60 aretoan.

OÑATI
**> San Migel jaien barruko rock kontzertua txosnagunean**
Jardungo dute honako taldeek: Astopitoak, Manifa, Karkaba, Triskantza eta Clavo Oxidado.
Gaur, egubakoitza, 20:00etan.

BERGARA
**> Disko jartzaileak Kilometroak jaiaren harira**
Pablo Akaros, Haitz, Ion2, Lalas, Mitx eta Eneko disko jartzaileek jardungo dute.
Bihar, zapatua, 00:00etan, Jam aretoan.

BERGARA
**> Disko jartzaileen emanaldia Ziripot tabernan**
Gaur, egubakoitza, Mansillak jardungo du; bihar, zapatua, Balzak.
Biak ala biak, 23:00etan.

BERGARA
**> Esian (Etxarri) eta Intofada (Katalunia) taldeen emanaldia**
Txosna batzordeak antolatu du Kilometroak jaiaren bezperarako.
Bihar, zapatua, 22:00etan, Munibe plazan.

OÑATI
**> Tapia eta Leturiak emanaldia egingo dute**
San Migel jaien barruan egingo dute emanaldia.
Bihar, zapatua, 23:00etan, txosnagunean.

# Antzerkia

OÑATI
**> Scura Splats Valentziako taldearen ikuskizuna**
*Flit* izeneko ikuskizuna egingo dute San Migel jaien barruan.
Etzi, domeka, 18:30ean, Herriko Plazan eta inguruko kaleetan.

ELGETA
**> Gipuzkoako bertso txapelketaren barruko saioa**
Nahikari Gabilondo, Xabi Astigarraga, Eñaut Uriarte, Alaia Martin, Egoitz Alkorta eta Manu Gorionaga arituko dira.
Bihar, zapatua, 18:00etan, Espaloia Kafe Antzokian.

# Erakusketak

ELGETA
**> 'TMEO' aldizkariaren azalak ikusgai jarri dituzte**
Aldizkari ezagunaren 39 azal jarri dituzte ikusgai Espaloia Kafe Antzokian.
Urriaren 31ra arte.

ARRASATE
**> Jon Idigoras akuarela egilearen erakusketa**
55 urteko ermuarrak 100etik gora sari jaso ditu bere akuarelekin.
Urriaren 19ra arte, Iñigo Arregi aretoan.

ARRASATE
**> 'Emakumearen errealitateari begira' delako erakusketa**
Bikoitza da erakusketa. Batetik, emakumeekiko indarkeriaren aurkako kartelak daude; bestetik, argazki erakusketa bat: *Leiho bat zabalik emakume etorkinen bide luzean*.
Urriaren 28ra arte, Kulturateko klaustroan.

# Ikastaroak

ARRASATE
**> Literatura solasaldietan izena emateko epea zabalik dago**
Urrian hasi eta 2008ko ekainera arte iraungo dute eskolek. Euskaraz eta gaztelera z izango dira.
Izena emateko jo Kulturatera, hilaren 18ra baino lehen.

ARRASATE
**> Aisialdi begirale ikastaroa Jardun eta Txatxilipurdirekin**
Jaurlaritzak homologatutako titulua lortzeko aukera ematen du. 200 ordu teoriko eta 120 praktiko dira. Prezioa da 350 euro. Arrasateko Udalak matrikularen %50 diruz laguntzen du eta Bergarakoak %60. Izena eman daiteke Jardunen (943 76 08 19) eta Txatxilipurdin (943 79 54 46).
Izenematea da urriaren 11ra arte.

ARETXABALETA
**> Haurrei masajeak ematen ikasteko ikastaroa**
Bost saio izango dira: urriaren 18an, 23an, 25ean, 30ean eta 31n, 17:00-18:30. Eskolak hasi aurretik, hilaren 16an, aurkezpena egingo dute, 18:00etan –ume barik joan behar da–. Ikastaroa gomendatuta dago hilabete batetik 4ra arteko umeendako.
Izena Kurtzebarrin eman behar da.

ANTZUOLA
**> 'Gorputzaren musikak' izeneko tailerra egingo dute**
Urriaren 20an izango da, 10:00etatik 13:00etara, Olaran etxean. Prezioa da 15 euro eta izena emateko azken eguna, urriaren 7a.
Izena emateko deitu: 626 27 44 10 (Eider) eta 670 45 19 62 (Enara).

ARRASATE
**> Joskintza tailerra antolatu du Ekin Emakume Taldeak**
Hastapen maila da –botoiak eta kremailerak nola jarri, barrenak nola hartu...– eta 10-12 pertsonarendako lekua dago. Urriaren 22an, 23an eta 25ean izango dira eskolak, 18:00etatik 20:00etara.
Izenematea da urriaren 18a baino lehen, elkartean, 15:30-18:30 ordutegian.

ARRASATE
**> Gazteendako ikastaroak Gazte Bulegoaren eskutik**
Bost ikastaro antolatu ditu: Argazkigintzari dagokionez, urriaren 16tik abenduaren 18ra izango da, martitzenetan, 18:30-20:30 ordutegian, Kulturaten. Antonio Murillok emango ditu eskolak. Dantza afrikarrak ere egongo dira, urriaren 15etik azaroaren 14ra, astelehen eta eguaztenetan, 18:30-20:30, Kulturaten. Euskal dantzen ikastaroa, berriz, Lore Gazteak taldeko kideek emango dute hilaren 19tik abenduaren 14ra, egubakoitzetan, 19:00-20:30, Lore Gazteak taldearen lokalean. Alboka ikasi nahi duenak hilaren 20tik martxoaren 15era egin ahalko du, zapatuetan, Angel Agirianoren eskutik, Monterronen. Azkenik, perkusio ikastaroa ere izango da hilaren 15etik abenduaren 17ra, astelehenetan, Gazteluondo eskolan, Iñaki Bruñaren eskutik. Ikastaroon matrikula da 20 euro; 12, ikasle edo langabeendako.
Izenematea Gazte Buelgoan (943 77 00 65).

ARRASATE
**> Yoga ikastaroak Arrasate Yoga Elkartearekin**

PROPOSAMENA

ARRASATE
### > Gaur, egubakoitza, egingo du Maritxu Kajoik urteroko miraria

Arrasatearrek egun handia ospatuko dute gaur: Maritxu Kajoi, hain justu ere. Egunditik goizaldera arte, primerako giroa izango da Arrasaten. Maritxuk zein mirari egingo duen ez dakigu, baina txikiteroek hari 20:30ean egingo diote urteroko lore eskaintza. Gauerdian, dantzaldia izango da Herriko Plazan, Izotz taldearekin
Gaur, egubakoitza, egun osoan barrena.



Hasierako ikastaroak emango dituzte astelehenetan, urtarrilaren 28ra arte eta eguaztenetan, urtarrilaren 30era arte. Elkartearen egoitza dago Altamira auzoan: Jose Luis Iñarra pasealekua 26-18 B.
Informazio gehiago: *www.arrasateyoga.org*.

BERGARA
**> Ume eta gazteendako pintura ikastaroa Beart elkartearekin**
Martitzen eta eguenetan izango dira eskolak, 10:00etan, 17:00etan eta 20:00etan.
Izena emateko: 653 71 53 82 (Mayra) eta 665 70 31 75 (Oihana).

ARETXABALETA
**> Askotariko eskulan ikastaroak Tril emakume taldearekin**
Eskulan ikastaroa urriaren 9an hasiko da. Rosa del Aguilar izango da irakaslea. Eskolak martitzenetan izango dira, 18:00-20:00. Bestalde, gantxillo, parchword, puntu eta brodatu ikastaroa ere egongo da, urriaren 10etik aurrera. Eskolak Blanca Pereak emango ditu, eguaztenetan, 18:00-20:00. Ikastaroon prezioa da 25 euro bazkideendako eta 50 gainerakoendako.
Batean zein bestean izena emateko epea da urriaren 2tik 8ra, Loramendin.

## Ospakizunak

OÑATI
**> Askotariko produktu eta animaliak San Migel azokan**
Behiak, ardiak, ahariak, txerriak, oiloak, gazta, fruta, barazkiak... Hori guztia sagardo dastatzearekin eta trikitilariek lagunduta. Animalia eta baserriko produktu onenek saria jasoko dute.
Bihar, zapatua, 10:30ean, erdigunean.

ARETXABALETA
**> Udalak jaieguna antolatu die erretiratuei**
Hainbat ekitaldi izango dute: 11:00etan, salda banatuko dute, Basotxon; 12:30ean, meza izango dute parrokian eta 13:30ean, bazkaria kiroldegian. Bazkaldu eta gero, dantzaldia egongo da Ludi-Berri taldearekin eta baita opari banatzea ere.
Bihar, zapatua.

## Bestelakoak

OÑATI
**> Sanmigeletako herri kirol jaialdia**
Trontza, aizkorarekin eta harria jasotzen jardungo dute, besteak beste.
Bihar, zapatua, 18:00etan, Herriko Plazan.

OÑATI
**> 12 eta 16 urte arteko gaztetxoendako parkea**
Skatea, rokodromoa, tirolina, herri kirolak, perkusio tailerrak eta malabarrak, besteak beste.
Etzi, domeka, 12:00-14:00 eta 17:00-20:00. Etxaluzen.

# Zinema




## Promesas del Este ****

**Zuzendaria:** David Cronenberg.
**Aktoreak:** Viggo Mortensen, Naomi Watts, Vincent Cassel .
Ingalaterra. 2007.
99 min.

Betidanik David Cronenberg zuzendari Kanadarriak (*Videodrome, Inseparables, El almuerzo desnudo*) oso zinema pertsonala egin du: sortzen dituen irudiak eta istorioak indar handikoak dira, gizakiaren alde ilunean eta alde basatian murgiltzen da, indarkeriak eta ukitu morbosoek badute bere tokia, eta filmek amesgaiztoen atmosfera izaten dute.

Cronenbergek bere bi azkeneko lanetan, *Una historia de violencia* eta *Promesas del Este*, trhiller eta zinema beltz generoetara jo du. Aipatutako azkena Londresen kokatzen da eta agertzen diren pertsonaien jatorria errusiarra da. Hala, Naomi Wattsen pertsonaiak, heriotza bat eta jaiotze bat direla medio, Londresen finkatuta dagoen mafia errusiarrarekin topo egingo du, eta hortik aurrera pertsonaia desberdinen artean sortzen diren harreman eta lotura sentimental desberdinak ezagutzeko aukera izango dugu: mafiako aita eta semearen artekoa, Viggo Mortensenek egiten duen pertsonaiarenganako sentimenduak eta Wattsek bere familiarekin, Mortensenekin eta mafiarekin dituen harremanak. Horiek guztiak nahiko anbiguoak dira.

Anbiguotasun horrek tonu kezkagarria ematen dio filmari, eta Cronenbergek bere maisutasuna erakusten du istorioari erritmo eta tonu egokia emanez. Pertsonaien arteko topaketa bakoitzean tentsioa eta arriskua nabariak dira, eta noizbehinka tentsio horiek indarkeri eztandak ekartzen dituztenean, Cronenbergek eszena horiek indar handiz eta detaile guztiekin filmatzen ditu.

*Promesas del Este*-n kontatzen dena eta kontatze era oso modu egokian biltzen dira, eta horrela oso lan sendoa eta distiratsua lortzen da.

**Antonio Zabala**

### ARRASATE
**AMAIA ANTZOKIA**

**Los Simpson, la pelicula**
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Half Nelson**
Eguena: 20:30.

### EIBAR
**UNZAGA**

**Un corazon invencible**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:30.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**Promesas del Este**
17:30, 20:45, 22:30.

**Hairspray**
17:30, 20:00.

**La extraña que hay en ti**
17:00, 19:45, 22:30.

**El ultimo beso**
22:30.

**Hora punta 3**
17:30, 20:00, 22:30.

**El asesino (War)**
17:30, 20:00, 22:30.

**La gran estafa**
17:00, 19:45, 22:30.

**Un plan brillante**
17:00, 19:45, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Siete mesas de billar Frances**
17:30, 20:00, 22:30.

**Conversaciones con mi jardinero**
17:30, 20:00, 22:30.

**Un corazon invencible**
17:30, 22:30.

**¿Y tu quien eres?**
20:00.

**Mataharis**
17:30, 20:00, 22:30.

**No basta una vida**
17:00, 19:15, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**Concierto Heroes del Silencio**
20:45.

**Un plan brillante**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**Siete mesas (de billar Frances)**
12:15, 16:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**El asesino**
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Los hermanos Solomon**
12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

**Promesas del Este**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Hora punta 3**
16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**La extraña que hay en ti**
17:30, 20:00, 22:30, 00:50.

**La gran estafa**
20:00, 22:15, 00:30.

**Disturbia**
12:15, 15:30, 17:45.

**Sin reservas**
20:30, 22:40, 00:50.

**Guardianes del dia**
19:00, 21:40, 00:15.

**Salir pitando**
12:15, 16:25, 18:25, 20:25.

**Hairspray**
12:15, 16:10, 18:20.

**Os declaro marido y marido**
19:40, 22:20, 00:35.

**La jungla de cristal 4.0**
19:15, 21:45, 00:15.

**Movida bajo el mar**
12:15, 15:35, 17:20.

**Death proof**
22:25, 00:35.

**El ultimatum de Bourne**
20:15, 22:25, 00:40.

**Papa canguro**
12:15, 15:40, 17:40.

**Locos por el surf**
12:15, 15:45, 17:25.

**Los 4 fantasticos y Silver Surfer**
12:15.

**Harry Potter V**
12:15.

**Ratatouille**
12:15, 15:55, 18:05.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**La extraña que hay en ti**
17:00, 19:45, 22:20, 01:00.

**Hora punta 3**
16:15, 18:10, 20:10, 22:15, 00:30.

**Sin reservas**
15:50, 18:05, 20:20, 22:35.

**Guardianes del dia**
16:30, 19:15, 22:00.

**Salir Pintado**
16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**Disturbia**
17:00, 19:30, 22:30, 01:00.

**Y tu quien eres**
20:15, 22:20.

**Os declaro marido y marido**
19:15, 22:05.

**Hairspray**
17:15, 20:00, 22:25, 01:00.

**Cabeza de muerte**
16:20, 18:20.

**Un corazon invencible**
16:00, 18:10, 20:25, 22:40.

**La jungla 4.0**
16:10, 19:10, 22:10, 01:00.

**Los ojos del mal**
20:15, 22:10, 00:30.

**Movida bajo el mar**
17:30.

**Sigo como Dios**
16:05, 18:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Ratatouille *****
AEB, 2007. Zuzendaria: Brad Bird. Marrazki bizidunak.
110 min.
Remy sagu mokofina da, eta ez da konformatzen zaborrontzietako jakiekin. Parisko jatetxe onenetako baten chefa izan nahi du.

**Amor y otros desastres**
Erresuma Batua, 2006. Zuzendaria: Alek Keshishian. Aktoreak: Brittany Murphy, Matthew Rhys, Orlando Bloom, Gwyneth Paltrow.
90 min.
Bere lagun onenei bikotekidea aurkitzen iaioa da Emily Jackson *Jacks*. Baina besteei maitasun kontuetan laguntzen dien arren, ezagutuko ote du bere maitasun handia, agertzen denean?

**Bratz: La Película**
AEB, 2007. Zuzendaria: Sean McNamara. Aktoreak: Nathalia Ramos, Janel Parrish.
110 min.
Yasmin, Jade, Sasha eta Cloe betiko lagun minak dira. Institutuan hasten direnean, arazoak izango dituzte, ikasgelako neska zaharrago batek ezarritako arauak ez betetzeagatik. Euren lagun taldea osatuko dute, hari aurre egiteko.

**El ultimatum de Bourne *****
AEB, 2007. Zuzendaria: Paul Greengrass. Aktoreak: Matt Damon, Julia Stiles, Joan Allen.
111 min.
Bi kazetari desagertu egingo dira CIA ikertzen ari direnean. Jason Bournek ikerketa horrekin jarraituko du, iragana argitu nahian eta erakundearekin zorrak kitatu nahian jarraituko du Bournek ikerketarekin.

**Locos por el surf *****
AEB, 2007. Zuzendaria: Chris Buck. Animazioko filma.
85 min.
Pinguino batek lehiaketa ikusgarri eta arriskutsu batean parte hartu behar du. Pinguinoen Munduko Surf Txapelketan, hain justu ere. Cody Maverick pinguino gaztetxoarendako lehen txapelketa profesionala izango da. Nola jardungo du txapelketan? Zer ekarriko diotxapelektan parte hartzeak?

**Caotica Ana *****
Espainia 2007. Zuzendaria: Julio Medem. Manuela Velles, Bebe, Asier Newman.
120 min.
An 18 urteko margolaria, artea ikastera joango da Madrilera. Pertsona baikor eta alaia da, baina hipnosi baten ondoren, bizitza aldatuko zaio. Ezagutzen ez dituen beste emakume batzuk agertuko zaizkio; guztiak 22 urterekin hil ziren, eta Anaren inkontzientean daude. Erantzun bila hasiko da.

**La Jungla 4.0**
AEB, 2007. Zuzendaria: Len Wiseman. Aktoreak: Bruce Willis, Timothy Olyphant, Justin Long.
129 min.
Uztailaren 4a, Ameriketako Estatu Batuetan. Ziber erasotzaile batzuek AEBetako sistema informatikoa suntsitu eta blokeatuko dute, kaosa sorraraziz. Thomas Gabriel gaiztoak plan perfektua duela uste du, baina John McClane polizia beteranoak gauzak zail jarriko dizkio.

**nire aukera**



Joxe Arantzabal
Eskoriatzako HUHEZIko irakaslea

## Arineketan emaztearekin

Zapatu goizetan arineketan egiten dute Joxe Arantzabalek eta haren emazte Begok. Egun hori, gainera, aprobetxatzen dute prentsa irakurtzeko. Arratsaldez lan apur bat egin ordenagailuan, lo kuluxka bat telebistaren aurrean, eta iluntze aldean kafe bat hartzen dute beste lagun batekin.

Domekan, goiz jaikitzen da Arantzabal, Euskadi Irratian duen irratsaioa prestatzeko. Eguerdian, berriz, "ama jaso Arrasaten, eta Fatima arrebaren baserrian bazkaltzen dugu, Elorrion", dio. "Arratsaldean paseatu, lan apur bat egin eta ohera".

**Ibarrera datorren lagunari zer erakutsiko zenioke?**
Asti gutxi izanez gero, Arrasate, Bergara eta Oñati erakutsiko nizkioke. Baita Urkulu, Apotzaga eta Arantzazu ere. Eta denbora apur bat gehiago izanez gero, Urbia eta Degurixa.

**Gure lagunik onenetarikoa bilakatzen ari da internet?**
Zorionez, lagun asko ditugu: liburuak, futbola, mendia, telebista, zinea... eta horietako bat, bat gehiago, Internet da.

**Gehiegi baloratzen ote dugu aisialdia?**
Faltan sentitzen dugun neurrian baloratuko dugu, seguruenik. Sekula baino denbora gehiago dugu libre, baina inoiz baino estuago gabiltza. Hortik aisialdiaren mira.

**Gomendatu liburu bat eta disko bat.**
*Mailuaren odola*, Aingeru Epalzaren azken eleberria. Diskoen artean, berriz, *Come away with me*, Norah Jones gaztearen lehen diskoa.

**Pilarikako zubirako planik baduzu?**
Egun berezia da guretzat, ze Bego emaztearen urtebetetzea da. Bestetik, mahats bilketa eguna izango dugu aurten, inoiz baino beranduago, arrebaren baserrian. Egun horri urteko ederrenetako bat izaten da guretzat, festa handia egiten dugulako mahatsaren inguruan.

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2007-10-05

# Beti arte, Biona taberna

**HISTORIA** Taberna 1955a ezkero dago zabalik eta 1977an sei laguneko taldeak hartu zuen, Sagra Lopez tartean

**AURRERAKOIAK** Konpromiso handia izan du herri mugimenduarekin eta momentu sozialarekin: presoekin...

**OMENALDIA** Maritxu Komisiñuek egindako omenaldiak hunkitu egin ditu, herritarren esker ona izan delako

**MIRARI ALTUBE** > ARRASATE

Arrasateko Zurgin kantoian dago Biona taberna. Ez da handia, baina bai oroitzapenez betea: herriko presoen argazkiak, era guztietako kartel eta deialdiak, mahai-futbola... Eta lasai egoteko mahaiak.

Taberna 1955a ezkero dago, eta aurretik ardandegia izan zen. Bengoa ahizpena zen eta Biona izena ere hortik datorkio. Halaxe azaldu digu Sagra Lopez kideak: "1977an sei laguneko talde batek hartu genuen; taldean Bengoatarren iloba bi zeudelako utzi zigutelakoan nago". Eta orduko taldetik geratzen den bakarra da Lopez.

**HERRITARREN ESKER ONA**

Azken 30 urteotan arrasatear askoren topaleku izan da Biona: "Estiloa aurrerakoia izan dugu beti, eta herri mugimenduarekin eta momentu sozialarekin konpromiso handikoa: presoekin, Santa Agedatik datozenekin, orain 30 urte abortuaren gaineko argibideak gura zituztenekin...". Eta, hain zuzen, horregatik tabernako hainbat kide egon dira atxilotuta, isunak jaso dituzte eta epailearen aurrera eraman izan dituzte. Gorabehera askoren testigu ere izan da Biona; punk sasoiaren testigu, esaterako: "Talde askok eman dituzte kontzertuak: Cicatriz, Kortatu, Rip, Korroskada, Agressive Kombat eta beste askok. Herritarren arazoen gaineko kantuak egiten zituzten guztiek eta gure pentsaerarekin bat zetozen".

Oroitzapen gozoak eta garratzak ditu Lopezek: "Kartzelatik irten berri diren presoak euren argazkia kentzera etorri izan direnean une politak bizi izan ditugu; pentsa zenbat 30 urtean. Eta zailak ere bai, ertzainak sartu zaizkigunean, eta norbait atxilotu".

Datorren martxoan itxiko ditu ateak Bionak, kontratua orduantxe bukatzen zaielako: "Baina gure espiritua eta mezua ez dira galduko, Arrasaten badaudelako hori jaso duten hainbat taberna".

Agur esan aurretik, baina, Maritxu Komisiñuen omenaldia jaso dute: "Herritarren esker ontzat hartu dugu omenaldia, eta bihotzera iritsi zaigu", bukatu du Lopezek.



**BIONA** Sagra Lopez eta Pili Negro tabernariak Bionako barraren aurrean. M.A.

## ahobero

**"Euskararen etorkizuna? Ba, ez dakit, ni Madrilen bizi naiz eta; gainera, ez zait inporta, ez da nire hizkuntza"**

**Jon Juaristi** > Idazlea

Argi eta garbi esan digu: ez da euskaldun sentitzen. Eta euskaldruntasunarekin zerikusia duen guztia baztertzen du. Hala ere, sei hizkuntza dakizkiela dioenak sentsibilitate apur bat beharko luke.

## iturri onetik

**Aldizkaria egingo du Aretxabaletako Udalak herritarrei hilero banatzeko**

Aretxabaletako Udalak aldizkaria argitaratzeko asmoa dauka, herritarrek Udalean egiten duten lanaren berri izan dezaten. Oraindik ez dute erabaki bi orri edo lau izango dituen, baina bai hilabetekaria izango dela eta etxe guztietara banatuko dutela.

Bestalde, Udalak webgunea berritzeko asmoa du. Webgune bizi eta eraginkorra egin gura du, herrian gertatzen den guztia jasotzeko.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Bidegorriak

Emeki-emeki, ari da garatzen ibarreko bidegorri sarea. Eskoriatza eta Arrasate kasik jarraian egiteko moduan leudeke –ez bainaiz oraindik ibilioinez nahiz bizikletaz, patxada ederrean. Gogora ekarri dit Urbina-Maltzaga deitzen zen egitasmoaren eztabaidan nola saiatu ginen talde bat bidegorria egitasmoaren baitan txertatzen. Lan hari eta beste batzuei esker, bidean da bide berri gorria.

Bi puntu. Bat, bidegorriak erabiltzen dira baliagarri diren heinean. Zati txikiek ezer gutxi balio dute, sarea behar da. Zatiak sarean lotu ahala hasten da bidegorria ohituretan eragiten. Eta bi, bidegorria gehi tranbia eta autobusa, ibarreko mugikortasuna goitik behera aldatu behar da. Autoentzat biltegiak, eta garraio zentzuduna, iraungarria.

## ai, ene!



**Adarretan eguzki-plakak dituen zuhaitza**

Kaleak dotoretzeaz gain argia ematen du adarretan eguzki-plakak dituen zuhaitzak. Vienako museoan dago ikusgai.

http://gizmologia.com



GOIENKARIAren PUBLIZITATE GEHIGARRIA

# Kilometroak 07

Egubakoitza / 2007ko urriaren 5a / **Arduraduna:** Eneko Azkarate / **Maketazioa:** Oxel Arrieta

## Domekan Bergaran




AZALA: OXEL ARRIETA




250
lagunentzako
jantoki berritua!

LASA jatetxea

Ozaeta jauregia
Tel.: 943 76 10 55
BERGARA


PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar
project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA
Merkatuko kehen markak
Gremioen koordinazioa
Mota askotako estiloak
Telleria 23, D5 pabilioia
Labegaraieta industrialdea
BERGARA
Tel. 943 76 98 30 / Fax: 943 76 52 44
www.iparproject.com


Udazkena, inoiz baino alaiago!
UNITED COLORS OF BENETTON.
Maalako Errabala 13
ARRASATE
943 79 50 78

■ ELKARRIZKETA: UNAI AZKARATE / KMK 07KO KOORDINATZAILEA

# "Dena gertu dago domekako jairako"

ARANTZAZU EZKIBEL

**Orain urtebete hasi zen Unai Azkarate Kilometroetako koordinatzaile lanetan. Gertutik ezagutzen du 27 urteko bergararrak Aranzadi ikastola, hura ere ikastolako ikasle izandakoa da-eta. Hilabete hauetako lanaren balorazio positiboa egin du Azkaratek; orain, eguraldiak laguntzea falta da.**

**Hainbeste hilabete lanean aritu eta gero, bertan da egun handia. Zer sentitzen da?**

Bai, hala da. Urte guztian aritu gara ekintzak antolatzen; abenduaren 1ean hasi ginen moda desfilearekin, eta gero, abestiaren aurkezpena egin genuen, baita pilota partidua Mikel Goñirekin… Denetik egin dugu. Hortaz, orain egun handiaren zain gaude; ea eguraldi ona egiten duen. Guk, behintzat, dena gertu daukagu domekan izango den jaiari begira.

Egia esaten badizut, urduritasun pixka bat badaukat; Bergarak herri bezala zelan erantzungo duen ikusi behar da, aspaldian ez da-eta horrelako ezer antolatu gure herrian.

**Koordinatzaile moduan, zer egin zaizu gogorrena?**

Ez da ezer egon gogorrena egin zaidana; lan handia egin dugu eta dena izan da gogorra. Kontuan hartu behar da urtebeteko lana izan dela; egun osoko jardunaldiak izan dira, bai ikastolan eta bai kanpoan aritu gara lanean.

**Zeintzuk dira Bergarara etortzeko arrazoiak?**

Domekarako ikuskizun ederra prestatu dugu; milaka euro gastatu dugu horiek antolatzen. Gainera, Bergarako ondare kulturala ere badago; arrazoi historiko eta pisu historiko handiko jauregiak ditu Bergarak Euskal Herriari erakusteko. Egun polita izango da ikastolen aldeko jaia, Bergara ezagutu eta kilometroetako ikuskizunez gozatzeko. Ibilbideak sei gune izango ditu, eta, denen artean, 20 musika talde baino gehiago arituko dira.


Unai Azkarate. GOIENKARIA

**Zer nabarmenduko zenuke domekako jaian?**

Niri musika asko gustatzen zait; hortaz, Anariren kontzertua entzutea gomendatzen dut. Baita ere Gose, Kauta, EH Sukarra…Bestalde, Kataluniako herriarekin egin dugun zubia ere interesgarria da: Rauxa eta Nour taldeek giro polita ekarriko dute, runba doinuekin. Fermin Muguruzarekin ibili diren musikariek, Esne Beltza taldeak, estreinakoa egingo du Bergaran. Eta Bergarako talde indartsuak ere egongo dira: Belceblues, Fly Shit, Emon, Orfeoia… Hori da nire gomendioa.

> "Bergarak ondare kultural eta artistiko handia du Euskal Herriari erakusteko"

> "Argi daukat boluntarioen lana ezinbesteko dela horrelako jaiak mantentzeko"

**Domekan euskarak country doinua izango du?**

Bai, bai. Abesti oso elegantea egin dute; polita da eta, gainera, abestiak oroimenean gelditzen dira. Batxilergoan dagoen jendeak komentatu dit aurtengo udako jaietan asko entzun den abestia izan dela; gainera, EITBkoek ere udako abestia izan zitekeela aurreratu ziguten abestiaren aurkezpen egunean. Guk kultura aniztasuna irudikatu gura izan dugu abestian, eta uste dut hori lortu dugula.

**Debagoiendarrek autobus zerbitzu berezia izango dute.**

Bailarako jendeari, batez ere, autobusean etortzea gomendatzen diot. Pesak bere zerbitzuak areagotu egingo ditu eta autobusean lehenengo guneraino joan ahalko dira. Autoan, ordea, Jamen geratu beharko dute.

**Nola gogoratzen duzu 1991ko Kilometroak jaia?**

Nik 11 urte neuzkan eta pegatinak ipintzen aritu nintzen; itsulapikoarekin ibili ginen.

**Eta Unai Azkaratek zer dauka argi?**

Argi daukat boluntarioen lana eskertzekoa dela: orain arte lanean aritu direnen lana eta egunean zehar lanean arituko direnen lana ere bai. Horrelako jaiak boluntarioei esker zutik jarraitzen duten jaiak dira; eta hori ez da beste leku batzuetan ikusten. Hori daukat argi!

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Energia fotovoltaikoa
Energia termikoa
Geotermikoa
ALET
ALET TALDEA S.L.
Ondo ibili Kilometroetan!
Amillaga 10, 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
620561316 / 669366953 • Faxa: 943762052
e.maila: info@alet-taldea.com • www.alet-taldea.com
Erregistro industriala: 20/28318 • INSTAGIren sozietate elkartua

■ KILOMETROAK DATUTAN

# Domekan lanean jardungo dute 1.500 boluntariok

AINTZANE IRIZAR

**Kilometroak jaia ez da nolanahikoa; jai handia da eta guztia behar bezala atera dadin jende mordoa ibiliko da lanean, 1.500 lagun inguru. Jai erraldoi horren atzean hainbat datu, zenbaki, bitxikeria eta jakin beharreko informazio dago, eta horixe ekarri dugu hona.**



Txosnak eta agertokiak muntatzen ibili dira asteon. Argazkian ikastola gunekoak. A.I.

Iazko urrian hasi ziren Aranzadi ikastolakoak Kilometroak 2007 jaia antolatzen buru-belarri. Urteteko lana izan da, eta, abenduaren 1ean aurkezpena egin zutenetik, hainbat ekitaldi izan dira: rock kontzertuak, zirkuitua ezagutzeko ibilaldia, umeendako tailerrak, bertso emanaldiak, erakusketak, hitzaldiak, pilota partiduak, bizikleta irteerak eta abar.

Domekako jaia behar bezala joan dadin, 1.500 bat lagunek jardungo dute lanean: txosnetan, garbiketa lanetan, zirkulazioa bideratzen, segurtasunaz arduratzen, txartelak saltzen eta abar. Urtean zehar ere boluntario mordoak jardun du urriaren 7ari begira lanean; 250 bat lagunek, hain zuzen ere, 15 lantaldetan edo batzordetan antolatuta; hona hemen batzorde guztiak: salmenta, ekonomia, giza baliabideak, gorena, ikuskizunak, ingurumena, iraunkorra, komunikazioa, muntaketa, osasuna, prebentzioa, protokoloa, segurtasuna, txosnak eta zirkuitua.

**30.000 ARROPA ETA OSAGARRI**

Urtean zehar boluntario gehien mugitu dituen lantaldea izan da salmentaz arduratu dena; 156 lagunek jardun dute lanean, guztira. Herririk herri Kilometroetako materiala saltzen ibili dira 80 lagun; Bergarako dendan 40 lagun eta biltegian 36. Herriz herri ibili direnek 13.171 kilometro egin dituzte Gipuzkoan zehar. Irteera bakoitzera joan dira hiruzpalau lagun. Bergarako dendan sei edo zortzi laguneko bost taldek jardun dute urte osoan lanean. Talde bakoitzak astebeteko txandak egin ditu. Biltegian, bestalde, etiketak jartzeaz eta irteeretarako materiala prestatzeaz arduratu dira 36 bat lagun.

**Urtean zehar 250 lagunek jardun dute Kilometroak 2007 jaia antolatzen**

Arropa eta osagarri mordoa jarri dituzte salgai; guztira, 30.000. Horrez gain, Gipuzkoa osoko tabernatan salgai jarri dituzte 20.000 metxero. Era guztietako materiala jarri du salgai Aranzadik: prakak, kamisetak, buruko zintak, txamarrak, soinekoak, jertseak, poltsoak...

Bergarako dendaz gain, Urbil eta Garberako Eroski hipermerkatuetan eta Azkoitiko Maxi Urolan ere salgai egon dira Kilometroetako arropak eta osagarriak, Aste Santu inguruan hasi eta irail erdialdera arte.

Domekako jaian bost denda jarriko dituzte ibilbidean zehar. Urriaren 7a igaro eta gero ere izango da, baina, arropa erosteko aukera; eguenean zabalduko dute berriro Bergarako denda, geratu dena saltzeko.






**BOST APARKALEKU**

Debagoieneko herriak eta hiriburuak Bergararekin lotzen dituzten autobus zerbitzuek maiztasun handiagoa izango dute domekan, Pesa garraio enpresarekin Aranzadi ikastolak egin duen hitzarmenaren ondorioz. Eta horixe da antolatzaileen erronketako bat, jendeak garraio publikoa erabiltzea, hain zuzen. Edozelan ere, automobilez datozenek ere izango dute non aparkatu. Guztira, 9.200 automobilendako tokia egokitu dute, bost aparkaleku handitan: Amilagako industrialdean sartuko dira lehendabiziko automobilak; aparkaleku hori betetzen denean, San Juan auzoko aparkalekuak zabalduko dituzte eta haiek betetzen direnean, Osintxuko aparkalekuan laga beharko ditu automobilak jendeak. Azken aukera izango da Antzuolan lagatzea automobila. Aparkaleku guztietatik autobus zerbitzuak egongo dira etengabe; lehenengo gunetik oso gertu lagako du jendea autobus horrek. Euro bat kostako da joan-etorria. Hamar autobus ibiliko dira egun osoan zehar. 20:00etan izango da azkenekoa.

Herri askotatik autobusak antolatzen dituzte Kilometroetarako; horiendako ere egokitu dute aparkalekua antolatzaileek; Labegaraieta auzoan aparkatuko dituzte autobusok. Guztira, 250 autobusendako tokia dago hantxe.

**SEI GUNE ETA 6.510 METRO**

Ibilbideak izango du 6.510 metroko luzera eta sei zerbitzugune egongo dira: Aranzadi ikastolan, Usondon, Matxiategin, Artabilan, Labegaraietan eta Esploloian, hain zuzen ere.

13.171
**KILOMETRO GIPUZKOAN MATERIALA SALTZEKO**

**Iazko abendutik hona 13.171 kilometro egin dituzte Kilometroetako materiala saltzen Gipuzkoako herri, auzo eta mendietan. Herrietako jaiak, azoka bereziak eta bestelako ekitaldiak aprobetxatu dituzte, bereziki. Bestalde, domekan zozketatuko duten Ford Focus C-Max automobilak ere kilometro mordoxka egin du apiriletik hona: 4.000 kilometro inguru, hain justu ere.**

150.000
**EDALONTZI BERRERABILGARRI**

**Aurten bigarren aldiz erabiliko dira edalontzi berrerabilgarriak Kilometroak jaian. 150.000 edalontzi egongo dira, guztira; horietatik 15.000 izango dira edalontzi txikiak eta gainerakoak izango dira katxi edalontziak, 1,4 litrokoak. Edalontzia eskuratzeko txartela erosi beharko da, euro baten truke; gero, txosnan, edariaren txartelarekin batera edalontziarena erakutsi beharko da. Egunaren bukaeran edalontzia bertan laga daiteke eta euroa berreskuratu. Edalontzi horiek guztiak ikastolen beste jai batzuetan erabiliko dituzte.**

12
**TXOSNA**

**Zerbitzugune bakoitzean bi txosna egongo dira, bat edariarendako eta jatekoarendako bestea. Sei zerbitzugune daude; guztira, 12 txosna.**

Gune horietan hainbat zerbitzu eskainiko dituzte: jatekoa eta edatekoa salduko dute; komunak egongo dira, baita elbarriendako egokitutakoak ere; larrialdi zerbitzuak egongo dira; izozkiak salduko dituzte eta abar. Hona hemen zerbitzuguneen gaineko beste datu bat: sei zerbitzuguneek 30.000 bat metro koadro dituzte.

**AUTOMOBIL EDERRA**

Ford Focus C-Max automobila zozketatzeko txartelak saltzen ere jo eta su ibili dira herririk herri. Apirilean hasi ziren zeregin horretan eta 4.000 kilometro egin dituzte. 65.000 txartel atera zituzten, guztira.

Urriaren 7an bertan egingo dute zozketa notarioaren aurrean eta hurrengo egunean emango dute aditzera zenbaki saritua zein izan den, hedabideetan. Gogoratu behar da iazko Kilometroetako automobila bergarar batek eraman zuela.

Antolatzaileek adierazi dutenez, irabazleari ez diote emango hilabeteotan hara eta hona ibili den automobil bera; izan ere, automobil berri-berria jasoko du zozketa irabazten duen lagunak.

**EGURALDI EDERRA**

Horixe iragarri dute adituek; antolatzaileen ardura nagusienetakoa horixe izaten da, eguraldia, alegia. Adituekin harremanetan jarri dira dagoeneko eta haiek esan diete eguraldi ona egingo duela: eguzkia eta 20 bat graduko tenperatura. Gainera, egubakoitzerako eta zapaturako ere eguraldi polita dago iragarrita. Ea, bada, adituek asmatzen duten eta jendetza batzen den domekan ikastolen aldeko jaian.

# Bazkaltzeko hiru jantoki egongo dira zirkuituan

**Eseri eta lasai-lasai bazkaltzeko aukera egongo da Kilometroetako ibilbidean zehar. Udal Pilotalekuan, Aranzadi ikastolan eta Labegaraietako kiroldegian egokituko dituzte jantokiak. Zutik ogitarteko bat jan nahi duenak ere horretarako aukera izango du edozein zerbitzugunetan.**

Hiru jantoki izango ditugu aukeran urriaren 7ko jaian: bata, Labegaraietako kiroldegian; bestea Aranzadi ikastolako zutabe patioan eta azkena frontoian. Horrela, 12 eta 15 euro bitartean, eserita, lasai eta ondo jateko aukera eskaintzen diote jendeari antolatzaileek.

Sagardotegiko menua jateko aukera izango dugu frontoian, Fraiskozuri plazan, Saizar sagardotegiaren eskutik. Hiru sagardo kupel jarriko dituzte, txotx egiteko. Menua honakoa



Sagardotegi menua Frontoian. A.I.

izango da: bakailao frijitua piperrekin, bakailao tortilla, idi txuleta eta postrerako gazta, intxaurrak eta irasagarra (menbrilloa). 500 lagunendako menuak emango dituzte, 24 eurotan.

Labegaraietako jantokian bi menu egongo dira aukeran: 15 eurokoa bata eta 12 eurokoa bestea. Lehenengoan honakoa egongo da: paella, biribilkia saltsan, gazta tarta eta edatekoa. Bigarrenean, bestalde, pasta, oilaskoa, fruta eta edatekoa. 15 euroko 200 menu eta 12 euroko 100 menu emango dituzte.

Aranzadi ikastolako zutabe patioan egongo da hirugarren jantokia. Menu bakarra egongo da hantxe, 12 eurokoa: patatak errioxar erara, solomoa piperrekin, postrea eta edatekoa. 250 menu emango dituzte.

Bazkaltzeko txartelak, kasu guztietan, egunean bertan eskuratu ahal izango dira jantokietan. 13:00etatik 15:00etara egongo da bazkaltzeko aukera hiru jantokiotan.

**OGITARTEKO AUKERA ZABALA**

Bazkaltzeko, jantokiak baino zelaiak edo kaleak nahiago dituztenendako, berriz, ogitartekoak egongo dira aukeran. Sei zerbitzuguneetan egongo dira salgai; guztira, 30.000 ogitarteko saltzeko prest daude Aranzadiko antolatzaileak.



## ARANZADI ETA KILOMETROAK 07REN HELBURUAK

# Herritik sortutako ikastolak 700 ikasle ditu gaur egun

ENEKO AZKARATE

**Orain dela 31 urte sortu zen Aranzadi ikastola, garai hartako ikastolen aldeko mugimenduaren barruan. Herrian lehendik zeuden umeendako euskarazko eskola hiru, tartean Luis Elizalde ikastola, ordezkatuz sortu zuten herritarrek, gurasoek.**





Ezkerreko argazkian, Errege Seminarioa; eskumakoan, Aranzadiko neska-mutikoak.

Gurasoak dira Aranzadi ikastolako jabeetako eta parte garrantzitsua. Herri Onurako Irakaskuntza kooperatiba da. 692 ikasle eta 455 guraso ditu Aranzadik. 2-18 urte bitarteko hezkuntza eskaintza dauka. Eta 0-2 zikloráko elkarlan akordioa sinatua dauka Haurtxoa Haurtzaindegiarekin; bertan, Aranzadin lantzen den Hezkuntza Proiektu bera garatzen dute.

Bi erakin erabiltzen ditu Aranzadi ikastolak: Errege Seminarioa eta Martinez Irala. Seminarioan 505 ikasle eta 27 talde dauzka; Martinez Iralan, hamar ikasle talde (187 ikasle).

Hezkuntza arautuaz gain, beste zerbitzu osagarri hauek eskaintzen ditu: jantokia, garraioa, ume zaintza zerbitzua, eta harrera gela.

**Kilometroetako dirua instalazioak berritzeko erabiliko du Aranzadi ikastolak**

Eskola orduz kanpo ekintza osagarriak ere antolatzen ditu: ingelesa, antzerkia, dantza, kirola…

Bere proiektu pedagogikoak elkarlan eta elkarbizitzari garrantzi handia ematen dionez, honakook ere lantzen dituzte: gurasoendako ikastaroak, gurasoendako heziketarako apunteak, elkarbizitzarako programa propioa, atzerritarren integraziorako plana, eleaniztasuna…

**KILOMETROAK, ZERTARAKO?**

Kilometroetan batzen den dirua instalazioak berriztatzeko inbertituko du Aranzadik. Obra horien bidez, alde batetik, hainbat berrikuntza pedagogiko ezarri ahal izateko espazio berriak egokituko dituzte eta, bestetik, irisgarritasuna hobetu eta hainbat instalazio berriztatuko dituzte.

Baina Kilometroak 07k, helburu ekonomikoez gain, baditu beste batzuk ere; garrantzitsuena, Bergaran, ikastolen proiektuaren alde jendea biltzea. Ikastolako arduradunek diotenez, "Kilometroak jaia, ikastolen jaia, herriaren jaia ere izate; hau da, herriak eta herriarendako elkarlanean garatutako proiektua izatea, egitarau zabal eta oparoa prestatuz". Eta baita "Bergarako herria eta Aranzadi ikastolaren arteko elkarkidetza trinkotzea eta herriaren interes orokorren alde aritzea". Horretaz gain, ikastolen mugimendua eta proiektuak ezagutzera ematea ere bada Kilometroen helburua…

Eta baita jendea euskararen alde, ikastolen alde, biltzea: "Aranzadi eta bere hezkuntza komunitatea, ikasle ohiak eta gainontzeko laguntzaileen arteko harremana eta atxikimendua areagotzea. Eta, normalizazio mailan beste urrats bat emanaz, erdal hiztunak euskarara hurbiltzeko bideak egiten jarraitzea".



Barceló
BIDAIAK

Barceló bidaiariok ere

argi daukagu

Ibargarai 8 - 20570 **BERGARA** // 943 76 08 43
Maalako Errebala 31 - 20500 **ARRASATE** // 943 79 70 11

Unea aukeratzea,
denbora aurreztea da.
Francis Bacon



Minutu bat bera ere galdu gabe, gaur egungo sukalde berritzaileenak zure etxeko beharretara egokituta aurkitu nahi badituzu. **Zatoz Bastida Sukaldeak-era.**

Hitzordua eskatzeko aukera eskeintzen dizugu, denbora aurrez dezazun. **8:45etik - 20:30era arteko ordutegi jarraia** benetan axola zaizkizun gauzetarako denbora izan dezazun.

Hitzorduetarako tfnoak.:
**azpeitia 943 150 510**
**zarautz 943 894 999**
**bergara 943 767 058**

www.bastidasukaldeak.com

bastidasukaldeak

## 1. gunea - IKASTOLA

SOS · WC

## 2. gunea - USONDO

SOS · WC

## 3. gunea - MATXIATEGI

SOS · WC

## 4. gunea - ARTABILA

SOS · WC

## 5. gunea - LABEGARAIETA

SOS · WC

## 6. gunea - ESPOLOIA

SOS · WC

Dendak · SOS Larrialdi zerbitzuak · Ezinduentzako komunak · WC Komunak

Izozkiak · Jakiak · Edariak · Diru trukea

Kafea · Edalontzien tiketa trukatzeko guneak · Jantokiak · S Sarrerak




### 4. gunea -

| | |
|---|---|
| 11:30 | Petti. |
| 13:00 | Mulanbo. |
| 14:30 | Rauxa. |
| 16:00 | Samar. |
| | Egunean |
| | tailerrak; |
| | teteria, lu |

### 5. gunea - LABEGARAIETA

| | |
|---|---|
| 11:00 | Fly Shit. |
| 12:30 | SKT Sekuentzia. |
| 14:00 | Gose. |
| 15:30 | Kauta. |
| 17.00 | EH. Sukarra. |
| | Egunean zehar: globo aerostatikoa, puzgarriak, tailerrak, rokodromoa, zubi tibetarra... |

OMEGA

Omega Elevator, s.a.

Megalift Gearless igogailu elektrikoak, makina gelarik gabe.
•
Igogailu hidraulikoak

Igogailuak auzo-komunitateetan jartzea
•
Igogailuen berritzea

Tel.: 945 29 03 08 www.omegaelevator.com Vitoria-Gasteiz




## 3. gunea - MATXIATEGI A

| | |
|---|---|
| 12:30 | Kiki, Koko eta Moko. |
| 13:30 | Erraldoi eta buruhandiak. |
| | Egunean zehar: haur jolasak, puzgarriak eta tailerrak; zirko tailerra: malabareak, hankapaluak... |

## 3. gunea - MATXIATEGI B

| | |
|---|---|
| 11:00 | Trapatoni Circus Band. |
| 12:30 | Sagarroi. |
| 14:00 | Nour. |
| 15:30 | Esne Beltza. |
| 17:00 | Trikizio. |

## ARTABILA

zehar: haur jolasak eta
Jaima gunea: chil-out
udoetnia, txiki jaima...

## 1. gunea - IKASTOLA

| | |
|---|---|
| 09:30 | Zirkuituaren irekiera. |
| 11:00 | Abarka dantza taldea. |
| 12:00 | Erraldoi eta buruhandiak. |
| 13:00 | Betizuak. |
| 14:30 | Txan magoa. |
| 16:00 | Emon. |
| 17:30 | Belceblues (KMK 07 kantua). |
| | Egunean zehar: haur jolasak... |

## 6. gunea - ESPOLOIA

| | |
|---|---|
| 12:00 | Euskaraokea. |
| 12:30 | Bergarako trikitilariak. |
| 14:00 | Aitzol Mujika. |
| 15:30 | Anari. |
| 16:30 | Futbolin erronka (BTLS-ren eskutik). |
| | Egunean zehar: haur jolasak eta tailerrak, futbolinak, artisau azoka... |

## 2. gunea - USONDO

| | |
|---|---|
| 10:30 | Musiraka dantza taldea. |
| 11:30 | Moises Azpiazu dantza taldea. |
| 12:00 | Bergarako Orfeoia eta Aritzeta abesbatza (Santa Marina elizan). |
| 12:30 | Oinutsik. |
| 14:00 | Anje Duhalde. |
| 15:30 | Pantxoa eta Peio. |
| 17:00 | Tapia eta Leturia & Jokin. |




SVMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak
Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA
103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

argi daukagu

Goitb
Goiena Telebista

Domekan 22:15ean
• Eguneko giroa.
• Elkarrizketak.
• Balorazioak.
**Asteartea 9,** 21:15ean.
**Asteazkena 10,** 13:45ean.
**Zapatua 13,** 15:00etan.
**Domeka 14,** 21:00etan.

ASTELEHENEKO
Goienkaria

Astelehenean
Kronika osatuena:
• Argazkiak.
• Elkarrizketak.
• Datuak.
• Balorazioak.
• Eguneko gorabeherak.

Ez dizu EZERK ihes egingo!

Argi daukagu!

metagra

Amillaga 22 P. K. 79 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 13 48 • Faxa: 943 76 50 34
e-mail: mse@metagra.com • www.metagra.com

■ MUSIKA

# Urretxindorrak-en abestiak Orfeoiak eta Aritzetak batera

ENEKO AZKARATE

**Denetariko eta denondako musika egongo da Kilometroetan. Denetik, onetik eta denondako. Zaila da zerbait nabarmentzea, baina azpimarratzekoa da Bergarako Orfeoiak eta Aritzeta abesbatzak elkarrekin eta instrumentuen laguntzaz eskainiko duten kontzertua.**



1991ko Kilometroetan berragerpena egin zuen Urretxindorrak taldeak, 20 urte isilean egin ostean. GOIENKARIA

Usondo gunean, Santa Marina elizan, 12:00etan izango da hori. Ekitaldia nabarmentzekoa da bi arrazoirengatik. Batetik, oso gutxitan aritzen direlako elkarrekin Bergarako bi abesbatza horiek. Hortaz, Kilometroak jaiak elkartu ditu. Bestetik, eta garrantzitsuena, Urretxindorrak taldearen moldaketak eskainiko dituztelako, eta moldaketa horiek urtetan Bergarako Orfeoiko zuzendari izan den Dabid Azurtzak egin dituelako. Hiru abestiren moldaketa egin du: *Aitorren hizkuntza zaharra, Neska zaharrak* eta *Nahi nuen kantatu.*

### 60KO HAMARKADAN OSPETSU

Urretxindorrak taldea ospetsu egin zen 60ko hamarkadan. Euskaraz kantatzen lehenengoetakoak izan ziren. Euskararen eta ikastolen alde aritu ziren han eta hemen, batez ere Bizkaian. 1966tik 1972ra bitartean bost disko txiki argitaratu zituzten. Eta, *Aitorren hizkuntza zaharra* diskotik, esaterako, 30.000 ale saldu zituzten. 1991n Bergaran egin zen Kilometroak jaian ere jo zuten. 20 urte isilean egin ostean, berragerpena egin zuten. Eta arrakastatsua izan zen haien emanaldia Bergarako Udal Pilotalekuan. Orain berriro ere dira protagonista, haien abestiak kantatuko dituztelako herriko bi abesbatza nagusiek.

### LAN NEKEZA

Grabazio estudioan harrapatu dugu Dabid Azurtza, Ameriketako Estatu Batuetarako bidaia hartzeko bezperan. Hala, Kilometroetan ezingo da Bergaran egon. Baina gustura egin ditu moldaketok. Kostata, baina gustura. "Bergarako Orfeoiaren enkargua izan da, Gipuzkoako Abesbatzen dirulaguntzaz baliatuz. Izan ere, era honetako lanetarako diru bat izaten da urtero". Lan nekeza izan dela aitortu digu Azurtzak, baina, era berean, oso gustura egin duena. "Nahikoa buruhauste eman dit, batez ere oso erreferentzia garbia nuelako abestiona, eta denok ezagutzen ditugulako Urretxindorrak taldearen abesti horiek. Aldaketak, moldaketak beharrezkoak ziren, koru batek abesteko, eta, alde horretatik, gauza berria egin nahi nuen; baina, bestetik, errespetua galdu barik, hau da, abestiaren jatorrizko erreferentzia gordeaz". Azken finean, abesti itxura berrituak, baina sorrerako espirituari eutsiz, orekari eutsiz.

Hiru abesti horiek zergatik aukeratu dituen galdetuta, hauxe dio Azurtzak: "Batez ere, kantu ezagun edo enblematikoenak aukeratu behar nituela argi izan nuen hasieratik".

Emaitza domekan ikusiko dugu. Abesbatza handi bat izango da, Orfeoiak eta Aritzetak osatua, eta hainbat instrumentu jotzaile ere bai: pianoa, txirula, klarinetea, gitarra baxua, panderoa...

AZKARATE
aroztegia
K21
argi daukagu
Arotz lanetan
behar duzun guztia

• Ateak
• Leihoak
• Horma-armairuak
• Tarimak
• Parketak
• Sukaldeak
Telleria 19, B-0-2 B-0-3 • BERGARA • Tel.: 943 76 47 19 / 610 884 020
azkaratearoztegia@euskalnet.net
www.goiena.net/blogak/azkarate

UDAZKENEKO PROMOZIOA


Nokia 5300
+ 256MBko memoria txartela
+ 
jatorrizko bozgorailu estereoak
= 29 €
BERGARA
Domingo Irala 5
Tel.: 943 76 39 79
EIBAR
Zuloagatarren 1
Tel.: 943 20 62 28
ERMUA
Bizkaia etorbidea 10
Tel.: 943 03 00 13
orange

'PRIMERAN PASA PASATU GABE'

# Kontsumo arduratsua eta errespetua lantzeko ekimena

USOA AGIRRE

**Ingurumenarekiko, nork bere buruarekiko eta gainontzekoenganako errespetuaren kontzeptua lantzea da *Primeran pasa pasatu gabe* ekimenaren helburua. Ikastolen elkarteak Askagintzarekin batera sortu zuen ekimena iazko Kilometroetan, eta aurten ere landuko dute gaia Bergaran.**



*Primeran pasa pasatu gabe* esaldia, edalontzi berrerabilgarrietan ere. USOA AGIRRE

Askagintzak *Primeran pasa pasatu gabe* proiektua gauzatu du hainbat ikastolarekin elkarlanean. Iazko Kilometroetan egin zuten lehen aldiz, eta aurten ere ekimen horri heldu diote. Helburua da errespetuaren kontzeptua lantzea, jarrera egokia izan dezaten ikastolen festara etorriko direnek: errespetua ingurumenarekiko, nork bere buruarekiko eta gainontzekoenganako. Helburu hori lortzeko urtean zehar askotariko mintegiak landu dituzte DBHko bigarren zikloko eta Batxilergoko ikasgeletan; Kilometroak jaiaren egunean ere landuko dute gaia.

**URTEAN ZEHAR IKASGELETAN**

Urtean barrena eztabaida-koadernoa eta didaktika-unitatea sortu dituzte Askagintzako kideek, gaia Gipuzkoako ikastetxeetan lantzeko; irakasleekin batera landu dute gaia ikasgeletan.

Horrez gainera, Bergaran gazte batzuk elkartu eta lantaldea osatu dute; haiek trebatu dituzte festa egunean beharrezkoak izango dituzten gaitasun eta gai zehatzen inguruan, oraingo domekako Kilometroetan bertan lan egiteko.

**AZALPENAK ETA MATERIAL UGARI**

Matxiategi eta Labegaraietako guneetan, 3. eta 5. guneetan hain zuzen ere, *Primeran pasa pasatu gabe* ekimeneko kideak egongo dira azalpenak ematen egun osoan zehar. Han egongo dira, Askagintzako kideekin batera, Bergaran sortutako lantaldeko ikasleak. Azalpenak emateaz gain, kamisetak ere banatuko dituzte; alkoholaren eta drogen erabilpenaren gaineko informazioa eskatzera doazenei kamisetak-eta oparituko dizkiete.

*Primeran pasa pasatu gabe* esaldia Kilometroetako kartel eta material ia guztietan ikusiko dugu: edalontzi berrerabilgarrietan, pegatinetan, egitarauetan, txosnetako prezioen karteletan, kamisetetan... Hori guztia, festara gerturatuko direnen artean kontsumo arduratsua bultzatu eta errespetuaren kontzeptua lantzeko.

**Errespetuaren kontzeptua landuko dute, jarrera egokia izateko festara datozenek**

**Matxiategi eta Labegaraietako guneetan egongo dira Askagintzako kideak**

Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak
Teilatuak • Kanaloiak • Bajanteak
Tximiniak • Altuerako kimatzeak
ÑAÑARRI
LAN BERTIKALAK
680 641 401
676 952 968
www.nanarri.com

ANDAMIORIK GABEKO LANAK

Ezkerretik Euskal Herria Euskalduna eraikiz.
Debagoieneko Ezker Abertzalea




GRUPO IAM

Grupo iDR S. L.

Sitalu 2001 S.L.

argi daukagu

SVMS SERVIMASA

CONSORT 2000 S.L.

SIDERMES, S. L.

**1991KO KILOMETROAK**

# Duela 16 urte ere, Kilometroak Bergaran

ENEKO AZKARATE

**Ez da lehen aldia Bergaran Kilometroak antolatzen dena. Askok gogoan izango dute 1991n ospatu zen hura. Eguraldiak ez zuen askorik lagundu, baina arrakastatsua izan zen. Orduko kronikek diotenez, 80.000 lagun batu ziren Bergaran.**

Eguna hodeiz estalia esnatu zen eta euri zaparrada ederrak bota zituen lehen orduan eta goiz partean, eguerdi aldera arte. Gero hobera egin zuen eta ostarteak ireki ziren zeruan arratsalderako. Edozelan ere, 80.000 lagun elkartu ziren Bergaran. Antolatzaileak pozik agertu ziren.

Egitarauari dagokionez, oraingoarekin antzekotasunak eta ezberdintasunak: umeendako jolasak eta dantzariak, batik bat; orain ere badaudenak. Baina orain baino musika talde gutxiago: Egan bakarra, baina baita Mikel Markez eta Kaxiano, hainbat trikitilari eta bertsolari, edo Bergarako Udal Musika Banda eta orkestra sinfonikoa. Horretaz gain, herri kirolak... Ostera, aurtengo Kilometroetan 21 musika talde edo bakarlari izango dira.

**BURU GORRIDUN 'K' URDINA**

Oraingoan bezala, orduan ere Kilometroetako abestia, logotipoa eta leloa ere izan ziren. Abestia Izaskun eta Xabier Labaienek (musika) eta Juan Martin Elexpuruk (hitzak) egin zuten. Leloa izan zen *Igo ttipi ttapa euskararen aldapa*. Umeen koru batek abestu zuen. Bestalde, logotiporako lehiaketa antolatu zuten. 159 lan aurkeztu ziren eta Aitor Ibabe 18 urteko bergarararrena aukeratu zuten: Pittinka Pittinka izeneko buru gorriko *K* urdina.

**1991ko Kilometroetan euria egin zuen, baina 80.000 lagun batu ziren**

**Orduko logotipoa izan zen Pittinka Pittinka izeneko buru gorriko 'K' urdina**

**FAMATU UGARI**

Kilometroak egunean Bergaran batutako 80.000 lagunen artean famatu ugari ikusi zitezkeen; besteak beste, Karlos Argiñano, Marino Lejarreta, Luis Mari Lopez Rekarte Aitorren anaia... Agintari eta politikoen artean, Mari Karmen Garmendia Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia, Eli Galdos orduan diputatu nagusia zena, Inaxio Oliveri Hezkuntza sailburu izandakoa, Iñigo Iruin HBko mahai nazionalekoa... eta herrikoak, Victoriano Gallastegi orduko Bergarako alkatea eta Imanol Bolinaga alkate izandakoa...









Goiko argazkietan, 1991ko Kilometroetako irudi batzuk. GOIENKARIA

López Ojeda
Amillaga 25 • Industrialdea
Biltegia: 943 762 776 - 943 763 852
20.570 BERGARA (Gipuzkoa)
Covila
Errioxako ardo beltza, urtekoa
Señorio de Ojeda
Errioxa
Castillo de Ojeda
Nafarroa
argi daukagu
ATXEGA ARDOAK S.L.



Urriak 7, Kilometroak
Ikastolaren eta euskararen jaia, Bergaran
...
oinetan garraioa
ahoan hitza
elkargintza
...
Zatoz Bergarara!
Erabil ezazu garraio publikoa!
BERGARAKO UDALA





**Asko ibili arren,
zure estiloak berdin jarraitzen du.**

# Jean Louis David

## AUSART ZAITEZ!

**TRADITION**
Ibargarai 43 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 22 48

**DIFFUSION**
**QUICK SERVICE**
Magdalena 16 • 01008 GASTEIZ • Tel.: 945 13 47 26

**DIFFUSION**
Garbera Merkataritza etxea 23 aretoa
20017 DONOSTIA • Tel.: 943 39 45 86

**DIFFUSION**
Urbil Merkataritza etxea B7 aretoa.
20170 USURBIL • Tel.: 943 36 08 17

**DIFFUSION**
Lakua Merkataritza etxea 05 aretoa
01010 GASTEIZ • Tel.: 945 17 91 50

**BULEGO ZENTRALA**
**TRANING CENTER**
Gasteiz Etorbidea 84
01012 GASTEIZ • Tel.: 945 21 42 38

Jean Louis David-ek L'ORÉAL PROFESSIONNEL produktuak erabiltzen ditu

# UGARTE
## AROZTEGIA-ALTZARIAK





- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak







**ALTZARI DENDA**
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

OROILORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

# Hileta zerbitzu eta beilatoki berria

*Momentu txar horietan sortzen diren galdera, kezka eta arazo guztiei aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da.*

- *Zerbitzu etengabea 365 egunean*
- *Behar bagaituzue aski duzue dei bat, laster joango gara zuekin egoteko: etxera, ospitalera…*
- *Erantzun azkarra, tratu pertsonala*
- *Eskelak: egunkari, irrati eta paperetan*
- *Aukera lore apainketan: koroak, erramuak eta zentroak*
- *Bete beharreko tramiteak*
- *Gorpua prestatu eta dotore ipini*
- *Zerraldo aukera, denetariko prezioak*
- *Oroilore beilatokiak hiru gela ditu, beila egiteko*






OROILORE



Amillaga 27, BERGARA
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76

***Zerbitzua Debagoiena osorako***